

HIRIGINTZAREN ERAGINA EUSKARAREN KALE-ERABILERAN

2026ko martxoa



EHU



Botoi
Ikerketa
Taldea



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea

1.	SARRERA	4
1.1	PROIEKTUAREN AURKEZPENA.....	4
1.2	IKERKETA HELBURUAK, IKERKETA GALDERAK ETA HIPOTESIA	5
2.	HURBILPEN TEORIKOA.....	6
2.1	ESPAZIOA ETA HIZKUNTZA	8
2.2	HIRIGINTZAREN BILAKAERA.....	9
2.3	HIRIGINTZA ZAINZAILEA	11
3.	METODOA	13
3.1	LANTALDEA	15
3.2	LURRALDE MAILAKO ANALISIA	17
3.3	HERRI MAILAKO ANALISIA	22
3.3.1	Ikerketa parte-hartzailea	22
3.3.1.3	Sarrera modura.....	22
3.3.1.2	Herriaren izaera herritarren eskutik, metodologia zehatza	24
3.3.2	Ikerketa parte-hartzailetik ikerketa teknikora	26
3.3.3	Ikerketa tekniko: adierazleak eta aldagaiak.....	28
3.4	AUZO MAILAKO ANALISI ESTATISTIKOA	35
3.4.1	HIRIGINTZARA HURBILKETA	36
3.4.1.1	Aldagai sozio-urbanistikoen arteko korrelazioa	36
3.4.1.2	Hirigintza klusterrak.....	37
3.4.1.3	Hirigintza klusterren karakterizazioa.....	39
3.4.2	Datu soziolinguistikoen eta aldagai sozio-urbanistikoen arteko korrelazioa	42
3.4.3	Hurbilketa soziolinguistikoa	43
3.4.3.1	Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa	43
3.4.3.2	Gaitasuna Erabilera Transmisioa: GET indizea	45
3.4.3.3	Kale-erabilera eta GET indizearen aldagaien arteko aldea.....	46
3.4.3.4	Auzo-tipologia soziolinguistikoak.....	47
4.	DATUEN AZTERKETA.....	48
4.1	ALDAGAI SOZIO-URBANISTIKOEN ARTEKO KORRELAZIOA	49
4.1.1	Adierazleetako aldagai sozio-urbanistikoen arteko loturak.....	49
4.1.2	Aldagai sozio-urbanistiko guztien arteko korrelazioaren analisia.....	51
4.1.3	Hirigintza klusterrak	54
4.1.4	Azken irakurketa batzuk	59
4.2	HIRIGINTZA ALDAGAIEN ETA DATU SOZIOINGUISTIKOEN ARTEKO KORRELAZIOA	62

4.2.1	Zein hirigintza ezaugarri daude euskararen kale-erabilera altueneko auzoetan? Eta baxuenetakoetan?	62
4.2.2	Zein hirigintza ezaugarri daude kale-erabileraren eta hiztunen adin-taldearen arteko korrelazioetan?	65
4.2.3	Zein hirigintza ezaugarri daude euskalduntasun altueneko auzoetan? Eta baxuenetakoetan?	69
4.2.4	Aldagai adierazgarrienen zeharkako irakurketa	72
4.3	AUZOEN ETA HERRIEN ARTEKO DINAMIKA SOZIOLOGIAKLUSTERRA	77
4.3.1	Dinamika orokorrak: auzoetako kale-erabilera eta GET indizea	77
4.3.1.1	Auzo gainerabiltzaileen eta azpigerabiltzaileen analisia	78
4.3.1.2	Auzo euskaldunagoen eta auzo erdaldunagoen analisia	80
4.3.1.3	Baldintzaz gairik eta baldintzaz azpiko auzoen analisia	83
4.3.2	Auzo-tipologia soziologikoa	87
4.3.3	Aukeratutako auzoak	90
4.3.3.1	Zarauzko, Tolosako eta Hernaniko alde zaharrak	91
4.3.3.2	Gernika-Lumoko Txoraburu eta Zarauzko Aritzabalde auzoak	94
4.3.3.3	Hernaniko Karabel eta Zornotzako Larrea auzoak	98
5.	ONDORIOAK: HIZKUNTZA GUTXITUA ETA HIRIGINTZA ZAINZAILEA	103
5.1	Oinarri soziologikoa	104
5.2	Bi auzo mota: Erdigune Funtzionalak eta Beste Auzoak	105
5.3	Hirigintza ezaugarrien eta euskararen kale-erabileraren arteko harremana, gaika 108	
5.4	Metodoaren eta hipotesiaren irakurketak	112
6.	AZKEN LERROBUAK	113
6.1	Kalearen erabilera aniztasunetik zonifikaziora igaro da	113
6.2	Zentro bakarreko hirigintza ereduak euskararen erabileran eragiten du	116
6.3	Osasun eta administrazio guneek euskararen erabilera apal dezakete eta hizkuntza eta kirol guneek areagotu	117
6.4	Hirigintza zainzaileak eragin positiboa du nagusi den ordena soziologikoan	118
6.5	Zer egin dezakegu?	118
6.5.1	Hiri zainzailea sustatu	118
6.5.2	Auzoen arteko sare orekatua eraiki	119
6.5.3	Oinezkoen ibilbide eta zentro berriak sortu, azpiegitura eta zerbitzu publikoak lotuz	119
6.5.4	Haur-jolas eremuak oinarriko komertzio txikiari lotuta eraiki	120
6.5.5	Hirigintza erabakietan disziplinarreko ikuspegia txertatu	120
7.	BIBLIOGRAFIA	122
8.	ERANSKINA: GLOSARIOA	125

1. SARRERA

Euskararen kaleko erabileraren inguruko neurketek emaitza ezberdinak eman dituzte urteetan zehar. Aldaketa horiek aldagai ezberdin askorengatik gertatu dira. Tartean, gure lurraldea antolatzeko ezarri den hiri ereduak eragina izan du Euskal Herriko kaleetako espazio publikoetan jazo diren aldaketetan. Eta, bestalde, aldaketa horiek gure eguneroko ohituretan eragin dute: nola mugitzen garen, nola elkar zaintzen dugun, nolako elkarbizitza dugun, etab. Kaleen forma, funtzionamendua eta izaera aldatzeak, beraz, gure harremanetan eta hizkuntza ohituretan ere eragina izan du. Faktore soziodemografikoek hirigintzarekin duten erlazioan sakonduz, hirien, herrien eta auzoen garapena euskararen erabilerarekin eta haren bilakaerarekin erlazioa daiteke. Soziolinguistika Klusterrak jasotako datuak oinarri hartuta, euskararen erabilerak eta hiri eraldaketak duten lotura ikertzea da ikerlan honen helburu nagusia.

Helburu nagusi horretatik abiatutako ikerketa-proiektuak hiru urteko iraupena izan du. Euskararen kale-erabileraren datuak gutxienez hiru aldiz jaso izana, X, eta X irizpidetzat joz, bost udalerrri aukeratu genituen ikerketa burutzeko: Zarautz, Gernika-Lumo, Hernani, Tolosa eta Zornotza. Udalen, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordetzaren, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien dirulaguntzak jaso ditu proiektuak, baita herritarren partehartzea eta euskara, hirigintza eta berdintasun arloko udal teknikarien elkarlana.

1.1 PROIEKTUAREN AURKEZPENA

Euskal Herrian 80. hamarkadatik egiten dira **kaleetako hizkuntza-erabilera neurketak**, eta datu horiek euskarak gure herrietako kaleetan duen presentzia kuantitatiboki azaltzen dute. Neurketak lau eta bost urtetako maiztasunarekin burutu dira eta hogeita hamar urtetik gorako ibilbidea erakusten dute. Hiru hamarkada horietan aldaketa handiak jasan ditu bai hizkuntzaren egoerak bai gure kaleek, non aipatutako neurketak burutu diren. Kaleetan gertatu diren aldaketak ulertzeko beste faktore asko izan behar dira kontuan, eskala ezberdinetakoak eta diziplina askotarikoak direnak.

Kaleetako aldaketa horiek ondorio zehatzak izan dituzte: gure mugitzeko eran, elkar zaintzeko moduetan, elkarbizitza ereduetan, etab. Eguneroko jarduera horiek aldatu egin dira. **Kaleen forma, funtzionamendua eta izaera aldatzeak, beraz, gure harremanetan eta hizkuntza ohituretan ere eragina izan du.** Lefebvrek (1968) esan bezala, sustatzaileen hirigintza gailendu da; hain zuzen, gentrifikazio eta turistifikazio prozesuen bidez, espazio publikoaren beraren desberdintasunean, zatiketan, erosotasunean eta kontsumoan oinarritzen den hirigintza eta hiri-diseinua nagusitu da. Feminismotik argi azaldu zaigun moduan: eguneroko bizitza ez da kontuan hartu eta giza zaintzarako beharrak alde batera utzi dira. Beraz, azken urteetan, gure kaleak eta plazak, elkar zaintzarako baino, kontsumo eta produkzio logiketarako prestatu dira. Ondorioz, kalean lanean ari den zaintzaileak egin dezakeen espazio publikoaren erabilera kondizionatu du (Valdivia, 2018).

Ilde beretik, hirigintza-ereduak erlazio sozialetan duen eragina aztertzen duten ikerketak geroz eta ohikoagoak dira, izan ere, gizartean ondorioak nabarmenak baitira. Haatik, hirigintza-ereduek hizkuntzen erabilerekin duten lotura aztertzen duten proiektuak urriak dira. Hutsune hori betetzera dator, neurri apal batean, proiektu hau.

Dena den, aztergaiak badu errekonozimendua nazioartean, izan ere, Nazio Batuen erakundeak ezarritako eta, ondoren, herrialde bakoitzak moldatutako Garapen Jasangarrirako Helburuen [aurrerantzean GJH] artean hamaikagarrenak **hiri eta komunitate jasangarriak** lortzea du helburu. Horren baitan, herritar guztiek oinarritzko zerbitzu eta garraio bide egokiak eskuratu ahal izatea eta **kultura-ondarea zaindu** beharra aurkitzen dira, besteak beste. Helburu horri erantzunez, ikerketa honek hirigintzaren eta euskararen arteko erlazioa nola jazo den eta nola eraldatu den ulertzearekin batera, etorkizunerako estrategiak diseinatzen lagun dezake.

Horrez gain, gure herriek eta hiriek hiru hamarkadatan jasan dituzten aldaketak eta gizartean horrek izan duen eragina ezagutzeak GJHaren 11. helburura hurbiltzeaz gain, beste aplikazio ugari izan ditzake. Horien artean dago **Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa**. Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaren (ELE) xedea ondokoa da: *Lurralde eremu (auzo, herri, hiri, eskualde) jakin bateko proiektu eta plan pribatu zein publikoek bertako errealitate linguistikoan izan ditzaketen balizko eraginak aurreikustea, identifikatzea eta ebaluatzea*. Gainera, euskarari edota euskal komunitateari ekar diezaiaketen kateak murrizteko neurriak hartzea ere nahi da.

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek sustatutako plan eta proiektuek euskararen erabilera eragina izango dutela aurreikusten bada, hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioak egin behar dira. Horretarako, azken hamarkadetan egin diren aldaketek – planen eta proiektuen bidez – izan duten eragina ezagutzea ezinbestekoa da. Era berean, eragile esanguratsuenak identifikatu ahal izateko eta etorkizuneko planetan zuzentzeko jokatzeko gakoak eskuratzea garrantzitsua da. Ebaluazio horren ondorio gisa, neurri zuzentzaileak proposatzen dira. Neurri zuzentzaile horiek espazio publikoaren izaeraren inguruko proposamenak ere izan daitezke, eta ikerketa honek aspektu honetan ekarpena egin nahi izan du; hain zuzen, espazio publikoek dituzten zenbait ezaugarri euskararen kale-erabilera datuekin gurutzatuz.

Laburbilduz, gure lurraldeak jasan dituen aldaketak gizartean, komunitatean, harremanetan, eta ondorioz, hizkuntzen erabilera zein eragin izan duen ulertzen lagunduko du ikerketa honek. Gainera, disziplina ezberdinetako taldeen elkarlanak ikuspegi aberatsagoa eskainiko du, ez bairik gabe.

1.2 IKERKETA HELBURUAK, IKERKETA GALDERAK ETA HIPOTESIA

Testuinguru horretan, pertsonen arteko harreman moduak eta hizkuntzaren erabilera kontuan izanik, ondorengo **ikerketa galdera** sortzen da: nola aldatu da kalea azken hogeita hamar urteetan? Edo, zehatzago esanda:

Zertan eta nola eragiten dute euskararen kale-erabilera hirigintzak eta lurralde antolaketako erabakiek?

Ikerketa galdera horri marko teoriko zehatz batetik erantzuten zaio. Horretarako 2022. urtean Bat soziolinguistika aldizkarian aurkeztu zen artikuluak ematen dio ikerketa honi hastapeneko marko teorikoa eta beretik eratorrita zehazten da lanerako hipotesia, ikuspuntu produktiboek eta erreproduktiboek hirigintza eta lurralde antolamenduan izan duten eragin ezberdina erdigunean jarriz.

Honela, ikerketa honek ondorengo **hipotesia** du oinarri:

Zaintzak erdigunean jartzen ez dituen hirigintza-ereduak eragin mugatzailea du hizkuntza gutxituen kale-erabileran.

Ondorioz, ikerketaren **helburu nagusia** ikerketa galderari erantzutea izango da:

Hirigintzak eta lurralde antolaketako erabakiek euskararen kale-erabileran zertan eta nola eragiten duten ulertzea.

Era berean, honako **helburu partzialei** ere erantzun nahi zaie:

- Euskararen kale-erabilera sustatzeko hirigintza eta lurralde antolamendutik zer egin daitekeen ulertzea.
- Beste testuinguru batzuetan aplikagarria izan daitekeen ikerketa metodologia sortzea.
- Metodologia horren aplikaziorako adierazle egokiak identifikatzea eta, ondorioz, datu-bilketan egon daitezkeen gabeziak identifikatzea.
- “Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa [ELE]” tresna hobetzeko ekarpenak egitea.

2. HURBILPEN TEORIKOA

Atariko atalean aipatu legez, hizkuntza ohituretan izan diren aldaketak ulertzeko, ezinbestekoa da espazio publikoan jazotako bilakaera ulertzea (non neurketa horiek egin diren). Azken hogeita hamar urteetan gertatu diren aldakuntza politiko, sozial eta ekonomiko guztiek, lekuetan eta pertsonengan eragin zuzena izan dute; ondorioz, jendeak toki ezberdinak erabiltzeko moduetan ere izan du eragina. Hau da, giza harremanak izateko inguruak eta moduak aldatu egin dira (Telleria, 2022).

Gure bizi inguruen diseinuak eta antolaketak globalizazioak ekarri dituen logiketan txertatu dira; horrela, gure kaleak, mendebaldeko beste edozein hiri inguruk izan duen bilakaerarantz doaz, hau da homogeneotasunerantz, estandarizaziorantz eta, ondorioz, tokiko nortasunaren galerarantz. Azken urteetako hirigintza gauzatzeko erabili den estrategia zonifikazioa izan da eta, ondorioz, lantokiak, biziguneak, aisialdi guneak eta merkataritza guneak banandu eta beraien arteko distantzia handitu egin da. Erabilera ezberdinen arteko loturak errepide bidez egiteko beharra dakar horrek, auto pribatuaren mugikortasuna bultzatuz. Autoen eta errepideen ugaritasunak espazio publikoaren kalitatea jaisteak dakar eta, aldi berean, abiadura handitzeak pertsonen espazio publikoan egiten dituzten egonaldiak laburtzea eta gutxitzea. Laburbilduz, aurrez aurreko

kontaktuak murriztu egin dira, soziabilitatea asko galdu egin da eta segurtasun sentazioa kolokan jarri da.

Zonifikazioaren lehentasuna produzitzearen beharrak asetzea izan da eta egoera horrek gure bizimodua zatitu eta banatu egin du, lan produktiboak sustatuta eta zaintza lanak bigarren mailan utzita. Zehatzago esanda, eguneroko bizitza ez da kontuan hartu eta giza zaintzarako beharrak arbuia egin dira. Beraz, azken urteetan, gure kaleak eta plazak, elkar zaintzarako baino, kontsumo eta produkzio logiketarako prestatu dira (Valdivia 2018).

Oro har, biziguneen merkantilizazio prozesua gertarazi da. Prozesu horrek eragin zuzena izan du espazio publikoan eta aldaketa sakonak ekarri ditu. Eguneroko beharrak asetzeko diren tokiko komertzio txikiak desagerrarazi egin dira eta turistei edo aisialdira soilik zuzendutako komertzio global eta frankiziek tokia hartu dute. Beste era batera esanda, espazio publikoaren pribatizazioa izan da espazioaren aldaketa horien ondorio argienetako bat gure hirietako eta herrietako kaleetan, eta tabernetako terrazak horren erakusgarri argiena dira. Kalean esertzeko ordaindu beharra dago eta, horrek, zenbait kaletan egoteko eta harremanak garatzeko aukera gizartearen zati bati bakarrik eskainita egotea dakar. Komertzio txikiaren desagertzearekin kaleen behar-solairuen huste prozesua gertatu da eta, ondorioz, herri txikienetan zerbitzu galera handia eta kaleko bizitzaren murrizketa nabaria jazo dira. Hiri handienetan, aldiz, nazioarteko izaera duten azalera handiko komertzioen etorrera gauzatu da. Horrela, kale horiek duten bizimodua erabat aldatu da, profil ekonomiko eta adin zehatz bateko jende normatiboari zuzentzen baitaizkio kontsumo gune horiek. Esanguratsua da kasu batzuetan lokal huts horiek gazteen bilgune bihurtu direla eta, ondorioz, gazteriaren kaleko egonaldiak murriztu egin direla.

Egiteko modu global eta produktiboarekin erlazionatuta, turistifikazioak itzal handia izan du gure inguruetan (de la Calle, 2019). Prozesu horrek ondorio zehatzak izan ditu, hala nola, erdiguneetan bisitarien presentzia handitzea, turismo-kontsumoari zuzenean lotutako jardueren nagusitzea, negozio-sorta geroz eta zabalagoa eskaintzea eta hori kanpoko bezeroengana bideratutakoa izatea (Take away, marka globalak, frankiziak), etxebizitzak denbora motzeko merkantzia-produktu turistiko bihurtzea (Airbnb, esaterako), edota hiri-paisaia edo eszena bat sortzea non elementu turistikoak nagusi diren (espazio publikoetan ostalaritzak erabilitako terrazak bitartez, adibidez). Horrela, gure bizigune ezberdinetan desoreka nabariak sortu dira eta zenbait kaletan tokiko nortasuna galdu da. Nolabait, toki horiek “ez toki” bihurtu dira. Era berean, gentrifikazio prozesuak gertatu dira hirigune askotan eta horrek ondorio nabarmenak ekarri ditu: diru-sarrerara gutxiagoko bizilagunen desplazatzea eta merkantzia turistiko bihurtzen diren espazioekiko desjabetze sinbolikoa eta arrotzea, besteak beste.

Aipatutako auzo horiek guztiek espazio publikoa erabiltzeko aukeren murrizketa eragin dute eta, era berean, gune ezberdinen arteko desorekak ekarri dituzte. Gure gizartea geroz eta zaharragoa eta kulturalki anitzagoa da. Konplexutasun horri erantzuteko mugak nabariak dira eta segregazio espazialaren eraginez, desorekak areagotzeaz gain, giza harreman aberatsak sustatuko dituzten erabiltzaile anitzeko espazioak falta dira. Espazio horien erabileraren murrizketarekin erabat loturik dago bertan hautematen den segurtasun falta (Hiria Kolektiboa, 2010). Adibide bat jartzearren, haurrek libreki erabiltzen zituzten kaleak eta plazak duela urte batzuk, baina, gaur egun, arriskuz beterik sumatzen dira (Tonucci, 2013). Ondorioz, haurrei, eurentzat espresuki

diseinatutako eremu itxi eta ultra babestuetara mugatzen zaie jolasa. Askotan, gainera, ordainpeko aisialdi taldeetara eta gidatutako kirol-jardunetara eta akademiatarako bideratzen dira.

Esan bezala, globalizazioak eta merkantilizazioak bultzatutako hiri eredu estandarizatu berriek mendebaldeko bizigune gehienetan antzeko ondorioak sorrarazi dituzte. Lurralde eta gizarte bakoitzaren berezitasunek ezberdindu egiten dute ondorio horien eragiteko modua, Euskal Herria barne. Euskal Herrian, gizartearen, kokapenaren eta biziguneen tamainaren arabera, bereizketa bat egitea komeni da ezaugarri amankomunenak bilatu ahal izateko. Bereizketa nagusiak bi dira: bata, Euskal Herriaren ipar eta hego aldeko errealitateek osatzen dute eta, bestea, hiri inguruko edo landa lurretako herriek.

Azken hogeita hamar urteetan kaleko hizkuntzen erabilera eta hiri espazioen eraldaketen arteko erlazioa ezagutu ahal izateak azterketa eta ikerketa sakonagoa eskatzen du, gaiaren konplexutasuna eta eragina duten aldagaien aniztasuna dela eta. Faktore horien artean arrazoi politikoak, sozialak eta ekonomikoak daude, eta horiek guztiak giza-harremanekin loturik daude, baita, bizitzeko erabiltzen dugun espazioaren morfologiarekin eta moduekin ere.

2.1 ESPAZIOA ETA HIZKUNTZA

Lehenago aipaturiko Lefebvreren (1991 [1974]) lana oso argigarria izan da hirigintzan hizkuntzaren rola ulertzeko bidean ere, espazioa hiru mailaren artikulazioan eraikitzen dela proposatzen baitu: espazio bizitua, pentsatua eta hautemana. Hiru espazio horiek honela defini daitezke: (i) espazio kontzibitua da instituzioek, hirigileek, arkitektoek eta ingurunea antolatzeke erabakimena duten beste gizarte-eragile batzuek diseinatzeko, planifikatzeko edo imajinatzen dutena, (ii) espazio hautemana da pertsona batek inguruko espazioari buruz duen interpretazio eta irudikapen mentala, zein faktore kultural, sozial eta indibidualek baldintza dezaketen, eta (iii) espazio bizitua da eguneroko bizitzan espazioaren esperientzia zuzen eta praktikoa (Amorrortu eta beste, 2025).

Espazioa, beraz, soziala da (Bourdieu, 1989; Foucault, 1986) eta hiru maila horien eta hiztunen elkarreraginean sortzen da. Sortze prozesu hori, baina, modu asimetrikoan, hierarkikoan, gertatzen da. Hizkuntzak berebiziko garrantzia du espazioaren eraikuntzaren prozesu horretan, eta soziolinguista geroz eta gehiago ari dira aipaturiko prozesuak hobeto ulertzeko horren inguruko ezagutzan sakontzen, hizkuntza ez baita elkarreraginerako komunikazio-tresna bat bakarrik, hiztunak espazioan inskribatzeko eta kokatzeko modua ere bada, hizkuntza kapitala ere baden heinean (Bourdieu, 1989). Horrek zera esan nahi du: hizkuntza komunikaziorako eta gizartearen aurrean modu zehatz batean agertzeko dela, baina hizkuntza praktika guztiei ez zaiela balio bera aitortzen gizartearen (jakina denez, hizkuntza hegemonikora jo izan ohi dute hiztun askok eta askok eta hizkuntza hegemonikoetan inbertitu izan ohi dute pertsona askok horrek gizartearen duen balioaren ondorioz).

Hizkuntzen balio-esleitze prozesu hori beste prozesu batzuekin lotuta dago; proiektu honetan aztergai diren hirigintza prozesuak barne. Esan bezala, espazioaren plangintza ez da neutrala, eta ez da arbitrarioa. Estrategikoa da. Eta estrategia horrek, estrategia orok bezala, helburu bati

erantzuten dio: esan bezala, espazioaren plangintzak produktibitateari erantzuten dio, azken hori baita kapitalismoaren muina. Hizkuntzeekin antzera gertatu ohi da: hizkuntza ideologiak eta hizkuntza praktikak ere helburu horretan txertatuta egon ohi dira. Esan bezala, bi prozesuak (hirigintza eta soziolinguistika) barne hartzen dituen ikerketa kopurua handitzen ari da eta, beraz, Euskal Herri mailan horretan ere sakontzeak berebiziko garrantzia du, argi ikusten ari baita aipatutako marko ekonomikoak ez diola mesede egin ohi hizkuntza gutxituari (edo, beste era batera esanda, hizkuntza-gutxitu prozesu hori indartzen duela).

2.2 HIRIGINTZAREN BILAKAERA

Aurreko atalean aipatuta hirigintza-eredua ez da betidanikoa. Hirigintza modernoaren hastapenak Erdi Aroko hiribilduek Pizkunderako bidean eginiko hausturatik abiatzen dira. Orduan hasi ziren gizartearen ezberdintasunak hirian kokatzen. Pentsamendu aldetik arrazionaltasuna hasi zen indarra hartzen eta kolektibitate indibidualtasunerako bideari ekin zitzaion (Asher, 2004). Testuinguru horretatik abiatuta, garrantzitsua da hirigintzak izan duen bilakaera aztertzea auzo bakoitzaren izaera ulertu eta ikuspuntu soziolinguistikotik aztertzeko. Udalerrri bakoitzaren ezaugarri fisikoez gain, gertakizun politiko eta ekonomiko ezberdinek herrien bilakaera oso era ezberdinean gauzatzea ekarri du eta, horregatik, orokortasunak ez du balio herri ezberdinen sorrera eta jatorria ulertzeko.

Erdi Aroko hiribilduek gaur egungo gure herri askotako **alde zaharrak** osatzen dituzte eta, berezitasunak dituzten arren, antzekotasun asko topa daitezke horien artean: dentsitate handiko auzoak dira, toki estrategikoetan kokatuak daude (ibaiaren ondoan, babespean, itsasoaren ondoan, goi-lautadetan, Donejakue bidearen inguruan), bertako etxebizitzaren tipologia ezberdina da (partzela estuak dira eta materialak, distribuzioa eta fatxadaren konposaketa ezberdinak dira), eta kale estuak dituzte, besteak beste. Auzo horien bilakaera oso modu ezberdinean gertatu da herri bakoitzean: batzuk hustu egin dira, beste batzuk herrien erdigune bilakatu dira zerbitzu asko eskainiz, eta beste batzuk turismoarentzat erakargarri bihurtu dira.

XIX. mendeko trenbidearen eta lehen industrien sorrerak landa lurretik hirirako emigrazioa bultzatu zuen, eta horrek hirien handitzearen beharra ekarri zuen. Horretarako hainbat hiribilduren harresiak bota eta lehen zabalgunek sortu ziren: zabalgune burgesak sortu ziren. Aldi berean, alde zaharretako bizigarritasun baldintza txarren kontra higienismoa eta funtzionaltasuna gailendu ziren.

Lehen zabalgunek gure hirietako eta herri batzuetako **erdiguneak** dira gaur egun, eta ezaugarri oso antzekoak dituzte guztiek: erretikula erregular baten eskema dute, etxe irla karratu edo errektangularren artean kale zabalak azaltzen dira eta, eraikinak, material noblez eginikoak, tamaina handiko etxebizitzak dituzte. Egun, erdiguneetako auzoek zerbitzu asko eskaintzen dituzte oro har, eta dentsitate handiko auzoak dira (are gehiago goi-solairu berriak baimentzearekin eta etxebizitzaren segregazioekin).

XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran industrializazio prozesuak landa-biztanleriaren hirietarako migrazioa eragin zuen. Ondorioz, etxebizitza eskasia larriagotu egin zen,

batez ere industrializazio prozesurik handiena jaso zuten udalerrietan. Estatuaren esku-hartzea berandu iritsi zen; horretarako, 1911ko **Etxebizitza Merkeen Legea** izan zen inflexio-puntua, etxebizitza arazoa zerbitzu publiko gisa ulertzen hasi baitzen (Herrerias, 1993). Etxebizitza merkeen auzo-tipologia nagusiak ondokoak izan ziren:

- **Bloke handietako etxebizitzaren auzoak** espazioaren aprobetxamendu maximoan oinarritzen ziren eta dentsitate handikoak ziren. Bloke handietan antolatutako etxebizitza kolektiboak ziren, higie- eta gutxieneko baldintza teknikoak bermatzeko diseinatu ziren eta hiri-sarearekin ondo integratuta zeuden. Gipuzkoan presentzia mugatua izan zuten; Bizkaian, aldiz, ohikoagoak izan ziren.
- **Lorategi-hiriak** (Ciudad-jardín) deituriko ereduak landa- eta hiri-balioen arteko sintesia bilatzen zuen, Ingalaterrako hirigintza-korranteetan oinarrituta. Auzo horien ezaugarri nagusiak hurrengoak ziren: hirigunetik urrun kokatuta, isolatuta eta lorategiz inguratuta zeuden, familia bakarreko etxebizitzak edota dentsitate txikikoak ziren, higie-, orientazio- eta argiztapen-irizpide zorrotzekoak ziren, oinezkoak eta ibilgailuen zirkulazioa bereizita zituzten, eta plaza edo gune sozial zentral bat zuten. Auzo horiek ez ziren benetako auzo autosufizienteak; inguruko hiri-nukleoak menpe jarraitzen zuten.
- **Ilaretan antolatutako auzoak**, zeintzuk izaera landatarreko ilaretan osatuta zeuden. Auzo horietako ezaugarri nabarmenenak hauek ziren: etxebizitzak maila-kurbetara egokituta zeuden, oinezkoentzako kaleak erdian kokatuta zeuden, aurrealdean lorategia eta atzean baratzea izaten zuten, bi solairuko etxebizitzak ziren eta hurbileko hiri-nukleoekiko menpekotasuna zuten. Egun, auzo horietako lorategi eta baratze asko desagertu egin dira.

Industrializazio prozesua ez da jarraia izan ez denboran ezta espazioan ere, hau da, ez da garai berdinetan gertatu lurralde guztietan. XX. mendean, lehenago Bizkaian eta Gipuzkoan (1950-1970 hamarkadetan) eta ostean Araban eta Nafarroan jazo zen (1960ko hamarkadan). Eskulanaren behararengatik immigrazio fenomeno indartsua gertatu zen, nagusiki Gaztela-Leon, Galizia, Extremadura, Andaluzia eta Kantabriatik etorritako langileen ondorioz. Hiriek ez zuten gaitasunik zetorren immigrante kopurua asetzeko eta, beraz, txaboletan bizitzera behartu ziren langile eta familia asko. Garai horretakoak dira azkar eta presaka egindako auzo kopuru handi bat: desarrollismo garaikoak izan ziren, zeintzuk habitatzeko zegoen emergentziari erantzuteko balio izan zuten.

Desarrollismo garaiko auzoak periferian daude. Etxebizitzaren eraikitzea lehenesten zen; ondorioz, urbanizazioa bigarren maila batean geratzen zen eta askotan zoladurarik eta espazio publikorik gabeko auzoak ziren. Horrez gain, eraikinen materialen kalitatea eskasa eta etxebizitzaren tamaina txikia ziren. Gaur egun, auzo horiek birgaitzen ari diren arren, oraindik espazio publikoaren kalitatea nahiko urria da, eta ekipamendu falta nabaria da. Espazio erresidualak autoen aparkaleku izan ohi dira, eta dentsitate handiko auzoak izanik, espazio berde gutxi dago.

1980ko hamarkadan, aldiz, desindustrializazio fenomenoak jasan zen hainbat arrazoiarengatik, eta krisi horrek populazio jaitsiera ekarri zuen. Bestalde, 1990ko hamarkadan EAeko biztanleriaren herena EAetik kanpo jaiotakoa zen. Iparraldeko errealitatea oso ezberdina izan da geroztik: populazioaren igoera nabaria izan da kostaldeko kantoietan eta portu industrialen inguruan,

Baiona, Angelu eta Biarritzen inguruan bereziki. Gainera, mundu gerrek eta jaiotze tasa baxuek ere eragina izan dute populazioaren jaitsieran.

Auzo berriagoek behar ezberdinei erantzuten diete eta oso anitzak dira egiturari, baina hirigintza lege ezberdinak indarrean sartu zirenetik, autoak aparkatzeko espazioak, espazio publikoaren eta gunek berdeen azalera, etxebizitzaren azalera minimoak eta programak, eta ekipamenduen gertutasuna bermatuta dituzte.

Desindustrializazioak beste jarduerari ekonomiko batzuk bultzatu zituen, hala nola, eraikuntzaren industriaren edo zerbitzuena. Teknologia eta ikerkuntzak ere beren tokia bilatzen zuten eta, horrekin lotuta, parke teknologikoen sorrera gauzatu zen hiri askotan. Bestalde, turismoak gorakada nabaria izan du azken urteetan hainbat tokitan aspalditik errotuta bazegoen ere. Gehienbat kostaldean (hondartzen inguruan) pilatu den arren, osasun-turismoak, landa-lurrekoak edo jaiek bultzatutakoak ere eragina izan du.

Gure inguruan izan dugun garapen ereduak zenbait antzekotasun sortu ditu tamainaz parekoak diren herrietan. Ondorioz, aldi ezberdinetan toki ezberdinetan eraiki diren auzoak izango dira ikerketa honetan aztertuko diren espazioak. Garai eta aldi antzekoetan euskararen lurraldean eraiki diren auzoen artean logika soziolinguistikoak nolakoak diren ikusteak zentzua izan dezakeelako egiten du aurrera ikerketa honek.

2.3 HIRIGINTZA ZAINZAILA

Aurrez esan bezala, hiriaren diseinuan produkzioaren logikak ezarri dira eta hiria bera produktu bilakatzera iritsi da gizartea. Bide horretan, eguneroko bizitza egoki garatzeko, pentsamendu feministak zaintzaren logikak erdigunean jarri behar ditugula erakutsi du:

Genero ikuspuntutik eginiko hirigintza ez da izango emakumeentzako hirigintza, baizik eta emakumeari egotzi zaizkion rola, egun gizonak ere betetzen dituenak, kontuan hartutako diseinu eta antolaketa bat proposatuko duen hirigintza da. Hirigintza modu horrek gizakiaren bizitza garai guztiak kontuan izaten ditu, haurtzarotik zahartzarora, eta ez da lan produktibo garaian den gizarte zatiarentzat soilik pentsatzen, egundaino gehienetan egin den bezala.

(Telleria, 2011, 87. orr)

Ikuspegi horretan aitzindaria Jane Jacobs izan zen, zeinak 60. hamarkada amaieran ikuspuntu mekanizistatik egiten ari ziren hirien aldaketa sakonei aurre egin zien (Jacobs, 2020 [1961]). Kaleetako dendak, auzoko jendearen joan-etorriak, elkar ezagutza eta umeak kalean jolastea aldarrikatzen zuen, hau da, "hiri-bizitasuna" aldarrikatzen zuen.

Hiriaren izaera soziala oinarri hartuta, hiri zainzailearen kontzeptua aurkeztu du Valdivia soziologoak (Valdivia, 2018). Hiri zainzailearen ideia, modernitatean eraiki den hiri kapitalista androzentriko eta patriarkalaren aurrean eraikitzen da. Hiri-eredu horretan, geroz eta gizarte heterogeneoagoa aurkeztu zaigu, astirik gabekoa eta aisialdirako tarterik eskaintzen ez duen bizi ereduetan murgilduta dagoena. Zaintza lanak ezkutuan daude eta hiri-inguruek lan horiek egiteko

aukerak ukatzen dituzte; produkzioaren behar eta erritmo kapitalistei egokitzen ez zaizkien pertsona eta zereginak alboratuak daude eta ez dute Lefebvrek (1991 [1974]) defendatzen zuen hirirako 'eskubiderik'¹.

Hirigintza zaintzaile batek zaintza lanen beharrak erdigunean ipintzen ditu, horretarako beharrezkoak diren zerbitzu eta ekipamenduak oinezkoa eta gertukoa den zerbitzu sare publiko batean eskainiz. Horretarako, adin ezberdinekoen beharretara egokitzen diren jolasak, iturri, komun publiko, elementu natural, itzal, aterpe, banku eta mahaiekin atontzen dira espazio publikoa osatzen duten kale eta plazak (Valdivia, 2018). Horrek zaintza lanak egoki garatzeko tokiak izatea ahalbidetzen du. Bestalde, nor bere burua inongo aktibitate ekonomikoren beharrik gabe zaintzeko aukera eskaintzen du, aisialdia eta kirola egiteko toki publiko eta irekiak proposatzen ditu eta, bertan, pertsonen arteko harremanak errazten dira. Hirigintza zaintzailea garatzeko, beraz, hiriaren erabiltzaileengan pentsatu behar da, bai pertsona zainduetan bai zaintzaile direnetan.

Hiriak auzoez osaturiko gune moduan ulertzen dira, non eguneroko bizitzarako zerbitzuak, ekipamenduak eta komertzio txikiak ekitatiboki banaturik topa daitezkeen; hau da, auzoak eguneroko bizitzaren garapenerako unitate gisa aurkezten dira. Espazio horiek oinez egiteko moduko ibilbideetan antolatzen dira eta kotxe pribatuaren erabilerarekiko dependentzia ahalik eta urriena da. Eredu horrek, beraz, guztiontzat fisikoki eta ekonomikoki irisgarria den garraio publikoan oinarritutako mugikortasuna bultzatzen eta lehenesten du oinezkoarekin batera. Garraio publikoak gune produktiboak zein erreproduktiboak lotzen ditu eta oinezko sare zabal baten baitan antolatzen da (Valdivia, 2018).

Bestalde, espazio pribatuari erreparatzean, hiri zaintzaile batek ez du etxebizitza produktu gisa ulertzen eta ez du espekulatzen edo etxe jabeentzat soilik onuragarriak diren araudi eta dinamikarik onartzen; alokairuekin ez da inor aberasten eta bizi eredu eta modu ezberdinak sustatzen ditu (Valdivia, 2018).

Gainera, gure herrietako kaleak ezberdin bizi eta hautematen ditugu guztiok eta, horregatik, ezinbestekoa da onartzea zenbait pertsonen segurtasun faltaren pertzepzioagatik hiri barneko mugikortasunean hautu mugatuak egiten dituztela. Ikerketa honetan abiapuntutzat hartzen da kaleak biziak izateko seguruak behar dutela izan (Hiria Kolektiboa, 2010).

Orain arteko ibilbidean, teoria zaintzailearen garapena eta bertatik eratorritako ikerketa hiri handiei begira garatu dira batik bat. Ikerketa honek, aldiz, gure lurraldeko herri ertainen testuingurura ekarri nahi izan du planteamendu teoriko hau. Gerturatze horrek hiri handien eskalan behera egitea eskatzen du, herri ertainen izaerari egokituz. Horrela, ikerketa honetan hiri zaintzaileak barneratzen dituen "15 minutuko hiria" (Moreno, 2021) edo "8-80 hiriak"² bezalako

¹ 'Eskubide' terminoa Lefebvrek berak erabilitakoa da. Horren inguruan idatzi zuen liburu bat: jatorrizko hizkuntzan, "La droit à la Ville".

² "Ideia sinple baina boteretsu batek gidatzen gaitu: gure hirietan egiten dugun guztia egokia bada 8 urteko eta 80 urteko batentzat, orduan pertsona guztientzat hobe izango da." <https://www.880cities.org/>

kontzeptuak oinarritzat hartzen baditu ere, ikerketaren kokapenak eta azterketa inguruaren eskala txikiagoak eta egokitzapen eta hausnarketa berriak eskatu ditu. Zentzu horretan, bada ikuspuntu hori “euskararen lurraldera” (Telleria, 2024) egokitzeko hastapeneko hurbilketa egiten duen ikerketarik. Beraz, euskararen lurraldean eta hirigintza zaintzailean oinarritutako ikerketa honek zaintza ikuspuntua hiri handietatik hiri txiki edo herri ertainetako auzoetara dakar; herri izaera duten hirietatik, nortasun propioa duten auzoetara. Bide horretan, jakintza kokatua abiapuntutzat hartu da (Haraway, 1995), auzotarren ikuspuntuak eta pertzepzioak ezinbestekoak baitira tokikotasuna ulertzeko.

Azkenik, eta ikerketaren garapenean —mugak-muga— kontu honi gehiegi erreparatu ez bazaio ere, ezinbestekoa da onartzea zaintzen duen hirigintza batek, pertsonak zaintzen dituen heinean, inguru ere zaintzen duela. Hau da, inguru naturalari eta hiriaren ekosistema izaerari ere men egin beharko dio eta pertsonak ez diren beste izakiak ere kontuan izan beharko ditu.

3. METODOA

Esan bezala, txosten honetan aurkezten den lana Botoi Ikerketa Taldeak (EHU/UPV) [aurrerantzean BIT (EHU/UPV)] Soziolinguistika Klusterrarekin elkarlanean abiatutako lan zabalago baten testuinguruan kokatzen da eta lan horren azken emaitzak jasotzen ditu. **Hirigintzak eta lurralde antolaketako erabakiek, euskararen kale-erabileran zertan eta nola eragiten duten ulertzeko metodologia finkatzea** proposatzen da. Euskararen kale-erabileraren eta hirigintza eta lurralde antolaketaren arteko harremanak ulertu eta testuinguru zabalago eta bestelakoetan antzeko ikerketa garatzeko **irizpide anitzeko metodologia** finkatu da.

Ikerketa garatzeko funtsezkoa izan da BIT (EHU/UPV)-ren eta Soziolinguistika Klusterraren arteko elkarlana. Horrela, eskema metodologiko orokorra honakoa izan da: **Soziolinguistika Klusterrak azken hogeita hamar urteetan egindako neurketetatik eratorritako datuak hartu dira abiapuntutzat** (hasierako neurketak lau urteko maiztasunarekin eginak izan ziren eta azken edizioetan bost urteko maiztasuna izan dute). Bestalde, BIT (EHU/UPV)-ek **hirigintzaren ikuspuntutik gertatutako bilakaeraren analisisa** egiteko oinarriak finkatu ditu. Horrela, **parte hartzean oinarritutako metodologia izan da oinarri**. Tokian tokiko gizartearen antolaketa hurbilketa egin da, herri bakoitzean bertako herritarrek auzoen antolaketa nola bizi duten eta espazioen erabilera zein den ulertuz. Ondoren, soziolinguistika zein hirigintza eremuetatik eratorritako **datu kualitatibo eta kuantitatiboen gurutzaketa** egin da. Horretarako, **GIS tresna** (Geographic Information System; euskaraz, Geografia Informazioko Sistema) **oinarri** hartu da, tresna horrek modu bisualean datuak geolokalizatzeko eta aztertzeke aukera ematen baitu.

Horretarako, metodoaren hurbilketa teoriko baten ondoren, Euskal Herri mailako lurralde azterketa egin da, eta herri ertainak aztertzearen egokitasuna ondorioztatu da. Hala, 15.000

biztanletik 25.000 biztanle bitarteko bost udalerrri aukeratu dira³, eta ikerketa prozesua bi fasetan egin da. Lehen fasean (2023an) metodoa frogan jarri zen modu pilotu batean Zornotzan eta Zarautzen. 2024. urtean, azterketa metodoa finduta, Zornotzako analisiaren berrikusketa batzuk egin ziren eta Tolosa, Hernani eta Gernika-Lumo aztertu ziren. Ikerketa kasu horiek udalerrri mailan eta eskala xehetuagoan, auzo mailan, aztertuta, tokiko emaitzak lortu dira; horrela, **azken metodoa finkatzea** lortu da. Txosten honetan bost herriei begiratuko zaie.


Metodoak aurrez **analisirako adierazleak** finkatzea eskatu du. Adierazle horiek proiektu-kide ezberdinen arteko lanketa eta hausnarketa ugariaren ondoren etorri dira eta marko teorikoari lotuta egon dira. Elkarlan modu bera erabili da, behin azterketa garatu eta datuen irudikatzea eginda, **ondorioak** atera ahal izateko. Prozesu horretarako, aztertutako bost herrietako berrogeita hamabi auzoetako datuak gurutzatu egin dira analisi estatistikoa burutuz. Esan beharra dago bost herri horiekin herriak aztertzeko metodoa finkatu dela eta, ikerketa orokorrerako hori nahikoa bada ere, zenbat eta herri gehiago aztertu datu esanguratsuagoak eta interesgarriagoak lortuko direla. Gurutzaketa estatistiko horretan elkartu egin dira hirigintzari dagozkien eta euskararen kale-erabilerari lotuta dauden datuak.

Laburbilduz, metodoak herri mailako ondorio partikularrez gain, ikertu diren herri guztietako auzo guztien datuak jarri ditu hartu-emanen. Zehatzago esanda, adierazitako bost herrietan oinarritzko azterketa horiek egin ondoren eta herri bakoitzak banaka dituen joerak antzemanda, aztertutako herrietako auzo guztien irakurketa bateratua ahalbidetu du analisi estatistikoak. Bertatik antzeko errealitateetan gertatzen diren egoerak plazaratu dira, eta hizkuntza erabilera antzeko datuek hiri errealitate ezberdinekin dituzten loturak erakutsi.

Azaldutakoa era bisualagoan adierazteko, hurrengo bi irudiek ikerketa garatzeko elkarlanaren eskema metodologiko orokorra eta ikerketa prozesuaren eskema erakusten dituzte, hurrenez hurren.


³ Udalerrriak hautatzeko, hiru irizpide nagusi hartu dira kontuan: lehenik, erabileraren kale-neurketako datuak gutxienez hiru une desberdinetan eskuragarri izatea; bigarrenik, herriaren tamaina; eta, azkenik, udalaren ikerketan parte hartzeko interesa.

1. irudia: Ikerketa garatzeko elkarlanaren eskema metodologiko orokorra



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako irudia

2. irudia: Ikerketa-prozesuaren eskema orokorra



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako irudia

3.1 LANTALDEA

Proposamen hau aurrera eramateko, funtsezkoa izan da **Soziolinguistika Klusterraren eta Euskal Herriko Unibertsitateko Botoi Ikerketa Taldearen (BIT) elkarlana**. EHUko ikerketa taldeak garatu eta gidatu du ikerketaren prozesu metodologikoa hirigintzaren eta zaintzen ikuspegi ardatzean jarrita, baina funtsezkoa izan da, era berean, Soziolinguistika Klusterreko kideen partehartzea. Azken horiek, euskararen kale-erabileraren datuak eskuragarri jartzeaz gain, ikerketan soziolinguistikaren ikuspegi txertatzen lagundu dute.

Botoi Ikerketa Taldea (BIT) - EHU

Proposamen honetako lantalde nagusia **Botoi Ikerketa Taldea (BIT)** osatzen duten Euskal Herriko Unibertsitateko **Arkitektura Saileko irakasle eta ikertzaileek osatzen dute**. Horrela, proiektu honetako **ikertzaile burua** (IP) BIT taldeko buru den **Koldo Telleria Andueza** arkitekto doktorea izan da.

Koldo Telleria Andueza: hirigintza arloan eskarmentu sakona du, bai profesio liberalari bai akademiari lotutako ibilbidean. Azpimarragarria da **hirigintza** eta **generoa** edo/eta **tokiko kulturarekiko** uztarketan egin duen lana. Era berean, funtsezkoa izango da bere ekarpena **hirigintzaren eta euskararen alorraren arteko zubi-lanean** eman dituen pausoengatik. Zentzu horretan, eta proiektu honen asmoei dagokienez, adierazgarria da **Eragin Linguistikoaren Ebaluazioan (ELE)** aditu tituluaren **graduondoaren** zuzendaria eta irakaslea dela 2020tik. Azkenik, eragile eta erakunde ezberdinekin **lankidetzaren prozesu anitzetan** aritu izanagatik asko eman dio proiektuari. Lankidetzaren esperientziarikiko, azpimarragarria da **nazioarteko proiektuetan** izan duen partehartzea.

Bestalde, **Irati Otamendi Irizar** aritu da BIT taldeko ikertzaile gisa. Iratiri dagokionez (arkitekto doktorea), ekarpen nagusia bere **ikertzaile ibilbideari** lotutakoa izan da. Zentzu horretan, aipagarria da **hiri jasangarrien eta tokiko garapenarekin** erlazioatuta —**ZTBP Euskadi 2030**-en harira— egin duen jarduna. Bestalde, **ikerketaren metodologiaren** ikuspegitik emankorra izan da bere parte-hartzea.

Azkenik, **Oihana Santolaria del Camporen** (arkitekto doktorea) partehartzea interesgarria da bere ikertzaile esperientziagatik zein hirigintzaren arloan egindako ibilbideagatik. Zentzu horretan, aipagarria da hirien bilakaeraren azterketan egindako jarduna (tesia: “Evolución Histórico-constructiva de los edificios residenciales del casco histórico de Hernani”), zeinetan egoitza-erakinen azterketa bat egiten duen Erdi Aroan sortu zirenetik gaur egunera arte, horrek espazio publikoan izan duen eragina landuz. Irakaskuntza eta ikerketa lanez gain, lanbidea era liberalean egiten du eta eskarmentua du erakunde zein administrazio publikoekin harremanetan.

Ikerketa taldearekin elkarlanean beste kide batzuk ere jardun dute:

Ainhoa Guerras Alfonso

Arkitektoa (2012, EHU) eta IVAPeko “Hirigintza eta lurralde-ikasketak ikastaroa” burututakoa (2018-2019. EVETU. IVAP). Profesio liberalean genero, hirigintza eta partehartze proiektuetan jardun du, esaterako, ikerketa honetan adibide bezala erabilitako **"Eguneroko bizitzarako hirigintza. Tolosako azterketa teknikoa"** proiektuan. Ikerketa honetan, estatistika eta geolokalizazioa elkartzen dituen lanetan aritu da.

Manuel Chaves Maza

Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza (2002, Pablo Olavide Unibertsitatea) ikasi zuen. Pablo de Olavide Unibertsitateko doktorea da “El apoyo institucional a emprendedores” tesiarekin (2020) eta irakasle laguntzaile bezala dihardu 2023. urteaz

geroztik aipatutako unibertsitatean. Adimen artifiziala, estatistika eta datuen analisisan aditua da, eta gai hauetan aritu da ikerketa honetan lanean.

Soziolinguistika Klusterra, euskara biziberritzeko ikergunea

Soziolinguistika Klusterra euskararen ikergune zientifikoa da, ezagutza soziolinguistiko kritikoa sortu, kudeatu eta beste toki batzuetan sortutakoarekin uztartu eta gizarteratzen duena, ikuspegi teorikoak, praktikoak eta aplikatuak bateratuz. Soziolinguistika Klusterreko hiru ikerlari aritu dira lanean —Olatz Altuna Zumeta, Asier Basurto Arruti eta Miren Otxotorena Aranguren—, eta bai euren ibilbide akademikoak (hizkuntzalaritza eta soziologia alorreko ikasketak) bai arlo profesionalean metatutako eskarmentuak aukera eman du hizkuntzaren eta gizartearen arteko harremanak sakon ulertzeko eta ikerketaren diseinuan eta garapenean integratzeko. Zehazki, ekarpen hori osatu dute euskararen kale-erabilerari buruz eta hizkuntza portaerei buruz duten ezagutzak. Horrek guztiak berebiziko interesa du hizkuntza gutxituen kasuan, erabileraren auzia ez delako neutrala izaten, baizik eta tentsio sozial, legitimazio-prozesu eta botere-harreman jakinen auzia izaten delako, eta, jakina, horrek dakar datu hauek gizarteratzearen garrantzia.

Gainera, Euskal Herriko hizkuntza praktika eta joeren ezagutza kokatua eduki izanak eta horren garrantziaren ezagutzak ere baldintzatu du soziolinguistikatik ikerketari egin zaion ekarpena, datu soziolinguistikoak kokatuak behar baitute izan, hau da, testuinguru zehatz batean jaso, aztertu eta interpretatu behar baitira. Horrekin batera, landu izan dituzten gaietan oinarrituta, ikerketan txertatu dute hizkuntzak espazioaren eraikuntzan duen rola ikuspegia (zein guztiz bat datorren hirigintza eta soziolinguistika uztartzen dituen ikerketa proiektu batekin). Gainera, Euskararen Adierazle Sistemari (EAS) eskuragarri dauden adierazleen informazioa ere baliatu da, gizartearen esparru desberdinetan euskarak une jakin batean duen zabalkundea eta denboran zehar izaten ari den bilakaera zehatz-mehatz azaltzeko balio baitu (www.euskadi.eus/eas).

Oro har, hizkuntzak botere harremanetan duen rola analizien ezagutza beharrezkoa izan da hirigintza-erabakiek hizkuntzen eta, zehazki, euskararen kale-erabileran izan dezaketen eragina ulertzeko giltzarri gisa.

3.2 LURRALDE MAILAKO ANALISIA

Lurralde mailako analisisan errealitate sozioekonomikoa, urbanistikoa eta soziolinguistikoa hartu dira aintzat. Horrela, aldagai ezberdinak grafikoki alderatuz, Euskal Herriko —eta datu batzuen kasuan EAEko— udalerrri ezberdinek duten errealitatea eta azken 60-70 urteetan izan duten bilakaera ezagutzera hurbildu gara. Biztanleria, mugikortasun azpiegiturak, DEGURBA sailkapena⁴, ekipamenduen banaketa, komertzio txiki eta handiaren arteko proportzioa,

⁴ DEGURBA edo urbanizazio-maila eremu baten izaera adierazten duen sailkapena da. Hiri multzoetan eta hiriguneetan bizi den tokiko biztanleriaren arabera oinarrituta, Tokiko Administrazio Unitateak hiru eremu motatan sailkatzen ditu: • Hiriguneak: Biztanleria dentsitate handiko eremuak. Ziega jarraituan (baita

turismoa, etab. izan dira aztertu diren gaietako batzuk. Horiek, era berean, euskararen kale-erabilera datuekin (egungoa zein bilakaera) alderatu dira.


Eguno Euskal Herriko hiri-sistema hierarkizatutako nukleo ezberdinez osaturik eta hiri eremuek duten tamaina funtzionalak baldintzaturik dago. Eskaintzen dituzten zerbitzu kopuru, ekipamendu, azpiegitura eta dotazioek hirien arteko fluxuetan eragiten dute eta mailakatu egiten dituzte. Oro har, lurraldea hiriburuen (Bilbo, Donostia, Vitoria-Gasteiz, Iruñea eta Baiona) inguruko sistema polinuklear batek egituratzen du.

Hiri sistema horiek definitu nahian, hegoaldeko Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzako araudiek "Eremu funtzional" izenpean herrien taldekatzea egiten du eta hamabost eremu ezberdinetan banatzen du erkidegoa. Nafarroako Foruak, aldiz, bost eremu funtzionaletan banatzen du lurralde hori.

Ezinbestekoa da herri bakoitzak izan duen bilakaera ulertzea izan duen hazkundera eta herrien arteko harreman fluxuak ulertarazteko eta, era horretara, herri bakoitzean kalean nor eta nola aritzen den jakiteko.

Lurralde bakoitzaren dinamika ezberdina da, eta horrek euskararen logikan eta lurralde antolaketarenean eragiten du.

3. irudia: Lurralde mailako analisiko adibideak



diagonalean ere), gutxienez 1.500 biztanle bizi dira kilometro karratuko, eta 50.000 biztanle baino gehiago denera. • Bitarteko hirigunea: Tarteko dentsitate eremuak. Ziega jarraituan, gutxienez 300 biztanle bizi dira kilometro karratuko, eta 5.000 biztanle baino gehiago denera. • Landa-eremua: biztanle gutxiko eremuak. (Eurostat, 2011, 2020ko Euskaraldiaren ikerketako txostenetik hartua).

Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoak

Horregatik, hiri/herri bakoitzaren lurralde mailako gerturatze bat egin da, ondoko helburuak dituen: bertan gertatzen diren dinamika soziolinguistikoen irakurketa zabalago bat egitea eta aztertutako hiri/herria lurraldean kokatzea. Irakurketa horiek, batetik, hiri bakoitzaren garapenak lurralde mailan izan duten rola ulertzeko balio izan dute eta, bestetik, inguruko herriek eta hiriek aztergai den herriarengan duten eragina baloratzeko (eta alderantziz).


Hiri sistemek erakusten dute sistema hori osatzen duten hiri guztietatik bat edo batzuk ingurukoetatik bereizi egiten direla arlo ezberdinetan dituzten ezaugarri erakargarrietatik eta denboran zehar jasaten dituzten eraldaketengatik, bereziki populazio igoerengatik. Fenomeno horrek hiriaren eraldatzea dakar etxebizitza gehiagoren eraikitzearekin batera, eta, ondorioz, auzo berrien sorrerarekin, jarduera ekonomiko berriekin, aisialdi behar berriekin eta ekipamendu behar berriekin batera. Beraz, lurralde mailako aldaketa horiek guztiek hiri jakin batzuetan eragin nabarmena dute eta, horiek, aldi berean, hiriko barne dinamiketan (hau da, auzoetan) efektu bat sortzen dute barne fluxuei eta burutzen diren jardueri dagokienez. Fluxuetako, jardueretako eta auzoetako dinamiken aldaketen ulertzeak euskararen kale-erabilerak izan duen bilakaeran eragiten duten faktoreak identifikatzen lagun dezake. Aurreko guztiagatik aukeratu dira hiri-sistemako buru diren hainbat herri.

Herriek lurraldearekin eta ondoko herriekin duten erlazioa aztertzeo hainbat pausu jarraitu dira⁵:

- Lehenik, aztertutako herrien bilakaera sozio-urbanistikoa egin da, sorreratik izan dituzten aldaketa nabarienei erreparatuz eta aldaketa horiek hiri morfologian eta, ondorioz, gizartean, izan duten eragina aztertuz.
- Bigarrenik, aukeratutako herriek inguruko herriekin duen erlazioa ulertzeko, herri horiek lurraldean kokatu da dituzten ezaugarri fisikoak aztertzeo eta komunikatzen dituen azpiegitura sistemak azaltzeo. Horretarako, inguruko herriak identifikatu dira ezaugarri horiek kontuan harturik.
- Jarraian, herrien populazio bilakaera aztertu da 1842, 1950 eta 2021eko datuetan oinarrituz.
- Azkenik, herri horien euskararen kale-erabileraren datuen azterketa egin da, aztertutako herriko euskararen erabileran fluxu horiek nola eragin dezaketen ulertzeko.

4. irudia: Zaru eta inguruaren biztanleriaren bilakaera

⁵ Prozedura hau adibide baten bidez hobeto ulertzeko, ikus 01 eranskina.




Iturria: EHUKO BOTOI ikerketa-taldeak sortutako grafikoa

Ondoren, EAEko udalerrien sarearen biztanleen mugimenduei erreparatu zaie herri horien arteko fluxuak zeintzuk diren ulertzeko, hau da, herri horretako pertsonak nora doazen eta nondik datozen jakiteko. Horretarako, beren barneko etxebizitza aldaketak dakartzan fluxuak islatzen dituen grafikoa hartu da oinarri. Eremu funtzionala osatzen duten herrien eta elkar-fluxu gehien duten herrien artean ezberdintasunak topatu dira eta, beraz, horren inguruko hausnarketa egitea ezinbestekoa da hiri-sistema osatzen duten herriak identifikatu ahal izateko.

5. irudia: EAE ko udalerrien sarea, beren barneko emigratio/immigratio fluxuen arabera





Iturria: Euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak. Soziolinguistika klusterra.

Esan bezala, azken helburua lurralde osoko errealitate soziolinguistikoaren eta urbanistikoaren arteko harremanak eta elkarreraginak ulertzea izanik, lurraldearen egituraketan funtsezko izaera duten hiri ertainen [20.000 biztanle ingurukoak] azterketa egitea erabaki da. Soziolinguistika Klusterrak egiten dituen kale neurketen datuen sendotasuna eta lurraldeko ikuspegia aintzat hartuta, ikerketa lan honetarako lehen aipaturiko bost udalerrri aztertu dira: hiru Gipuzkoan (Hernani, Tolosa eta Zarautz) eta bi Bizkaian (Gernika-Lumo eta Zornotza).

Bost udalerrriak tamaina ertainekoak dira, alegia, 15.000-25.000 biztanle dituzte, eta euskaldunen kopurua % 55-75 bitartekoa da. Beraz, hizkuntza-gaitasunaren arabera, VII. Mapa Soziolinguistikokoak **3. gune soziolinguistikoa**n kokatzen ditu bost udalerrriak (% 50-80 udalgaitasuna) (Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila 2025, 43)⁶. Mapa horrek ondoren zehazten den informazioa eskaintzen du 3. gune hori ezaugarritzeko:

Hirugarren gune soziolinguistikoko udalerrietan 506.941 pertsona bizi dira, EAEko biztanleria osoaren laurdena (% 24). Horietatik, 322.592 dira euskaldunak, hau da, euskaldun guztien herena baino gehiago (% 35,9). Bizkaiko eta Gipuzkoako 85 udalerrri

6 Herriko ezagutza-datuak ez ezik, lehen hizkuntzaren, etxeko erabileraren eta kale-erabileraren emaitza enpirikoetan oinarrituz, "Euskarak gaztelaniaz bezainbesteko presentzia (EG)" duen udalerrien multzoan kokatzen da (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 24). Multzo soziolinguistikoko hori 2016ko Inkesta Soziolinguistikoko eta 2017-2018 urte bitartean egindako udal neurketen emaitzak aintzat hartuz osatu zen, "Euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak. Udalerrri mailako analisia. Laburpena eta ondorioak" izeneko txostenean (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019).

daude gune honetan. 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak dira, Durango, Zarautz, Arrasate eta Eibar izan ezik. Industria indartsua duten udalerriak dira horietariko asko, tamaina ertainekoak, eta komunikazio-ardatz nagusietan kokatuak.

(Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila 2025).

Hortaz, nabarmendu behar da ikerketa-proiektu hau bost udalerrien testuinguruan garatu arren, baliagarria izan daitekeela antzeko errealitate soziodemografikoa eta soziolinguistikoa duten udalerrien errealitatea ezagutzeko.

3.3 HERRI MAILAKO ANALISIA

Herri mailako analisian oinarri parte hartzailea izan duen ikerketa bat egin da. Horretarako, lehen lana datu biltzea sakona egitea izan da. Hastapen horretan, funtsezkoa izan da Udaleko sail ezberdinen laguntza. Jasotako datuekin, herri mailako askotariko mapak gauzatu dira eta, funtsean, **ikerketa parte hartzailetik** eta **ikerketa teknikitik eratorritako** bi datu mota jaso dira. Ondorengo lerroetan bi atal horiek nola gauzatu diren eta horretarako erabili diren metodologia eta teknikak zehaztuko dira.


3.3.1 Ikerketa parte-hartzailea

Lehenik, ikerketa parte hartzailearen sarrera modura, kokapen orokorra eskainiko da hemen herri bateko adibideak erabiliz. Ondoren, pausuz pausu aplikatu den metodologia zehatza azalduko da.

3.3.1.3 Sarrera modura

Ikerketa honetan baliatu den ikerketa unitatea auzoa denez, auzoen definizioa herritarren parte-hartzearen bidez egin da. Horretarako, zenbait herritarrekin (genero, adin eta profil ezberdinetakoekin) lan-saioak egin dira. Lan-saio horietan, auzoen definizioaz gain, herritarren egunerokotasuneko ohituren berri ematen duten informazioa eskatu zaie: zeintzuk diren euren ohiturazko oinezko ibilbideak, non egiten dituzten zenbait ekintza (lana, aisialdi, erosketak...) eta abar. Horrela, aurrez egindako mapak osatu eta kontrastatu dira, herriaren funtzionamenduaren irakurketa konplexuagoa eta osoa eskuratuz.

6. irudia: Zarautz: herritarrek emandako datuak, mapetan



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoak

7. irudia: Zarautz: 2020 urteko datuak, mapetan



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoak

8. irudia: Zarautz: herritarrek definitutako auzoak eta ikerketarako auzo definitiboak



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoak

3.3.1.2 Herriaren izaera herritarren eskutik, metodologia zehatza

Herrietako errealitatea biztanleen eskutik ezagutu ahal izateko, bertan aktiboki parte hartzen duten pertsonen profil ezberdinak bilatu dira beraiekin bildu eta ikerketarako lagungarri izan daitekeen informazioa lortu eta partekatzeko helburuarekin. Horretarako, udal langileekin harremanetan jarri eta euskara teknikarien harreman-sarea baliatuta, herriko hainbat erakundetan parte hartzen duten adin ezberdinetako pertsonen zerrenda bat gauzatu da.

9. irudia: Saioetako Argazkiak Hernanin, Tolosan eta Gernika-Lumon



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldearen irudiak

Saioen hasieretan Soziolinguistika Klusterreko eta Botoi Ikerketa Taldeko (UPV/EHU) kideek ikerketaren aurkezpen labur bat burutu dute ikerketaren nondik norakoak eta saioaren helburua zein diren azaltzeko. Hasierako momentu batzuetan, herritarrak kezkatuta egon dira hirigintzaren ezagutzarekiko duten ezjakintasuna dela medio. Kezka hori arintzeko, azaldu zaie saioaren helburua haien eguneroko bizimodua eta herriaren aldaketak horretan izan duen eragina ulertzea dela.

Saioak lau ataletan banatu dira, atal batzuk banaka egitekoak eta beste batzuk talde txikitan edo guztien artean egin dira:

1. ATALA: beroketa ariketa

Atal horren helburua berotze-lan erreflexibo bat burutzea izan da, non herritar bakoitzak bere profila adierazteaz gain (datu estatistikoak: adina, sexua, hizkuntzaren ezagutza, zaintza-lanak, etab.), egunerokotasunean zein jarduera burutzen dituen adierazi behar izan dute. Jarduera horiek ordularian kokatu behar izan dituzte, asteguna edo asteburua den zehaztuz, eta zein ordutan burutzen dituzten adieraziz. Ekintza horien zerrendatzeak lotura zuzena du hurrengo atalarekin, izan ere, burutzen dituzten jarduerak non eta nola burutzen dituzten ulertzea da saio horietako helburuetako bat. 10. irudiko fitxa eman zaie betetzeko.

2. ATALA: non burutzen ditut nire jarduerak-ibilbideak

Bigarren atalak deskribatutako jarduera horiek espazioan kokatzea du helburua, eta horretarako, herriko plano bat banatu zaie, marrazki bidez edo gometsekin adierazteko beraien bizilekuak eta egunerokotasunean burutzen dituzten ibilbideak (ikus 10. irudia).

3. ATALA: -zeintzuk dira zure herriko auzoak / zein espaziotan ibiltzen dira herritarrak eta nola

Hirugarren atalean, taldeka identifikatu behar izan dituzte espazio ezberdinak, aurreko atalean erabilitako plano berdinean. Horretarako, aurrez, identifikatzea eskatu zaien espazio eta ibilbide mota ezberdinetako definizioak garatu dituzte eta horren akta jaso da. Ondorengo galderari erantzutea eskatu zaie:

- Zeintzuk dira auzoak? Borobildu eta izendatu.
- Zein espaziotan egoten dira herritarrak? Herriko plazak, auzoko plazak eta komunitate-mailako plazak identifikatu eta kolore ezberdinetako gometsekin adierazi.
- Zeintzuk dira oinezkoen ibilbideak? Lehen eta bigarren mailako ibilbideak identifikatu eta kolore ezberdinetako errotulagailuekin irudikatu.

Erabilitako grafia zein izan behar duen aurrez azaldu zaie, 11. irudian azaldu legez.

4. ATALA: guztion arteko erreflexioa-ondorioak

Azken atalak hitzordura hurbildutako herritar guztiak mahaiaren inguruan bildu eta ordura arte hitz egindakoa kontrastatzea du helburu eta, era horretara, ondorio amankomun batzuk lortzea.

Mahai-inguru horretan euskararen erabileraren aldagaia sartu eta hizkuntzaren presentziaren gaineko egungo diagnostiko bat egin da. Helburu nagusia euskara zenbat eta non hitz egiten den identifikatzea eta denboran zehar izan duen aldaketaren zergatia ulertzea da. Horrela, espazioa, hirigintza, herritarrak, jarduerak, ohiturak eta euskararen erabileraren arteko harremanak bilatu dira, ikerketan erabilitako hainbat datuekin kontrastatu ahal izateko.

10. irudia: Banatutako fitxaren eredia eta herriko ortoargazkia (Hernani)

HIRIGINTZA ETA EUSKARA IKERKETA

Hirigintzaren eragina euskararen kale erabilieran
UPV/EHUko Botoi ikerketa taldeak Soziolinguistika Klusterra-rekin elkarlanean egiten ari garenean ikerketa bat da.
Jasotako iritziak pribatuak izango dira.


Datuak:

- Adina _____
- Sexua _____
- Hizuntza-gaitasuna¹ _____
- Lehen hizuntza² _____
- Etxeko hizuntza³ _____
- Zen azuzan/berrian jarri zara _____
- Zen azuzan/berrian lan egiten duzu _____
- Zantzen duzu nerriak _____
- Elkarteren batekioa zara _____

Baroketa iritziak:

Zer egiten duzue egunero sahar? Erabili behakio eriojiak atseguneko eta atseburuko ohiko eriojiak azaltzeko:

aste berrian aste berrian



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak egina.

11. irudia: Espazio eta ibilbide ezberdinak irudikatzen azalpenaren irudia eta adibideak Hernaniko saioan

AUZOAK

Zein da nire auzoa?
Eta zein dira beste auzoak?



mugak eta izenak

PLAZAK/ elkarguneak

- Herri mailakoak (blue dot)
- Auzo mailakoak (green dot)
- Komunitate mailakoak (yellow dot)

IBILBIDEAK

- Derrigorrezkoak (blue line)
- Aisialdiakoak (green line)



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak egina.

3.3.2 Ikerketa parte-hartzaitetik ikerketa teknikora

Ikerketa honen helburu orokorrak herri bakoitzaren eremuz gaidikoak direnez, herritarrengandik jasotako informazioa ikerketa teknikoan baliatu ahal izateko aurrez finkatutako irizpide batzuk landu eta bateratu beharra egon da.

Alde batetik, ikerketarako oinarri izan diren **auzoen** mugak finkatzeko, hasteko, herritar guztien artean jasotako emaitzak aztertu eta lehen bateratze bat egin da. Ondoren, azken bateratze teknikoak egin da zenbait gai aintzat hartuta; nagusiki, hiri-ehundura ezberdinen arteko mugak definitu dira elkarren ondoan dauden auzoak marraztuz. Bestetik, datuen fidagarritasuna bermatzeko laginak gutxieneko batzuei erantzun behar dienez, kasu batzuetan herritarrek finkatutako auzoak elkartu egin dira, ikerketarako eremu bakar osatuz. Horretarako, kontuan izaten da elkartuko diren guneek unitate bakar bezala funtzionatzea (ekipamenduak, zerbitzuak eta bestelakoak uztartuz), kokapen fisikoarekiko antzekotasunak izatea (ibilbide nagusi bera

izatea, mendi-magal berean kokatuta egotea...) edo garai berean eraikitako ehundurak izatea, adibidez. Era berean, herritarrek definitutako auzo bat ikerketan aintzat hartzeko, gutxieneko baldintza batzuk bete beharko ditu, adibidez, euskararen kale-erabilera neurketan baliatutako ibilbidea bertatik pasatzea eta gutxienez 250 biztanle inguru izatea.

Gernikaren kasuan, honakoak dira lanketa tekniko horren ondoren emaitza eta ondorengo ikerketa teknikorako oinarri gisa hartu diren kartografiak:

12. irudia: Gernika-Lumoko auzoak: herritarrek finkatutakoak, 1. bateratzea eta bateratze teknikoak.



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak egina.

Bestalde, herritarrek finkatutako **oinezkoen ibilbide eta elkargune nagusiekin** ere antzeko prozesua egin da, datu horiek ere objektibatu eta ikerketarako baliagarri izateko. **Ibilbideak** honako hierarkiaren arabera sailkatzen dira:

- Lehen mailakoak: behin baino gehiago errepikatzen diren oinezkoen lerroak.
- Bigarren mailakoak: oinezkoen lerro bakarra marraztuta.
- Aisialdikoak: aisialdirako marraztutako lerro guztiak.

Era berean, herritarrek ez badute oinezko fluxurik finkatu auzo batentzako, ohiko hiri-analisi teknikak baliatuz finkatu da fluxua eta bigarren mailako bezala sailkatu da.


Elkarguneen kasuan ere, informazioa objektibatzeko, bi prozesu nagusi garatu dira. Batetik, elkargune bakoitzaren mugaketa egingo duen poligonoen marrazketa egin da herritarren irudikapenetik abiatu eta behaketa teknikoetan aztertutakoa alderatuz. Bestetik, honako hierarkiaren arabera sailkatu dira elkarguneak:

- Herri mailako elkarguneak: herriko jendeak erabiltzen dituenak.
- Auzo mailako elkarguneak: auzoko jendeak erabiltzen dituenak.
- Komunitate mailako elkarguneak: etxe-ataritik gertu dauden "bi banku" edo antzekoak, elkargune txikiak.

Era berean, berdegune edo parke izaera duten elkarguneak poligono kapa berri batean sartu dira, honela sailkatuz:

- Herri mailako parkeak (berdeguneak): herriko jendeak erabiltzen dituenak.
- Auzo mailako parkeak: auzoko jendeak erabiltzen dituenak.

13. irudia: Gernika-Lumoko elkarguneak eta ibilbideak: herritarrek finkatutakoak eta bateratze teknikoak.



Iturria: EHuko BOTOI ikerketa-taldeak egina.

3.3.3 Ikerketa tekniko: adierazleak eta aldagaiak

Herri mailako analisi xehatua egiteko, auzo ezberdinetako ezaugarri zein funtzionamenduan sakondu da. Horregatik, modu soil batean ulertzeko, mota honetako galderei erantzun zaie

Orokorrean: *Non daude herritarrak? Nondik mugitzen dira?*

Auzoarekiko: *Nor bizi da bertan? Eta egunerokoan nor/zer/gatik dator/doa auzora?*

Ikerketarako hartu diren espazio sozio-geografikoetan, auzoetan, adierazle ezberdinak sortu dira. Adierazle horiek hiri zainzailearen perspektibaren baitan sortu dira nagusiki. Honela, adierazle horietako bakoitzak auzoak dituen ezaugarri zehatzak neurtzen ditu. Oinarrian, biztanleen arteko harreman eta elkarrizketak gerta daitezten hiri antolaketa eta diseinuak sor ditzakeen baldintzak eta eraginak begiratzea izan da helburua. Adierazle horien lanketan aurrez eginiko lanak izan dira erreferente, tartean, Jane Jacobs-en lanetik eratorritako geografiaren arlotik Bartzelonan eginiko ikerketa, zeinek hiriko bizitasunaren baldintzak eta horiek eguneroko mugikortasunarekin duten lotura aztertzen duen (Gómez-Varo, 2022). Lurralde berean, eguneroko bizitzarako auzoak aztertzeke Punt6 taldeak Adriana Ciocoletto arkitektoaren tesian oinarritutako argitalpenean neurtzen diren aspektu ugari ere erreparatu zaie (Ciocoletto, 2014) eta talde bereko Blanca Valdivia soziologoaren tesian hiri zainzailearen kontzeptutik auzoak aztertzeke erabiltzen dituen ere oinarri izan dira (Valdivia, 2021). Ildo berean, eta espazio publikoa elkarbizitzarako toki izateko beharrezkoak dituen baldintzak aztertu dituen “Elkarbizitzarako espazioak Trantsizioan” tesitik ere ekarpenak egin dira (Telleria, 2024). (Aldagai soziolinguistikoa aurrerago aipatuko dira).

Hori guztia aintzat hartuta, aldagai ezberdinak jasotzen dituzten sei adierazle osatu dira ikerketaren kokagune izan diren bost herrietako auzoen ezaugarriak kuantifikatzeko. Batetik, aldagai sozio-urbanistikoak barneratzen dituzten bost adierazle finkatu dira. Bestetik, aldagai

soziolinguistikoak bateratzen dituen adierazlea definitu da. Adierazleetako bakoitzak galdera zehatz bati erantzuten dio, aintzat hartutako unitatea auzoa izanik betiere:

1- Zein da bertako biztanleek **AUZOAN EGUNEROKO BIZITZA EGITEKO AUKERA?** (AEBEA)

Adierazle honetan, auzoak eguneroko bizitzarako beharrezkoak diren egitekoak errazten dituen azpiegitura eta zerbitzuak eskaintzen dituen neurtzen da. Oinarrizko ekipamenduen (osasun, lehen hezkuntza...) gertutasuna eta oinarrizko zerbitzuen (komertzioa, ostalaritza...) dentsitatea, lanpostu kopurua eta espazio publikoen estaldura neurtu dira.

2- Zenbatekoa da pertsonak **AUZOTIK PASATZEKO AUKERA?** (APA)

Adierazle honetan, auzotarrak ez diren beste herritar batzuk edo kanpoko pertsonak auzotatik pasatzea eragin dezaketen aldagaiak neurtzen dira. Lehen mailako ekipamenduez gain, beste ekipamenduek izan dezaketen erakargarritasuna begiratu da. Era berean, mugikortasun fluxu eta zerbitzuak ere neurtu dira.

3- Zein da **PERTSONEKIN AUZOAN TOPATZEKO AUKERA?** (PATA)

Auzoko kale eta erabilera publikoko beste kanpo-espazioetan bertakoak eta kanpokoak dabiltzanean topaketak geratuko dira eta horri begiratzeko sortu da adierazle hau. Haur jokoak jarri dira zentroan, zaintzaren zutoinetako bat delako. Zaintza lanak egitean beste zenbait gauza egiteko aukera ere badagoen begiratu da, egite anitz horretan besteekin topatzeko aukera handiagoa izan daitekeelakoan. Horretarako, espazio horiek eguneroko komertzioarekin eta tabernetako terrazekin duten gertutasuna begiratu da.

4- Zein da **AUZOAN EGOTEKO AUKERA?** (AEA)


Kalean pertsonak topatzean elkarrizketa ezinbesteko tresna da, baina elkarrizketa horiek luzatzeko eta hartu-emanak sakontzeko, espazioak bertan egoteko nolako aukerak eskaintzen dituen ezagutzea komeni da. Horretarako, auzo zaintzaile batean ezinbestekoa den espazio publikoaren kalitateari erreparatu zaio eta espazio publiko kopuruarekiko banku kopurua bezalako aldagaiez osatu da adierazle hau. Era berean, auzoaren oinezkotasun maila ere neurtu da.

5- Zein da **AUZOAREN IZAERA?** (AI) begiratu beharko dugu.

Azkenik, auzo izaerari erreparatu zaio, ezberdintasun nabariak egongo baitira auzo bakoitzak dituen biztanleria datu eta etxebizitza motei dagokienez. Biztanleria kopurua aztertu da, emakume, haur eta ez-aktibo direnen proportzioak begiratuta. Etxebizitzarekiko, profil sozioekonomikoetara hurbildu nahian, alokairua edo etxebizitza-edukitze erregimena aztertu dira.

Adierazle horiek guztiak, Soziolinguistika Klusterrak eskainitako euskararen kale-erabilera neurketekin, hau da, **AUZOKO EUSKARAREN KALE-ERABILERA**ekin (AEKE) gurutzatu dira. Gurutzaketa honetatik ikusi ahal izango da non, noiz eta nola eragiten duen aspektu bakoitzak euskararen kale-erabileran.⁷

14. irudia: Ikerketako adierazlearen eskema kontzeptuala



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak egina.

Esan bezala, adierazle bakoitza aldagai ezberdinez osatzen da eta horiek azken bi hamarkadetan eman dituzten neurketak biltzen dituzte, ahal izan denean behintzat. Modu horretan, aldagai horiek egoera finko bateko espazioaren argazkia eskaini dute, baina baita hamarkada horien artean eman diren aldaketena ere.

Sei adierazle horien osaketa aurreko ataletan azaldutako lanketa teorikotik abiatu da. Ondorioz, zaintza lanak, hau da, lan produktiboa eta eguneroko beharrak, ikerketaren erdigunean jarri dira. Teorikoki diseinatutako aldagaiok eskura dauden datu estatistiko eta espazialekin kontrastatu dira bi herri pilotuen azterketan. Kasu horietan, datuen eskuragarritasuna aztertuta, aldagaiak onetsi eta metodologiaren barnean txertatu dira. Ezinezkoa izan beste aldagai batzuen inguruko informazioa eskuratzea eta, beraz, ikerketatik kanpo gelditu dira. Hemen aurkezten diren aldagaiak ez dira adierazle bakoitzarentzat sortutako guztiak, baizik eta herri pilotuen azterketa ondoren onetsitakoak. Ikerketa honetan sortu diren adierazleak begirada feminista batetik sortu dira eta ikerketaren zati kuantitaboa beharrezko genero begirada txertatu nahi izan da (Serrano, 2019), nahiz eta horrek bere mugak dituen egun.

⁷ Honi buruzko azalpen gehiago 3.4.3 atalean.


Aldagai horiek neurtzeko mota ezberdineko datuak hartu dira kontuan. Batetik, datu estatistikoak eta, bestetik, datu espazialak. Azken horiek lortzeko udal informazioa baliatu bada ere, herrietan eginiko azterketa zehatzak eta behaketak ere funtsezkoak izan dira.

Adierazle horiek orokorrean bost unitate edota neurri motekin azter daitezke:


1. Zenbait aldagai **dentsitate** mailaz neurtu dira: zenbat elementu dagoen biztanle kopuru batekiko edo neurri unitate batekiko begiratu da. Adibidez, lanpostu kopurua 100 biztanleko.
2. Elementu batek duen **estaldura** maila begiratu da. Horretarako, "buffer" izeneko linea imajinariok sortu dira, elementu batetik distantzia batean dagoen azalera zirkularra jasotzen dutenak. Puntu batetik 200 metroko hurbiltasunean dagoen azalerari, 200 metroko buffer bat egin dela esaten zaio. Bufferra egin ondoren auzo bakoitzeko azalaren zati bat estaliko du eta auzoko azalera osoarekin erlazionatuz gero, auzo bateko estaldura maila lortzen da. Hau da, begiratu da ea zenbatekoa den estaldura auzoko azalera osoarekiko (estaldura hori % Otik % 100ra doa). Adibidez, lehen mailako denden estaldura auzo bakoitzeko.
3. Elementu batzuek duten **estaldura gainjarri** mailari erreparatu zaio. Horretarako, elementu askoren estaldura gainjarriak kontuan izan dira. Estaldura mota horrek auzo baten **erakargarritasuna** adierazten du. Hau da, begiratu da ea zenbatekoa den estaldura metatua auzoko azalera osoarekiko (estaldura hori % Otik % infinitura doa). Hau, batez ere, APA adierazlean erabili da. Adibidez, denden erakargarritasuna auzo bakoitzeko.
4. **Elkar eragin eremuak**. Eremu horiek bi "buffer" edo estaldura azalera elkartzean sortzen diren eremuak dira. Begiratu da ea zenbatekoa den auzo estaldura konbinaketa gune horiekiko. Horiek, batez ere PATA adierazlean erabili dira. Adibidez, haur jokoak eta terrazen estaldura konbinaketak ikusi dira.
5. **Proporzioa biztanle/etxebizitza kopuruarekiko**. Zenbat dauden bai herri/auzo osoko biztanleekiko eta herri/auzo etxebizitza guztiekiko. Adibidez, zenbat etxebizitza daude jabegoan.

15. irudia: Aldagai neurrien adibideak


AEBEA_LANKOP_ENPLEG (dentsitate neurria)




AI_GIZ-EZAK (dentsitate neurria)




AEBEA_EK_OSA (estaldura: gertutasuna)




AEBEA_ZERKOK_1DEND (estaldura: gertutasuna)




APA_EK_ADMIN (estaldura: erakargarritasuna)




APA_EK_KIR (estaldura: erakargarritasuna)



PATA_EP_HAURDEN (estaldura konbinaketa)



AI_ETXE_JAB% (proportzioa)



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak egina.

Segidan aurkezten da sei adierazleak osatzen dituzten aldagaien taula. Bertan adierazten da aldagai bakoitza izendatzeko baliatu den kodea:⁸

16. taula: Aldagai neurrien adibideak

AI AUZO IZAERA	BIZTANLERIA	BIZTANLE KOPURUA	AI_BIZ_KOP
		EMAKUME PROPORZIOA	AI_BIZ_EMAK
		<14 HAUR PROPORZIOA	AI_BIZ_<14
	GIZARTEA	EZ AKTIBOAK PROPORZIOA	AI_GIZ-EZAK
	DENTSITATEA	DENTSITATEA	AI_DENTS
	ETXEBIZITZA	ETXEBIZITZA DENTSITATEA (KOPURUA/AZALERA)	AI_ETX_DENTS
		ETXEBIZITZA NAGUSI KOPURUA	AI_ETX_NAG KOP
		ETXEBIZITZA NAGUSIETAN PROPORZIOA	AI_ETX_NAG %
		ETXEBIZITZA EDUKITZE ERREJIMENA PROPORZIOA (JABETZA/ETXEBIZITZA)	AI_ETX_JAB%
		ETXEBIZITZA EDUKITZE ERREJIMENA PROPORZIOA (ALOKAIRUA/ ETXEBIZITZA)	AI_ETX_ALOK%
AEBEA AUZOAN EGUNEROKO BIZITZA EGITEKO AUKERA	ZERBITZU KOPURUA	1. MAILAKO OSTALARITZA 100 BIZTANLEKO	AEBEA_ZERKOP_1OST
		OSTALARITZA GUZTIAK 100 BIZTANLEKO	AEBEA_ZERKOP_OST
		DENDA GUZTIAK 100 BIZTANLEKO	AEBEA_ZERKOP_DEND
	LANPOSTU KOPURUA	ENPLEGU KOPURUA 100 BIZTANLEKO	AEBEA_LANKOP_ENPLEG
		ESTABLEZIMENDU KOPURUA 100 BIZTANLEKO	AEBEA_LANKOP_ESTAB
	ZERBITZUEN KOKAPENA	1. MAILAKO DENDEN ESTALDURA	AEBEA_ZERKOK_1DEND
		LEHEN MAILAKO OSTALARITZA ESTALDURA	AEBEA_ZERKOK_OST
	EKIPAMENDUEN GERTUTASUNA	OSASUN EKIPAMENDUEN GERTUTASUNA	AEBEA_EK_OSA
		ADINDUENTZAKO ZENTROEN EKIPAMENDUEN GERTUTASUNA	AEBEA_EK_ADIN
		1. HEZKUNTZAKO EKIPAMENDUEN GERTUTASUNA	AEBEA_EK_1HEZK
		ADMINISTRAZIO EKIPAMENDUEN GERTUTASUNA	AEBEA_EK_ADMIN
	ESPazio PUBLIKOKO ELEMENTUEN ESTALDURA	HAUR JOLASEN ESTALDURA	AEBEA_EP_HAUR
		HERRI MAILAKO ESPAZIOEN ESTALDURA	AEBEA_EP_HERRI
		AUZO MAILAKO ESPAZIOEN ESTALDURA	AEBEA_EP_AUZO
		KOMUNITATE MAILAKO ESPAZIOEN ESTALDURA	AEBEA_EP_KOM
TERRAZEN ESTALDURA		AEBEA_EP_TER	

⁸ 02 eranskinean jaso dira aldagai bakoitza nola neurtu den eta zein iturritatik jaso diren datuak.

APA AUZOTIK PASATZEKO AUKERA	FLUXUAK	OINEZKOEN IBILBIDEEN ESTALDURA	APA_FLUX_OIN
	MUGIKORTASUNA ERAKARGARRITASUN A	OINEZKOEN IBILBIDEAK IBILBIDEKIKO	APA_MUG_IBIL
		BIDEGORRI ESTALDURA	APA_MUG_BID
		TREN GELTOKIEN ESTALDURA 300	APA_MUG_GEL_TREN300
		TREN GELTOKIEN ESTALDURA 600	APA_MUG_GEL_TREN600
		BUS GELTOKIEN ESTALDURA	APA_MUG_GEL_BUS
	ZERBITZUEN ERAKARGARRITASUN A	DENDEN ESTALDURA ERAKARGARRITASUNA	APA_ZER_DEN
		OSTALARITZA ESTALDURA ERAKARGARRITASUNA	APA_ZER_OST
	EKIPAMENDUEN ERAKARGARRITASUN A	OSASUN EKIPAMENDUEN ESTALDURA ERAKARGARRITASUNA	APA_EK_OSA
		ADINEKOENTZAKO ZENTRUEN ESTALDURA ERAKARGARRITASUNA	APA_EK_ADIN
		HEZKUNTZA EKIPAMENDUEN ESTALDURA ERAKARGARRITASUNA	APA_EK_HEZK
		ADMINISTRAZIO ZENTROEN ESTALDURA ERAKARGARRITASUNA	APA_EK_ADMIN
		KULTUR ZENTROEN ESTALDURA ERAKARGARRITASUNA	APA_EK_KULT
		KIROLDEGIETAKO ESTALDURA ERAKARGARRITASUNA	APA_EK_KIR
PATA PERTSONEKIN AUZOAN TOPATZEKO AUKERA	ESPazio PUBliKOAN HARTU EMANAK	HAUR JOLAS ETA TERRAZAK	PATA_EP_HAURTER
		TABERNA KAFETEGI-HAUR JOLASAK BUFERRA	PATA_EP_HAUROST
		HAUR JOLASAK-EGUNEROKO KOMERTZIOAK BUFERRA	PATA_EP_HAURDEN
AEA AUZOAN EGOTEKO AUKERA	ESPazio PUBliKO KANTITATEA	ESPazio PUBliKO AZALERA 100 BIZTANLEKIKO	AEA_EPKAN_EPAZ
		BERDEGUNEEN AZALERA 100 BIZTANLEKIKO	AEA_EPKAN_BERD
	MUGIKORTASUNA	OINEZKOEN KALEA ml/ml GUZTIEKIKO	AEA_MUG_OIN
		AUTOENTZAKO ERRAIAK ml/ml GUZTIEKIKO	AEA_MUG_AUTO
	ESPazio PUBliKO KALITATEA	BANKU KOPURUA 100 BIZTANLEKO	AEA_APKAL_BAN100
		BANKO KOPURUA AUZO AZALERARKIKO	AEA_APKAL_BANAZ
		BANKU KOPURUA AUZOKO ELKARGUNE ETA FLUXUEKIKO	AEA_EPKAL_ELKARFLUX
AEKE AUZOKO EUSKARAREN KALE- ERABILERA	AEKE	ELKARRIZKETA EUSKARAZ / ELKARRIZKETEKIKO PUNTUEN NEURKETAK	AEKE_PUNT
	GET INDIZEA: LEHEN HEZKUNTZA (%36) GAITASUNA (%31) ETXE ERABILERA (%33)	EUSKALDUNTASUN PORTZENTAIA	AEKE_GET 0
		AEKE/(GET X 100)	AEKE_GET 1
	FIDAGARRITASUNA	1 (ELKARRIZKETAK > 90, AKATSAK <7) 2 (ELKARRIZKETAK > 90, AKATSAK >7) 3 (ELKARRIZKETAK <90)	AEKE_FID
	ADINAREN ARABERA	2-14 URTE BITARTEAN	AEKE_ADIN1
15-24 URTE BITARTEAN		AEKE_ADIN2	

		25-44 URTE BITARTEAN	AEKE_ADIN3
		45-64 URTE BITARTEAN	AEKE_ADIN4
		>65 URTE	AEKE_ADIN5

Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak egina.

3.4 AUZO MAILAKO ANALISI ESTADISTIKOA

Aurrez azaldu den bezala, ikerketaren ondorioak atera ahal izateko, aztertutako bost herrietako berrogeita hamabi auzoetako datuak gurutzatu dira analisi estatistikoa burutzeko. Analisi hori garatzeko baliatutako prozedura hiru fase nagusitan egituratu da, hurrengo irudian ikus daitezkeen bezala.

Lehen fasean, hirigintza hurbilketa burutu da bi pausotan. Lehenik, herri-mailako analisisian baliatutako aldagai sozio-urbanistikoaren arteko korrelazio estatistikoa aztertu da. Ondoren, klusterizazio edo taldekatze bat egitea erabaki da, aldagai sozio-urbanistiko horietarako auzo bakoitzak dituen balioetatik abiatuta, herri eta auzoetako hirigintza ezaugarriak kontuan harturik. Horrela, lehen fase horretan, datu estatistikoetan oinarrituta, herri-dinamikak ulertzeko oinarriak finkatu dira.


Bigarren fasean, Soziolinguistika Klusterrak egindako neurketetatik eratorritako datuak aurrez aipatutako aldagai sozio-urbanistikoekin gurutzatu dira eta haien arteko korrelazio estatistikoa kalkulatu da. Fase honen bidez, jatorrizko aldagaien arteko, esanguratsuenak izan daitezkeenak identifikatu dira.

Azkenik, hurbilketa soziolinguistikoa egin da. Horretarako, landutako auzoetako datu soziolinguistikoak aztertuta, dinamika orokorrak identifikatu ondoren, auzo-herri dinamikan sakondu da, hau da, auzoetako datu soziolinguistikoak herriko batzuetarekin alderatuz egin da irakurketa. Horretarako, hirigintza hurbilketa fasean identifikatutako herri-dinamiken ikuspegia txertatu da. Ariketa horretatik, auzo tipologia soziolinguistikoak eratorri dira eta azken pauso gisa adierazgarrienak izan daitezkeen auzoen gertuko azterketa garatu da.

Lagin gisa, herri mailako analisisitik eratorritako berrogeita hamabi auzoetako datuak izan ditugu. Halere, aurrez ohartarazi den bezala, kasu batzuetan euskararen kale-erabileraren datuetan akats tarteak auzo batzuetako datuen fidagarritasuna kolokan jartzen du: “3. multzokoak” bezala izendatu ditugunak.⁹ Horrela, analisi estatistikoa abiatzerako, simulazio bat egin da zalantzarako datu horiek distortsiorik eragin ote zezaketen aztertzeko eta deuseztagarria zela ondorioztatu zen. Ondorioz, aldagaien arteko korrelazioak lantzeko —1. eta 2. faseak— auzo guztietako datuak baliatu dira. Hurbilketa soziolinguistikorako, ordea, 3. multzoko auzoak kanpoan utzi dira.

⁹ Irakurketa errazteko, argibideak emango ditugu: 1. multzoa (elkarrizketa kopurua >90; akats-tartea <7); 2. multzoa (elkarrizketa kopurua >90; akats-tartea >7); 3. multzoa (elkarrizketa kopurua <90) [<https://soziolinguistika.eus/eu/lagina/>]

17. irudia: Ikerketako adierazleen eskema kontzeptuala



Iturria: EHUKO BOTOI ikerketa-taldeak egina.

3.4.1 HIRIGINTZARA HURBILKETA

Esan bezala, analisi estatistikoko lehen fasean, hirigintza hurbilketa burutu da bi pausotan. Lehenik, herri-mailako analisian baliatutako aldagai sozio-urbanistikoen arteko korrelazio estatistikoa aztertu da, hau da, aldagai horietan izandako aldaketen arteko erlazioa aztertzen duena (batak gora egitean, besteak gora egiten duen ala ez, eta zenbaterainoko indarrez). Kontuan izan behar da, halere, korrelazioak ez dakarrela kausalitaterik¹⁰, horretarako bi aldagaia logikoki edo teorikoki loturik egon behar baitira. Bigarren pausotan, klusterizazioa egin da herri-dinamikak ulertzeko oinarriak finkatzeko. Horretarako, aldagai sozio-urbanistiko horietarako auzo bakoitzak dituen balioak izan dira abiapuntua, eta herri eta auzoetako hirigintza ezaugarriak kontuan hartu dira, datu estatistikoetan oinarrituz.

3.4.1.1 Aldagai sozio-urbanistikoen arteko korrelazioa


Aldagai sozio-urbanistikoen arteko korrelazioa kalkulatzeko, Pearson koefizientea baliatu da eta 17. grafikoan ikusten den korrelazio-matrizearen bidez aztertu dira datuak. Koefiziente hori erabili da —datuen banaketa normalizat hartuz— aldagaien arteko erlazio linealak neurtzeko, korrelazio ez monotonikoak, hain zuzen ere: bi aldagairen arteko joera norabidez aldatzen da, hots, aldagai bat handitzean, bestea pixka bat handitu daiteke, baina gero txikitu, edo alderantziz, datuen banaketa normala onartuz.

¹⁰ Aldrich, John. (1995-11). «Correlations Genuine and Spurious in Pearson and Yule» *Statistical Science* 10 (4): 364–376. doi:10.1214/ss/1177009870. ISSN 0883-4237. (kontsulta data: 2025-12-12).

Spearmanen koefizientearen ordean Pearson-en korrelazio-koefizientea erabili da honako arrazoiengatik:

- Normaltasun-azterketak erakutsi du aldagaien % 60 inguruk ez duela banaketa guztiz normala. Halere, Limitearen Teorema Zentralaren arabera 52 auzoren lagin-tamaina nahikoa sendoa da normaltasun-desbideratze moderatuen aurrean Pearson koefizientea baliozkoa izan dadin.
- “Outlier”ren —datu atipikoen— ehunekoak baxua da (datu guztien % 5.95); aldagai guztiak jarraituak dira (dentsitateak, ratioak, ehunekoak) ordinalak izan beharreen; eta bi metodoen emaitzen arteko korrelazioa oso altua da ($r=0.936$), batez beste 0.077ko aldea baitago koefizienteen artean; beraz, ondorioak ia berdinak izango lirateke bi metodoetako edozeinekin.
- Pearson hobea da erregresio linealak edo eredu prediktiboak bezalako analisi subsekuentek prestatzen direnean; izan ere, zehazki erlazio linealak neurtzen ditu, eta indar estatistiko handiagoa du suposizioak arrazoiz betetzen direnean.

18. Grafikoa: aldagai sozio-urbanistiko arteko korrelazio matrizeak



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldea egina.


3.4.1.2 Hirigintza klusterrak

Aldagai sozio-urbanistikoen bidez, auzo bakoitzaren errealitate sozio-urbanistikora lehen hurbilketa bat egitea lor daiteke. Horrela, aldagai horietarako auzo bakoitzak dituen balioetatik abiatuta, kluster analisia egin da, auzoen taldekatzearen bidez herri-dinamika sozio-urbanistikoak ulertzeko oinarriak finkatzeko asmoz.

Horretarako, lehenik, kluster edo talde kopurua erabakitzeke, “Silhouette” indizea aztertu da. “Silhouette” proposatutako taldekatzearen kalitatea ebaluatzen duen metrika bat da, horretarako, barne-kohesioa (puntu bakoitzak bere taldeko beste puntu batzuekiko duen

hurbiltasuna) eta kanpo-bereizketa (puntu bakoitzak beste taldeetako puntuekiko duen distantzia) neurtuz. Indize horren arabera ikusi da zenbait kluster egiteak zein kalitate maila eman duen eta, beraz, zenbat klusterretan banatu diren aztertutako auzoak.

19. Grafikoa: Silhouette indizea kluster kopuruaren arabera



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak egina.

Indizearen balioak nahiko baxuak dira (0,19 eta 0,20 artean bi taldetan) eta adierazten dute 52 auzoek ez dutela talde desberdinik osatzen modu naturalean baina, era berean, ondo bereizita daudela. Gizarte-zientzietan eta hiri-azterketaren alorrean, Silhouettek 0.15 eta 0.25 artean dituen balioak onargarriak izan ohi dira honako kasu hauetan: datuek fenomeno jarraituak adierazten dituzte (ez diskretuak), tipologiak erabilgarritasun praktikoa du politika publikoetarako, eta aldeak estatistikoki esanguratsuak dira (frogen bidez baliozkotuak).

Horregatik, ikerketa honen garapenerako, 2 kluster egitea erabaki da honako arrazoiengatik:

- **Erabilgarritasun tipologikoa:** azterketarako sailkapen interpretagarri eta erabilgarri bat sortzeko aukera ematen du: "erdigune auzo funtzionalak" (1. taldea) eta "beste auzoak" (2. taldea).
- **Alde esanguratsuak:** bi taldeek desberdintasun esanguratsuak identifikatzen dituzte aldagai nagusietan.
- **Interpretagarritasuna:** dikotomia honek modu ulergarrian islatzen du hiriko errealitatea.

2 klusterren inguruko irakurketa eta datu gehiago emango dira datuen azterketa egitean, 4.1 atalean, zehazki.

3.4.1.3 Hirigintza klusterren karakterizazioa

Klusterrak egin ostean, horien zilegitasuna ebaluatzeko (hirigintzaren ikuspuntutik ohiko dinamikekin bat datozen aztertuz) kluster horien karakterizazioan sakondu da, kluster bakoitzaren ezaugarriak ikerketa honetako metodoan finkatutako aldagai sozio-urbanistikoaren bidez ezaugarrituz.

Horretarako, lehenik, kluster bakoitzaren kasuan ikerketa honetako adierazleekin [AEBEA, APA, AEA, AI, PATA] ikusten den harremana aztertu da eta, ondoren, kluster bakoitzean antzeman diren aldagai nagusien datuen alderaketa egin eta kluster bakoitzerako adierazle bakoitzeko aldagai esanguratsuenak identifikatu dira. Modu horretan, kluster bakoitzaren izaera sozio-urbanistiko zehatzak ezagutu dira, batak bestearekiko dituen aldeak identifikatu eta, ondorioz, herri-dinamiken irakurketa eginez. Prozedura horren bidez, klusterren balidazioa egin da talde bakoitzari esleitutako auzoak hirigintzaren ikuspegitik koherenteak direla ikusita eta hiri-garapenaren benetako eredu eta dinamikak islatzen dituztela konprobatuta.

Horretarako, honakoak dira baliatutako prozedura estatistikoak:

Adierazle sozio-urbanistikoak z estandarketa bidez aztertu

“z puntuazioak” puntuazio estandar edo puntuazio tipikoa da, hau da: “aldagai estatistiko bateko datu kuantitatibo bati aldagaiaren batez besteko aritmetikoa kenduz eta emaitza hori desbideratze estandarrekin zatituz eskuratzen den z izeneko balioa da”¹¹. Eragiketa horri z estandarketa deritzo eta datu kuantitatibo batez bestekotik zenbat desbideratze estandarretara dagoen adierazten du.


Emaitzak grafikoki errepresentatu dira adierazpen moduak konbinatuz [ikus 19. grafikoa]:

- **Zenbakiak:** kluster bakoitzeko aldagai-talde (adierazle) bakoitzaren batez besteko errealaren balioak.
- **Kolorea:** z-score (balio estandarizatuak)
 - **Berdea:** batez bestekotik gorako balioak ($z > 0$)
 - **Gorria:** batez bestekotik beherako balioak ($z < 0$)
- **Intentsitatea:** desbiazio magnitudea [Puntuazio estandarren batezbestekoa beti da 0, eta horien desbideratze estandarra 1]

z-score bidez, kluster bakoitza adierazle bakoitzeko batez besteko orokorretik zenbatean desbideratzen den ikusteko aukera ematen du eta, horrela, kluster bakoitzaren profil bereizgarria identifikatzea erraztu egin da.

¹¹ Azalpen osagarriak: <https://gizapedia.org/puntuazio-estandarrek-tipikoak-estandarketa>

20. Grafikoa: z-score adierazle eta hirigintza-kluster bakoitzeko



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak egina.


Analisi multidimentsionala armiarma diagrama bidez

Identifikatutako bi klusterren profilak bisualki konparatzeko, armiarma diagramak erabili dira. Horrela, adierazle bakoitzeko [AEBEA, APA, AEA, AI, PATA] diagrama bat eginda, zentro komun batetik abiatzen diren ardatz erradialeetan aldagai ezberdinak aldi berean irudikatzen dira.

Balioak estandarizatuta daude (normalean z-scores bihurtuta edo hein komun batera eskalatuta), eta horrek aukera ematen du grafiko berean neurketa-unitate desberdinak dituzten aldagaiak konparatzeko. Kluster bakoitza kolore batekin adierazten da (gorria 1. klusterrerako, urdina/turkesa 2. klusterrerako), eta puntuak ardatz bakoitzean konektatzean sortzen diren eremu koloreztatuek talde bakoitzaren "profil multidimentsionala" adierazten dute.

Adierazpen horri esker, azkar identifika daiteke zer dimentsiotan bereizten diren gehien klusterrak: bi koloreetako eremuak ia gainjartzen ez direnean, bereizketa handiagoa adierazten du; gainjartzeak, berriz, antzekotasuna adierazten du aldagai espezifiko horietan. Bereziki erabilgarria da kluster bakoitzaren ezaugarri bereizgarriak intuizioz komunikatzeko, zenbakizko taula ugari aztertu beharrik gabe.

21. Grafikoa: adierazle eta aldagaien baloreak kluster bakoitzeko




Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak egina.

Kaxa-diagrama bidez [boxplot]

Kaxa-diagramak (boxplot-ak) baliatu dira bi klusterren arteko aldagai espezifikoaren banaketa konparatzeko; kaxa bakoitzak kuartil-arteko heina edo sakabanatze neurri absolutua adierazten du (25 eta 75 pertzentilen artean); lerro berdeak “mediana” markatzen du (erdian geratzen den balioa); biboteek kuartil-arteko heina 1.5 aldiz zabaltzen dute, eta banakako puntuak balio atipikoak identifikatzen dituzte (outliers).

Teknika horren bidez, medianen arteko ezberdintasunak argi erakusteaz gain, klusterren arteko dispersioa eta muturreko balioen presentzia ere bistarazten ditu.

22. Grafikoa: aldagai zehatzen baloreak kluster bakoitzeko



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak egina.

3.4.2 Datu soziolinguistikoaren eta aldagai sozio-urbanistikoaren arteko korrelazioa

Analisi estatistikoa garatzeko bigarren fasean, Soziolinguistika Klusterrak egindako neurketetatik eratorritako datuak aldagai sozio-urbanistikoekin gurutzatu dira haien arteko korrelazio estatistikoa kalkulatzeko. Fase honen bidez, jatorrizko aldagaien artean, esanguratsuenak izan daitezkeenak identifikatu dira.

Korrelazio bidez aldagai esanguratsuenak identifikatzeko, lehenik Euskararen Kale-Erabilera azken neurketetako datuak [AEKE Punt] aztertu dira; ondoren, datu horiek adin-taldeetan banatuta aztertu dira [AEKE Adin1; AEKE Adin2...], eta azken hamar urteetan EKE datuan izan den bilakaera ere begiratu da [AEKE Punt ald [10 urte]]. Era berean, Euskararen Kale-erabilera eta Gaitasun Erabilera Transmisio indizearen arteko aldearekin [GET2] errepikatu da ariketa.¹² Horren guztiaren ondoren, datu soziolinguistikoekin korrelazio altueneko (positiboan zein negatiboan) aldagai sozio-urbanistikoaren zerrenda osatu da.


Korrelazioen TOP15 grafikak

Datu soziolinguistiko eta aldagai sozio-urbanistikoaren arteko korrelazioa kalkulatzeko Spearmanen rho koefizientea erabili da, koefiziente hori egokia baita aldagai ez-parametrikoen arteko erlazio monotonikoak neurtzeko, hau da, aldagai batek gora egitean besteak gora edo behera egiten duen ikusteko. Ez du kontuan hartzen korrelazio hori lineala den ala ez.

Grafikoetan, barra gorriek korrelazio negatiboa adierazten dute (aldagai bat handitzen denean, bestea txikitzen da), eta barra berdeek, berriz, korrelazio positiboa (biak batera handitzen edo txikitzen dira). Korrelazioaren indarra barraren luzeraren bidez erakusten da. Grafiketan, estatistikoki sendoak diren korrelaziodun aldagaiak * batez ezberdintzen dira eta horiek dira ikerketa honetako analisirako aintzat hartuko direnak.

¹² Hurrengo atalean emango dira GET indizearen inguruko argibideak. Ikus 3.4.3

23. *Grafikoa: AEKE punt eta aldagai sozio-urbanistikoaren arteko korrelazioen top15 grafikoa*



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak egina.

3.4.3 Hurbilketa soziolinguistikoa

Esan bezala, ikerketa honetan herrietako eta auzoetako **euskararen egoera deskribatzen duen adierazle nagusitzat kale-erabilera** hartu da, hau da, euskararen kaleko presentzia izan da herrietako espazio publikoaren antolaketa eta ezaugarriekin harremanetan jarri den adierazlea. Horrez gain, euskaren egoeraren deskribapen osatuagoa egiteko udalerrri mailako hizkuntza-gaitasuna, lehen hizkuntza, eta etxeko erabilera datuak ere baliatu dira. Hain zuzen, hiru adierazle horiekin Gaitasuna-Erabilera-Transmisioa (GET) indizea izeneko adierazle sintetiko bat sortu dugu. Jarraian azalduko da zeintzuk diren hizkuntzen kale-erabilera datuaren eta GET indizearen ezaugarriak:

3.4.3.1 Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa

Soziolinguistika Klusterrak euskararen kaleko erabilera kuantifikatzeko 2001az geroztik¹³ egin izan dituen hizkuntzen erabileraren kale-neurketak izan dira ikerketa-lan honen abiapuntua eta oinarria. Neurketa horien helburuak hiru dira: batetik, kaleetako hizkuntza-erabilerari buruz datu empirikoak eskuratzea; bestetik, euskararen kale-erabilerari buruzko datuak aztertzea eta interpretatzea; eta azkenik, hizkuntzen kale-erabileraren bilakaera ezagutaraztea, euskararen

¹³ <https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/hizkuntzen-erabileraren-kale-neurketa-udalerrriak-2021/>

biziberritze-prozesuari begira hausnarketarako, hizkuntza-politikak erabakitzeko eta hizkuntza-plangintza diseinatzeko balio dezan.

Nabarmentzekoa da ikerketaren ezaugarriak behinena datuak jasotzeko modua dela. Izan ere, ohiko inkesta bidezko datu bilketa alboratuta behaketa bidez jasotzen da informazioa. Honako hauek dira, laburbilduz, metodologiaren ezaugarriak:

Neurketan, hizkuntzen ahozko erabilerari buruzko datu enpirikoak jaso dira. Kaleetan entzundako elkarrizketetatik atera da informazioa, espazio irekietan solasean ari ziren hiztunen jarduna behatuz, alegia. (...) Klean entzundako elkarrizketa horiek zein hizkuntzatan gertatu diren jaso dute neurtzaileek (euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez edo beste hizkuntza batean). Gainera, elkarrizketa horietan parte hartu duten solaskideen ezaugarri batzuk bildu dira, zuzeneko behaketa bidez pertsonen egotzi diezazkiekegunak; inori ezer galdetu gabe: generoa, adina eta haurren parte hartze aktiboa, hizlari gisa.

(Altuna Zumeta eta Iñarra Arregi, 2022)

Bestalde, kale-erabileraren datuak hirigintza-aldagaiekin izan dezakeen lotura aztertzeko, herritarrek identifikatutako auzoetan oinarritu gara eta auzo horien erabilera datuak izateko kalkulu berriak egin dira. Horretarako ezinbestekoa izan da berariaz sortutako mugikorrek aplikazio baten bidez egin izana azken neurketak. Aplikazioarekin klean entzundako elkarrizketak geolokalizatuta erregistratu dira (elkarrizketen hizkuntza eta solaskideen ezaugarriak). Geolokalizazioak aukera eman du eremu zehatz edo auzo baten erabilera-indize berriak kalkulatzeko. Ikerketa honetan, sortu diren indize berriak hirigintzako antolaketa-ezaugarriekin alderatu dira.

Auzoen araberrako erabilera-daturak kalkulatzeko, eta urte batetik bestera egon diren aldaketak aztertzeko, metodo ezberdinak erabili dira: batetik, jatorrizko datuak ibilbideka daudenean formula bat baliatu da eta, bestetik, jatorrizko datuak geolokalizatuta daudenean elkarrizketa-puntuen multzokatze berriak egin dira.

Jatorrizko datuak ibilbideka ditugunean baliatu den formularen kontuan hartu da auzo bakoitzetik ibilbide bat edo gehiago, pasa daitezkeela. Horra hor formularen xehetasunak¹⁴:

¹⁴ Ibilbideen definizioa ez dator bat herritarrek identifikatutako auzoekin, ondorioz, kasu askotan, auzo batetik ibilbide ezberdinak igarotzen dira, horietako bakoitza euskararen kale-erabileraren datu ezberdinarekin [a eta b datuak]. Horrela, auzoko datu bakarra lortu ahal izateko [AEKE], honako prozedura egin da: 1) Ibilbide bakoitzari zabalera bat —balizko eragin eremua— ematen zaio eta, ondorioz, ibilbide bakoitzak azalera bat okupatzen du aztergai dugun auzoan: ibilbidearen auzo-okupazioa.

2) Ibilbide bakoitzaren “auzo-okupazioen” mugalerroari ere, ekidistantzia bidez, azalera gehigarria ematen zaio perimetro osoan, balizko eragin eremuari erantzunez.

3) **A** eta **B** datuak bi ibilbideen “auzo-okupazio”en batuketarekin erlazionatzen dira [A/A+B; B/A+B], auzo-okupazio osoarekiko ibilbide bakoitzaren okupazioa —beraz, eragina— zein den identifikatzeko.

4) AEKE datua lortzeko, ibilbide bakoitzaren jatorrizko datuak [a eta b datuak] **A** eta **B** datuekin ponderatuta batzen dira.

24. Taula: Datuak ibilbideka daudenean auzoka jartzeko formula

Auzo bateko euskararen kale-erabilera = $a \cdot A + b \cdot B$	
a=a	ibilbidearen euskara-erabilera ehunekotan
b=b	ibilbidearen euskara-erabilera ehunekotan
A=a	ibilbidearen (15m handituta zabaleran) azalera kopurua auzo poligonoan (m ²) (10m handituta zabaleran) zati (A+B)
B=b	ibilbidearen (15m handituta zabaleran) azalera kopurua auzo poligonoan (m ²) (10m handituta zabaleran) zati (A+B)
*Hirugarren ibilbide bat izanez gero d eta D gehituko zaizkio formulari.	

Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak egina.

Esan bezala, prozedura horiek baliatuz eskuratu ditugu auzo guztietako erabilera datuak. Kale-erabilera gain, euskaren egoeraren deskribapen osatuagoa izateko hurrengo atalean aurkeztuko den indize sintetikoa sortu da.

3.4.3.2 Gaitasuna Erabilera Transmisioa: GET indizea

Gaitasuna Erabilera Transmisioa (GET) indizea udalerrri bakoitzeko euskararen egoera laburbiltzen duen **indize sintetikoa** da. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako estatistika ofizialetan udalerrri bakoitzari buruz eskuragarri dauden adierazle soziolinguistiko nagusien konbinazioetik sortzen da: euskara-gaitasuna (G), etxean erabiltzen den hizkuntza (E) eta lehen hizkuntza edo transmisioa (T). Beraz, oinarri gisa Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eskaintzen dituen honako hiru datu soziolinguistiko hauek erabili dira:

- Etxean erabiltzen den hizkuntza (Etxean erabiltzen den hizkuntza adinaren eta sexuaren arabera. EAE (eskualdeka/udalerrrika))
 - Euskara
 - Biak
 - Gaztelania
 - Beste bat
- Euskara-gaitasuna (Euskara-gaitasuna adinaren eta sexuaren arabera. EAE (eskualdeka/udalerrrika))
 - Euskaldunak
 - Euskaldun hartzaileak
 - Erdaldunak

- Lehen hizkuntza (Lehen hizkuntza adinaren eta sexuaren arabera. EAE (eskualdeka/udalerrika))
 - Euskara
 - Biak
 - Gaztelania
 - Beste bat

Zenbat eta GET indize altuagoa izan, biztanleria horrek euskara erabiltzeko dituen abiapuntuko baldintzak orduan eta hobeak izango dira, eta kaleko elkarrizketak euskaraz gertatzeko aukera handiagoa izango da.

Horrela eraiki eta balioztatu da GET indizea:

"Hasteko 3 aldagaien analisisa egin da haien portaerak aztertzeko. Gero, aldagai horiek binaka elkarren artean nola eragiten duten aztertu da. Behin aldagaien joerak ezagututa, faktore analisisa aplikatuz 3 aldagaiak haien arteko korrelazioa ahalik eta gehien mantentzen duen konbinazio lineala erabiliz laburtu dira. Behin euskalduntasuna indize bakarrean laburtzeko lehen formula bat edukita, azterketa ezberdinak egin dira formula hau balioztatzeko"¹⁵.

25. Taula: Datuak ibilbideka daudenean auzoka jartzeko formula

EAEko udalerrien euskalduntasuna laburbiltzen duen indizearen formula
$\text{GET indizea} = 31,2 \cdot \text{prop_gait} + 32,89 \cdot \text{prop_etx} + 35,91 \cdot \text{prop_lehen}$

Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak egina.

Indizea 0 eta 1 eskalako da. "1" baloreak adierazten du udalerrri (edo auzo) horretako herritar guztiek (% 100) euskaraz badakitela, guztien lehen hizkuntza euskara dela, eta guztien etxeetako hizkuntza nagusia euskara dela. Alderantziz, "0" baloreak adierazten du eremu horretan ez dagoela euskaraz dakien herritarrik, ez dagoela euskara lehen hizkuntza duenik, eta, beraz, inoren etxean ez dela euskara hizkuntza nagusia.

3.4.3.3 Kale-erabilera eta GET indizearen aldagaien arteko aldea

Kontuan hartzekoa da desberdintasun metodologiko nabarmenak daudela kale-erabilera, etxeko erabilera, lehen hizkuntza eta euskara-gaitasuna neurtzeko moduan. Laburbilduz, aztertzen ari

¹⁵ Soziolinguistika Klusterra: "Euskalduntasun indizea, 2024"

garen aldagai horien arteko alderaketak oso tentuz hartu beharrekoak dira, honako arrazoi hauek tarteko:

- **Kale-erabilera behaketa bidez jasotzen da**, beraz, hizketan ari dena horretaz konturatu ere ez da egiten; **etxeko erabilera-datua**, aldiz, **inkesta bidez jasotzen da**, eta norberak ematen du bere etxean hitz egiten duen hizkuntzaren inguruko informazioa.
- **Kale-erabileran ez da ezinbestean udalerrian bizi direnen erabilera** islatzen bere horretan, kalean behaturiko elkarrizketen erabilera jasotzen baita, izan bertan erroldatutako biztanleen ala ez.
- **Kale-erabilera gertukoaren artekoa** izan ohi da, eta, sarritan, adinkide berekoen artean gertatzen da. Aldiz, **etxeko erabilera familia eremuko da**, normaletan belaunaldi ezberdinen artekoa (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019).

Nolanahi ere, azaldutako ñabardura horiek kontuan izanda ere, aurrez egin diren ikerketen arabera, esan daiteke honako korrelazio hauek izan, badirela:

- **Zenbat eta udalerrri euskaldunagoa izan orduan eta handiagoa da euskararen kale-erabilera**. Baina, banaketa hori ez da lineala ez eta uniforme, eta udalerrien artean hizkuntza portaerari buruzko desberdintasunak ageri dira (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019).
- Lehen hizkuntza modura euskara jaso dutenen proportzioa handia den udalerrietan, gehienetan, are eta handiagoa da euskararen kale-erabilera. Lehen hizkuntzaren proportzioak behera egin ahala, hala egiten du euskararen erabilerak (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019).
- **Zenbat eta handiagoa izan etxeko erabilera, orduan eta handiagoa da kaleko erabilera**. Nabarmenezkoa da bestalde, kaleko erabilera etxekoa baino altuagoa dela udalerrri gehienetan. Gainera, alde hori ez da murrizten etxean euskaraz asko hitz egiten den udalerrietan (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019).
- **Ezagutza, kale-erabilera, lehen hizkuntza eta etxeko erabilera**: aldagai soziolinguistikoen euskarari dagokion datuetan, balio altuenetik txikienera hurrenkera hori da ia udalerrri guztietan ohikoena (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019).

3.4.3.4 Auzo-tipologia soziolinguistikoak

Auzoetako errealitate soziolinguistikoa ezagutzeko **auzo-tipologia soziolinguistikoak** sortu dira. Horretarako bi irizpide baliatu dira: batetik, kale-erabileraren eta GET indizearen azterketa; eta bestetik, auzoen eta udalerrien errealitate soziolinguistikoen alderaketa. Irizpide horien konbinazioak eginez ondorengo hiru auzo-tipologia soziolinguistiko sortu dira.

Auzo gainerabiltzaileak eta azpierabiltzaileak

Tipologia honetan Auzoko Euskararen Kale-Erabilera eta udalerrikoa alderatzen dira. Auzo gainerabiltzaileak dira auzoko erabilera herrikoaren gainetik dutenak; eta alderantziz, auzo azpierabiltzaileak auzoko erabilera herrikoaren azpitik dutenak.

Auzo euskaldunagoak eta erdaldunagoak

Tipologia honetan, aldiz, auzoko eta udalerriko GET indizeak konparatzen dira. Auzo euskaldunagoak izango dira GET indizea udalerrikoa baino altuagoa dutenak, eta erdaldunagoak udalerrikoa baino baxuagoa dutenak.

Baldintzaz gaindiko auzoak eta baldintzaz azpikoak

Aurreko atalean azaldu bezala, GET indizea kalkulatzeko auzoan (edo udalerrian) erroldatutako herritarrak hartzen dira aintzat. Aldiz, kale-erabilera kalkulatzeko, kalean dauden solaskideak behatzen dira, errolda-agiria nongoa duten kontuan hartu gabe (solaskideen artean izango dira auzotarrak ez direnak ere). Eta, jakina, auzo batzuetan bertan erroldatutakoen kaleko presentzia handiagoa da besteetan baino. Hori horrela izanda ere, ageriko da GET indizeak nabarmen baldintzatzen duela Auzo (edo udalerriko) Euskararen Kale-Erabilera.

Hortaz, garrantzitsua da aztertzea noiz handitzen den GET indizearen eta kale-erabileraren arteko aldea. Izan ere, GET indizearen eta euskararen kale-erabileraren arteko aldeak adierazten du zenbateko *galera* izan duen euskararen erabilerak egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta. Aldea handia denean, espero baino baxuagoa da erabilera (baldintzaz azpiko auzoa izendatu dugu); alde txikia izatea, ordea, erabilerari ondo eutsi eta gainjarri zaionaren seinale da (baldintzaz gaindikoa izango da).

Indize horri GET2 deritzo.

4. DATUEN AZTERKETA

Aurrez azaldu bezala, lurralde mailako azterketan oinarrituta, bi herri ertain aukeratu ziren (Zornotza eta Zarautz) metodora lehen hurbilketa egiteko eta, ondoren, beste hiru herriren azterketa egin zen (Tolosa, Hernani eta Gernika-Lumo). Ikerketa kasu horiek herri mailan eta eskala xehetuagoan, auzo mailan, aztertuta, tokiko emaitzak lortu dira. Halere, ikerketa honen ondorio orokorrak atera ahal izateko, aztertutako bost herrietako berrogeita hamabi auzoetako datuak gurutzatu dira analisi estatistikoa burutuz eta horrela, auzo guztien irakurketa bateratua eginez.

Atal honetan, auzo mailako analisirako burutu den analisi estatistikoko emaitzak jaso dira.¹⁶ Aztertu diren bost herrietan bildutako datuen analisia hiru mailatan egin da. Lehenik hirigintza aldagaien arteko korrelazioak aztertu dira. Bigarrenik hirigintza aldagaiek datu soziolinguistikoekin dituzten loturei erreparatu zaie. Azkenik herri bakoitzaren dinamika soziolinguistikoak aztertu dira, begirada bertako auzo bakoitzak besteekiko duen egoeran ipiniz.

¹⁶ Lurralde mailako analisisiaz gehiago jakiteko, ikus 01. eranskina. Herrien azterketan sakontzeko, ikus 03. eranskina.

Datu multzo bakoitzaren analisitik ondorio zehatzak atera dira eta hiru iturri horien ikaspenen gurutzaketatik eratorri dira ikerketa honen ondorioak.

4.1 ALDAGAI SOZIO-URBANISTIKOEN ARTEKO KORRELAZIOA

Jaso diren aldagai sozio-urbanistikoetatik emandako informazioa azalduko da segidan. Bertan berrogeita hamabi auzoetako berrogeita hamar aldagai neurtu dira eta datu horiek elkarren artean dituzten loturak aztertu dira. Horretarako, lehenik, adierazle bakoitzeko aldagaien arteko korrelazioak aztertuko dira (4.1.1) eta ondoren, adierazle ezberdinetako aldagaien gurutzaketen analisia egingo da (4.1.2). Adierazle ezberdinen artean ikusten diren korrelazioak ikusita, hiri barneko dinamiken inguruko harreman esanguratsuak islatzen dira. Amaitzeko, aldagai horietako baloreetan oinarrituta, auzoen klusterizazioen emaitzak azaltzen dira (4.1.3).


4.1.1 Adierazleetako aldagai sozio-urbanistikoek arteko loturak

Atal honetan, adierazle bakoitzeko barneko aldagaien korrelazioak aurkezten dira.

Auzo Izaera (AI) barneko aldagaien harremanetan esan behar da gizarte ez-aktiboak (AI_GIZ-EZAK) eta etxebizitza jabetzak (AI_ETX_JAB%) lotura negatiboak dituztela. Hau da, enplegatzeke garaiz kanpo dagoen gizarte asko bizi den tokian, haur eta 65 urtez gorako asko bizi den tokian alegia, jabetza etxebizitza gutxi dago.

AEBEA barnean deigarriena da, dauden korrelazioak positiboak direla, hau da, aldagai batek gora egiten duenean besteak ere hala egiten duela. Segidan esanguratsuenak aurkezten dira. 100biztanleko dagoen **zerbitzu kopurua** neurtzeko aldagaiek osatzen dute lehen korrelazio multzoa: lehen mailako ostalaritza establezimenduak (AEBEA_ZERKOP_1OST), ostalaritza establezimendu guztiak (AEBEA_ZERKOP_OST), komertzioa (AEBEA_ZERKOP_DEND), enplegua (AEBEA_LANKOP_ENPLEG) eta lan establezimenduak (AEBEA_LANKOP_ESTAB). Bigarren multzoa ekipamenduen gertutasuna adierazten dutenen artekoa da: administrazioak (AEBEA_EK_ADMIN), lehen mailako hezkuntza zentroek (AEBEA_EK_1HEZK) eta osasun zentroek (AEBEA_EK_OSA) osatzen dute. Azken horiek, osasun zentroek, lotura ertainak azaltzen dituzte adinekoentzako zentroekin (AEBEA_EK_ADIN). Aipagarria da espazio publikoek komertzioarekin harremana erakusten dutela baina, era berean, deigarria da herri-, auzo- edo komunitate-mailakoek artean korrelazio maila aldatzen doala: herri mailakoetatik (AEBEA_EP_HERR), auzo mailakoetara (AEBEA_EP_AUZ) eta komunitate mailakoetara (AEBEA_EP_KOM) lotura positiboak izaten jarraitu arren nabarmen jaisten doa.

26. Grafikoa: aldagai sozio-urbanistiko arteko korrelazio matrizeak



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak egina.

APA adierazlea aztertuta, ekipamenduen eta zerbitzuen erakargarritasunaren arteko harreman sarearen egitura sendoagoa ikusten da. Honela, kultur zentroak (APA_EK_KULT), administrazio zentroak (APA_EK_ADMIN) eta osasun ekipamenduak (APA_EK_OSA) erlazionatuta agertzen dira. Azken biak hezkuntza zentroekin (APA_EK_HEZK) ere lotura dute eta aurreko guztiek denda (APA_ZER_DEN) eta ostalaritzaren estaldurarekin (APA_ZER_OST) ere bai. Aldiz, kirol zentroak (APA_EK_KIR) gune komertzialekin loturarik gabe azaltzen dira, baina hezkuntza zentroekin (APA_EK_HEZK) harremanean. Azkenik, adineko zentroak (APA_EK_ADIN) lotura gutxi erakusten dute aurrekoekiko eta duten gutxia osasun zentroekin garatzen dena da.

27. Grafikoa: APA adierazle aldagaien harremanak.



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak egina.

AEA adierazle barneko loturak aztertzean, auto mugikortasunak (AEA_MUG_AUTO) eta oinezko mugikortasunaren (AEA_MUG_OIN) arteko korrelazio guztiz negatiboa azaltzen da, zentzukoa den bezala. Era berean, ageriko beste kontu bat ere ikusten da: 100 biztanleko espazio publiko azalera (AEA_EPAN_EPAZ) berdegune kantitatearekin (AEA_EPANK_BER) harreman zuzenean dago.

4.1.2 Aldagai sozio-urbanistiko guztien arteko korrelazioaren analisisia

Atal honetan adierazle ezberdinen artean garatzen diren korrelazioak aztertzen dira eta, horrela, hiri barneko dinamikaren inguruko harremanetara lehen gerturatzea egiten da. Taularen irakurketa osoa azaldu ordez, esanguratsuenak diren gaiak azpimarratzen dira segidan.

(AI_DENTS), emakume proportzioa (AI_BIZ_EMAK) eta etxebizitza dentsitatearekin (AI_ETX_DENTS) ere lotura esanguratsuak azaltzen ditu.

AI, AEBEA eta APA adierazleetako aldagaien gurutzaketan, ekipamendu publikoen arteko loturak azaltzen dira, honela, osasun (APA_EK_OSA) eta administrazio (AEBEA_EK_ADMIN) ekipamenduek lotura sendoak dituzte beraien artean eta baita aurrez aipatu diren oinezkoentzako gune, komertzio eta ostalaritza jasotzen duten aldagaiekin ere. Aurreko adierazleekin jarraituz, biztanleriarekiko izaera dentsitatea (AI_DENTS) komertzio, ostalaritza eta oinezkoen mugikortasunarekin positiboki harramantzen den bezala, autoen mugikortasuna (AEA_MUG_AUTO) eta 100 biztanleko dauden banku kopuruarekin (AEA_APAL_BANK100) lotura negatiboak erakusten dituzte. Egoera hau azpimarratu egiten da AEA eta AEBEA osatzen duten adierazleak gurutzatzean, auto mugikortasunak (AEA_MUG_AUTO) denda (AEBEA_ZERKOP_DEND, AEBEA_ZEKOK_DEND) eta lehen mailako ostalaritzarekiko (AEBEA_ZEKOP_1OST) harreman negatiboa azaltzen baitu.

Auzo Izaera (AI) adierazleari sakonago erreparatuta honakoa ikusten da: etxebizitzaren jabetza errejimenak (AI_ETX_JAB%, AI_ETX_ALOK%) loturak azaltzen ditu ostalaritza, komertzio, enplegu eta establezimendu kopuruarekin. Lotura horiek negatiboak dira etxebizitza nagusien proportzioarekiko (AI_ETX_NAG%) eta etxebizitza nagusiak jabetzan suposatzen duten proportzioarekiko (AI_ETX_JAB%). Aldiz, alokairuen ehunekoarekin (AI_ETX_ALOK%) lotura positiboak ditu. Hau da, zenbat eta etxebizitza gehiago alokairuan, orduan eta zerbitzu, enplegu eta establezimendu kopuru handiagoa dago. Ekipamenduen erakargarritasuna aztertuta ere harreman bera azaltzen da, hau da, zerbitzu, enplegu eta establezimendu kopuruak korrelazio positiboa dute segidan aipatutako ekipamenduen erakargarritasunarekin (osasun (APA_EK_OSA), administrazio (APA_EK_ADMIN) eta kultur ekipamenduekin (APA_EK_KULT)).

Auzoetako espazio publikoen kalitatea aztertzeko, espazio horietako metro karratuko dagoen banku kopurua begiratu da (AEA_APAKALAZ) eta aldagai horrek harreman zuzenak erakutsi ditu hezkuntza zentroen (APA_EK_HEZ), autobus geltokien (APA_MUG_GEL_BUS) eta kirol ekipamenduen (APA_EK_KIR) erakargarritasunarekin eta baita PATA adierazlearen barneko haur jolas-terrazza gune (PATA_HAUR_TER) eta haur jolas-denda (PATA_HAUR_DEN) inguruekin ere. Azken horiek beren baitan hartzen dute haurrak jolasean dauden bitartean eguneroko erosketak egin ahal izatea, hau da, parkean dagoen haurra, beste norbaiten zaintzapean utzi eta bost minutuz erosketa hori egitea bermatzen duen egoera izatea edo, haurrak jolasean dauden bitartean, zaintzailea beste pertsona batzuekin sozializatuz taberna bateko terrazan egon ahal izatea. Aldiz, biztanleko dagoen espazio irekien azalerak (AEA_EPKAN_EPAZ) eta bertan dagoen banku kopuruak (AEA_APAKALAZ) biztanle dentsitatearekin (AI_DENTS) eta etxebizitza dentsitatearekin (AI_ETX_DENTS) korrelazio negatiboa azaltzen du, hau da, espazio dentsoenetan espazio publiko gutxien eta esertzeko toki gutxien dago.

4.1.3 Hirigintza klusterrak¹⁷


Metodoa azaldu den atalean aipatu bezala, erabilitako adierazleek osatzen dituzten aldagaien baitako klusterizazioa egin da. Honela, estatistikoki aztertuta, ikertutako 52 auzoek dituzten ezaugarriak eta beraien arteko loturei erreparatzean, auzoak bi klusterretan antolatu dira.¹⁸

Bi kluster egitean, lehen klusterrean 11 auzo kokatu dira eta kluster horretako auzoak, hiri barnean kokapen aldetik zentroan daude eta izaera aldetik oinarrizko funtzio publiko eta pribatuak jasotzen dituzte; beraz, Erdigune Funtzionalak (EF) direla esango dugu. Bigarrean, beste 41 kokatu dira eta auzo horiek, kokapen aldetik, Erdigune Funtzionala osatzen duten auzoen inguruan edo periferian kokatzen dira eta izaera oso ezberdinekoak dira beraien artean; horregatik, Beste Auzoak (BA) direla esango dugu.

¹⁷ Metodoa atalean esan bezala, ikerketan datu soziolinguistikoak barneratzean auzo batzuetako datuen sendotasuna nahikoa ez denez hauek kanpo utziko dira. Halere, atal honetan azaltzen den hirigintza ezaugarrien baitako klusterizazioa egiteko auzo guztiak mantendu dira, ditugun datu sozio urbanistikoaren sendotasuna nahikoa delako.

¹⁸ Hasieran 3 edo 4 kluster egiteko aukerak aztertu dira baina esanguratsuak izateko moduko nahikoa datu ez zegoela ikusita, eta 2 klusterrek estatistikoki eskaintzen zuten sendotasunagatik, besteak beste, bi auzo motatan banatu dira ikergai diren gure auzoak. Gehiago jakiteko, ikus txosten honetako “3.4.1 hirigintza hurbilketa” atala.

29. Taula: Hirigintza klusterrak: aztertutako herrietan.

1.KLUSTERRA: ERDIGUNE FUNTZIONALA	2.KLUSTERRA: BESTEAK	
<p>Udalerrri kopurua: 11</p> <p>Zarautz:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Alde Zaharra - Azken Portu_Salberdin <p>Zornotza:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Erdigunea <p>Hernani:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Erdigunea - Kaxkoa - Lizeaga <p>Gernika-Lumo:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Txorraburu_San Juan - Erdigunea <p>Tolosa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Alde Zaharra_Belate - Erdigunea - Alliri_Araba 	<p>Udalerrri kopurua: 41</p> <p>Zarautz:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Mendilaueta - Zelaieta - San Pelaio - Vista Alegre_Salbide - Zelaiondo - Aritzatalde - Itsasmendi - Talaimendi <p>Zornotza:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Larrea - Ixer_San Pedro - Arraibiondo - Ogenbarrena - Zubipunte - Zubikurtze_Zubizabala - Nafarroa - Andradi - Enrike Renteria - Jauregizahar <p>Hernani:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Marieluts_Latsunbe - Antziola - Florida_Sagastialde - Florida_Etxeberri - Karobietia_Aristizabal - Florida_Erdigunea - Karabel - Santa Barbara - Elizatxo_Portu - Zikuñaga - Ereñozu <p>Gernika-Lumo:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Santa Ana - Renteria_Lorategieta - Zearreta_Mestika - Kalzada_San Kristobal - Lurgorri <p>Tolosa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Larramendi - San Esteban_Ttorre - Kondeko aldapa_Izaskun - Berazubi - Iurre - Iurramendi - Amarotz 	


EHUko BOTOI ikerketa-taldeak egina.

Adierazle sozio-urbanistiko ezberdinetarako hirigintza-kluster bateko zein besteko batz besteko balioek balio estandarizatuarekiko duen desbiazioa aztertuta, alde nabarmenak azaltzen dituzte. Aipagarriena APA adierazlean agertzen den aldea da; handiena hori denez, bi klusterrak gehien bereizten dituen adierazlea hori dela ulertzen da: ia hiru aldiz datu handiagoak ikusten dira Erdigune Funtzionaletan. Beraz, hortik ondorioztatzen da auzoz kanpoko pertsonak Erdigune Funtzionaletatik pasatzeko aukera askoz handiagoa izango dela BA klusterreko auzoekin alderatuz.

PATA adierazlean ere alde esanguratsua dago (ia bikoitza); honela, Erdigune Funtzionaletan pertsonekin topatzeko aukera askoz gehiago izango da. AI adierazlean ere, alde nabarmena da, beraz, biztanleria eta etxebizitza errejimenarekiko ezberdintasunak bistakoak dira bi auzo-taldeetan. Auzoan Eguneroko Bizitza Egiteko Aukera (AEBEA) ere handiagoa da Erdigune Funtzionaletan. Azkenik, Auzoan Egoteko Aukeran ia nulua da desbiazioa.

30. Grafikoa: Aldagai multzoekiko klusterren karakterizazioa (balioak: batezbesteko erreala, kolorea: z-score).


Klusterra	Herri kopurua	Portzentaia	AEBEA Batezbestekoa	APA Batezbestekoa	AEA Batezbestekoa	AI Batezbestekoa	PATA Batezbestekoa
1	11	21.2%	65,30	1568,84	19,51	357,58	78,93
2	41	78.8%	49,77	515,81	19,57	199,73	41,26



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak egina.


Bi klusterrak (Erdigune Funtzionalak eta Beste Auzoak) karakterizazioan sakontzeko, adierazle bakoitza osatzen duten aldagaietarako batzuek eta besteek dituzten batez besteko baloreen aldeak aztertu dira armiarma diagramen bidez. Era berean, bi klusterrak bereizten dituzten 15 aldagai nagusien datuak begiratu dira, alde nabarmenenak islatzen dituzten aldagaiak, alegia.

31. Grafikoa: adierazle eta aldagaien baloreak kluster bakoitzeko



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldea egina.

32. Grafikoak: Hirigintza klusterrak (K1: Erdigune funtzionala; K2: Besteak)



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldea egina.

Azkenik, datu estatistikoetatik eratorritako informazioa lurreratzeko, 34. taulan erakutsitako planoekin irakurketa gurutzatua egin da. Plano horietan herri bakoitzean bi auzo motak kokatu dira, horrela, hirigintza ikuspegitik horien hausnarketan sakontzeko: Erdigune Funtzionala osatzen duten auzoek herrian hartzen duten eremuaren tamaina eta kokapena eta Beste Auzoek hartzen dutena ikusteak balio izan du bi auzo-talde horien izaera hobeto ulertzeko. Iturri horietatik jasotako informazioarekin, sorturako kluster bakoitzak dituen ezaugarriak zehaztuko dira jarraian.

Erdigune Funtzionalak klusterra osatzen duten auzoak aztertutako herrietako alde zahar eta erdiguneak dira. Hirigintzaren ikuspegitik, hiri zati zaharrenak eta biztanlez dentsoenak dira. Beste Auzoek osatzen duten klusterrarekin alderatuz, biztanle kopuru bikoitza erakusten dute datuek. Giza taldeei erreparatuz, 14 urtez beherako pertsona gutxiago azaltzen dira Erdigune Funtzionaletan baina, aldiz, egoera ez-aktiboan dagoen biztanle gehiago bizi da horietan eta emakumeen ehunekoa ere askoz handiagoa da. Erdigune Funtzionaletan, beraz, adineko gehiago dagoela ondorioztatu dezakegu eta, gainera, horien gehiengo emakumeak direla.

Etxebizitzaren jabetza errejimenari dagokionez, erdiguneaz kanpoko Beste Auzoetan nagusiagoak dira jabetzan daudenak eta, gainera, lehen etxebizitzak dira nagusi bertan. Erdigune Funtzionaletan, aldiz, alokairuko etxebizitzaren ehunekoa altuagoa da eta etxebizitza nagusien kopurua txikiagoa da. Aurreko datuetan oinarrituz, eta gure testuinguruan gertatzen ari diren ohiko dinamikak aintzat hartuta, honako hipotesia eraiki daiteke: alde zaharretan migrazio prozesua gertatzen ari da, bertako biztanleak kanpora ari dira joaten bizitzera (Beste Auzoetara, akaso) eta bertan biztanleria zahartua eta feminizatua eta/edo etorkinak geratu dira.

Nabarmena da lanpostu kopuruarekiko bi klusterrek duten aldea: Erdigune Funtzionaletan hiru aldiz lanpostu gehiago dago. Era berean, zerbitzu kopuruan ere alde nabaria dago, Erdigune Funtzionaletako datuak ia laukoiztu egiten baitu Beste Auzoetakoa. Beraz, bi aldagai horien arteko lotura nahiko zuzena dela pentsa daiteke. Horrela, gure testuinguruetako ohiko errealitatearekin bat eginez, bistakoa da estatistikaren arabera ere Erdigune Funtzionalak, zerbitzu eta aktibitate ekonomikoari dagokionez ere, dentsuagoak direla.

Aurreko atalean, aldagaien arteko korrelazioen bidez egindako hurbilketarekin bat eginez, ikusten da Erdigune Funtzionaletan herritarrek aipatu dizkiguten oinezkoen ohiko ibilbideen presentzia bi aldiz altuagoa dela beste klusterreko auzoekin alderatuta. Aldiz, erdiguneetatik haratagoko auzoetan (BA) berdeguneen azalera bikoitza da. Espazio publikoaren izaerari erreparatuz, ikusten da Erdigune Funtzionalak herri-mailako espazio ugariagoak dituztela komunitate espazioekin alderatuz, hau da, espazio intimo gutxiago dagoela erdiguneetan.

Euskara puntuazioari dagokionez, berriz, parekoa da, nahiz eta zerbait altuagoa den bigarren klusterrekoa.

Hauek dira, orohar, aurreko eta hurrengo tauletan adierazten den bezala, bi klusterren arteko bereizketa karakterizatzen duten aldagaiak. Erdigune Funtzionaletan balio altuagoak ikusten dira kasu guztietan, berdeguneen azalera adierazten duen aldagaian izan ezik.

33. Taula: Hirigintza klusterren aldagaien bereizketa.

			1. KLUSTER	2. KLUSTER
AI	AI_ETXEB_DENTS	ETXEBIZITZA DENSITATEA (kop/az)		
	AI_ETXE_NAG	ETXEBIZITZA NAGUSIETAN PROPORZIOA		
	AI_DENTS			
	AI_BIZ_EMAK	EMAKUME PROPORZIOA		
	AI_ETX_ALOK%	ETXEBIZITZA EDUKITZE ERREJIMENA PROPORZIOA (ALOKAIRUA/ ETXEBIZITZA)		
	AI_ETX_JAB%	ETXEBIZITZA EDUKITZE ERREJIMENA PROPORZIOA (NAGUSIA/ETXEBIZITZA)		
AEA	AEA_MUG_OIN	OINEZKOEN KALEA ml/ml GUZTIEKIKO		
	AEA_MUG_AUTO	AUTOENTZAKO ERRAIAK ml/ml GUZTIEKIKO		
	AEA_EPKAN_EPAZ	ESPAZIO PUBLIKO AZALERA 100 BIZTANLEKIKO		
	AEA_EPKAN_BANAZ	BANKU KOPURUA AUZO AZALERARKIKO		
	AEA_APKAL_BAN100	BANKU KOPURUA 100 BIZTANLEKO		
AEBEA	AEBEA_EK_OSA	OSASUN EKIPAMENDUEN GERTUTASUNA		
	AEBEA_EK_ADMIN	ADMINISTRAZIO EKIPAMENDUEN GERTUTASUNA		
	AEBEA_EK_ADIN	ADINEKOENTZAKO EKIPAMENDUEN GERTUTASUNA		
	AEBEA_EP_AUZO	AUZO MAILAKO ESPAZIOEN ESTALDURA		
	AEBEA_ZERKOP_DEND	DENDA GUZTIAK 100 BIZTANLEKO		
	AEBEA_EK_1HEZK	1. HEZKUNTZAKO EKIPAMENDUEN GERTUTASUNA		
	AEBEA_ZERKOP_OST	OSTALARITZA GUZTIAK 100 BIZTANLEKO		
APA	APA_EK_ADMIN	ADMINISTRAZIO ZENTROEN ESTALDURA ERAKARGARRITASUNA		
	APA_EK_OSA	OSASUN ZENTROEN ESTALDURA ERAKARGARRITASUNA		
	APA_EK_KIR	KIROLDEGIEN ESTALDURA ERAKARGARRITASUNA		
	APA_ZER_DEN	DENDEN ESTALDURA ERAKARGARRITASUNA		
	APA_ZER_OST	OSTALARITZA ESTALDURA ERAKARGARRITASUNA		

Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak egina.

4.1.4 Azken irakurketa batzuk

Nabarmentzekoa da lotura esanguratsuenak adierazle berdinen barnean ikusi direla, batez ere AEBEA, APA eta PATA adierazleak osatzen dituzten aldagai batzuen artean, zehazki. Hau da, adierazle horien barneko aldagai zehatz batzuen baloreak zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa edo txikiagoa izan da horietako beste adierazle bateko aldagaiaren balorea. Bestalde, antzeman diren korrelazio eta auzoen klusterizazioak gure testuinguruko herri ertainen dinamikak ondo islatzen dituztela ulertzen da, bereziki, Erdigune Funtzionalako auzoek herriko Beste Auzoekiko duen ezberdintasuna aintzat hartuta. Aldiz, Erdigune Funtzionalaz kanpoko

auzoen artean (BA klusterrekoak) ikerketa honetan eskuragarri izan diren datuekin behar bezala bereiztu ezin izan diren ezberdintasunak badirela aurreikusten da.


Honek ikerketaren metodologia balioztatzen du eta bera sortzeko ikuspegiaren egokitasuna azpimarratzen du, adierazleak diseinatzean aukeratu diren aldagaiek elkarrekin korrelazio zuzena erakusten baitute.

Bi klusterretako auzoetan —Erdigune Funtzionaletan zein Beste Auzoetan— azaltzen dira hiri zaintzaile baterako egokiak diren ezaugarriak, baina ez batzuk ezta besteek ere ez dituzte asetzen alderdi guztiak.

Erdigune Funtzionaletan egunerokotasuneko zerbitzuen eta oinarrizko ekipamenduen gertutasuna bermatuta dago eta mugikortasunaren ikuspuntutik oinezko izaera gailentzen da. Beraz, hasiera batean eman dezake eguneroko bizitza bertan garatzeko baldintzak betetzen direla, baina badira kontrako zentzuan irakurri beharreko joerak: aktibitate gehieneko inguru horiek oinezkoentzat bihurtzen joan dira eta kalearen erabilera komertziala gailentzen joan da, espazio publikoaren okupazio pribatua intentsifikatuz. Beraz, nahiz eta ezin den modu orokortuan baieztatu, herri askotako kaleak hein batean merkantilizatzen joan dira. Gainera, zerbitzu eta beste establezimenduekiko zentralizazio joera gertatu da auzoon eta besteen arteko desoreka eraginez. Aktibitate zentralizazio horrek auzo batetik besterako fluxuak beharrezkoak egiten ditu eta, ondorioz, ikuspuntu soziolinguistikotik aldakortasun handia dute Erdigune Funtzionaletako, bertakoak ez diren biztanleak hartzen dituelako. Bestalde, espazio publiko kantitatea mugatua da Erdigune Funtzional hauetan, bereziki komunitate mailako espazioei dagokionez, eta horien kalitatearen erakusle den biztanleko banku kopuru tasa ere beste auzoetan baino dezente txikiagoa da. Beraz, dirudienez, Erdigune Funtzionaletako auzo horietako batzuk behintzat, hiri zaintzaileetako parametroetatik aldentzen dira gehiegizko aktibitateagatik zein espazio publikoaren kantitate eta kalitate faltagatik.

Erdigune Funtzionaletan kanpoko auzoetan (BA), ordea, honakoa da gertatzen dena: zaintzen ikuspegitik aldarrikatzen den eguneroko bizitza bermatzeko aldarrikatzen diren zerbitzuen eta oinarrizko ekipamendu batzuen gertutasuna ez da hain modu argian betetzen orokorrean; aldiz, espazio publiko gehiago eta berdegune gehiago dago. Horrek, eguneroko kale zaintzak eta norberaren zaintza erraztu litzake baina, aurrez aipatutako zerbitzuen zentralizazioak biztanle ororen mugikortasun behartua eragiten du. Horrela, zalantzarik izan daiteke erdiguneaz kanpoko zenbait auzoetako biztanleek egunerokotasunean funtzionatzeko erdiguneekiko duten dependentzia aintzat hartuta, euren auzoetako espazio publiko hau bizi eta gozatzeko nahikoa aukera ba ote duten. Aipagarria da Beste Auzoak klusterrean kirol eta lehen hezkuntzako zentroen presentzia ohikoa dela eta, ondorioz, beste auzoetako biztanle fluxuak jasotzen dituztela. Mugikortasunaren ikuspuntutik, oinezkoek presentzia gutxiago dute eta mugikortasunerako espazio gehiago hartzen du kotxeak. Horrela, pentsa daiteke auzotarren egunerokotasunean autoaren erabilerak indar handia izango duela (lanpostu gutxi eskaintzen baita auzoetan) eta, beste auzoetatik datozenek ere mugikortasun eredu hori baliatuko dutela kasu askotan.

34. irudia: Aldagai sozio-urbanistikoan herrien irudiak.



Iturria: EHuko BOTOI ikerketa-taldea egina.


4.2 HIRIGINTZA ALDAGAIEN ETA DATU SOZIOINGUISTIKOEN ARTEKO KORRELAZIOA

Atal honetan, auzo mailako analisi estatistikotik eratorritako datuen azterketarekin jarraituz, hirigintza aldagaien eta datu soziolinguistikoen arteko korrelazioari begiratuko zaio. Horretarako, lehenengo azpiatalean (4.2.1), zein hirigintza ezaugarri dauden euskararen kale-erabilera altueneko eta baxueneko auzoetan aztertuko da, eta azken 10 urteetako bilakaerarekin alderatuko da. Horren ostean, informazio horrek adinka dituen bereizgarritasunak begiratuko dira (4.2.2). Hurrengo aztergaia GET2 izango da, hau da, ikustea ea zein hirigintza ezaugarri dauden kale-erabilera eta GET datuen arteko alde altuena eta baxuena dagoen auzoetan (4.2.3). Azkenik, aldagai adierazgarrienen zeharkako irakurketa egingo da (4.2.4).

4.2.1 Zein hirigintza ezaugarri daude euskararen kale-erabilera altueneko auzoetan? Eta baxuenetakoetan?

Galdera horri erantzuteko, lehenik eta behin 15 korrelazio indartsuenei begiratuko zaie hurrengo taularen bitartez. Berdez ageri diren datuak euskararen erabilerarekiko positiboak dira; gorritz daudenak berriz, negatiboak. Bestalde, hirigintza ezaugarrien kodigoen ondoan izartxoak daramaten datuak dira soilik estatistikoki esanguratsuak.

35. *Grafikoa: AEKE punt eta aldagai sozio-urbanistikoaren arteko korrelazioen top15 grafikoa*



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak egina.

Goian erantsitako grafikoa hobeto ulertze bidera, ondorengo taulak hiru zehastasun gehiago ematen ditu. Alde batetik, estatistikoki esanguratsuak diren datuen zenbakiak erakusten ditu, eta, bestetik, datu horren parte diren hirigintza ezaugarriak zein hirigintza aldagairen barruan dauden ere begiratzen du. Azkenik, eta korrelazio indartsuetan dagoenez fokua, korrelazio horiek zenbakitu egin dira ondorengo taulan, korrelazio indartsuenek 1 zenbakia izanez (estatistikoki esanguratsuak diren datuen barnean, betiere).

36. Taula: AEKE punt eta aldagai sozio-urbanistikoen arteko korrelazio nagusien taula.

			AEKE PUNT TOP 15	
APA	APA_MUG_GEL_BUS	BUS GELTOKIEN ESTALDURA	0,283	6
	APA_MUG_BID	BIDEGORRI ESTALDURA		
	APA_EK_ADIN	ADINEKOENTZAKO ZENTROEN ESTALDURA ERAKARGARRITASUNA	0,293	4
	APA_EK_KIR	KIROLDEGIEN ESTALDURA ERAKARGARRITASUNA	0,359	3
	APA_EK_ADMIN	ADMINISTRAZIO ZENTROEN ESTALDURA ERAKARGARRITASUNA		
	APA_EK_OSA	OSASUN ZENTROEN ESTALDURA ERAKARGARRITASUNA		
AI	AI_BIZ_EMAK	EMAKUME PROPORZIOA	0,285	5
	AI_ETXE_NAG	ETXEBIZITZA NAGUSIETAN PROPORZIOA	-0,311	1
	AI_ETXEB_DENTS	ETXEBIZITZA DENTSITATEA (kop/az)		
	AI_DENTS			
	AI_GIZ-EZAK	EZ AKTIBOAK PROPORZIOA		
AEBEA	AEBEA_EK_OSA	OSASUN EKIPAMENDUEN GERTUTASUNA	-0,291	2
	AEBEA_EK_1HEZK	1.HEZKUNTZA EKIPAMENDUEN GERTUTASUNA	0,359	3
	AEBEA_EK_ADMIN	ADMINISTRAZIO EKIPAMENDUEN GERTUTASUNA		
	AEBEA_EK_ADIN	ADINEKOENTZAKO EKIPAMENDUEN GERTUTASUNA		
	AEBEA_EP_HERRI	HERRI MAILAKO ESPAZIOEN ESTALDURA		
	AEBEA_EP_KOM	KOMUNITATE MAILAKO ESPAZIOEN ESTALDURA		
	AEBEA_ZERKOK_1DEND	1.MAILAKO DENDEN ESTALDURA		
AEA	AEA_EPKAN_EPAZ	ESPAZIO PUBLIKO AZALERA 100 BIZTANLEKIKO	0,360	2
	AEA_EPKAN_BANAZ	BANKU KOPURUA AUZO AZALERARAKIKO		
	AEA_APKAL_BAN100	BANKU KOPURUA 100 BIZTANLEKO	0,406	1
	AEA_EPKAL_ELKARFLUX	AUZOKO ELKARGUNE ETA FLUXUEN KALITATEA		
PATA	PATA_EP_HAUARDEN	HAUR JOLASAK-EGUNEROKO KOMERTZIOEN BUFERRA		

Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak egina.

Datuei erreparatuz, auzoko euskararen kale-erabilera (AEKE) positiboan estatistikoki esanguratsuenak diren hirigintza aldagaiak honakoak dira:

1. Banku kopurua 100 biztanlerekiko (AEA)
2. Espazio publikoaren azalera 100 biztanlerekiko (AEA)
3. Lehen mailako hezkuntza ekipamenduen gertutasuna (AEBEA) / Kiroldегien estaldura erakargarritasuna (APA)
4. Adinezkoentzako zentroen estaldura erakargarritasuna (APA)
5. Emakumeen proportzioa (AI)
6. Autobus geltokien estaldura (APA)

Ondorioz, auzoan egoteko aukera (AEA) baldintzatzen duten eta espazio publikoaren kantitate eta kalitateari buruzkoak diren hirigintza ezaugarriek erakusten dute korrelazio mailarik indartsuena auzoko euskararen kale-erabilerekin (1, 2). Horren ostean, auzoan eguneroko bizitza egiteko aukeran eta auzotik pasatzeko aukeran kokatzen diren eta lehen mailako hezkuntzari hezkuntzari (AEBEA), adinkeoen egoitzei (APA) eta kirol ekipamenduei (APA) lotuta dauden hirigintza ezaugarriek erakusten dute korrelaziorik indartsuena (3, 3, 4). Azkenik, auzoaren izaeran eta, beste behin, auzotik pasatzeko aukeran kokatuta dauden generoari (emakume kopuruari, zehazki) (AI) eta autobus geltokiei (APA) loturiko hirigintza ezaugarriek ere positiboki baldintzatzen dute auzoko euskararen kale-erabilera.

Aldi berean, honakoak dira auzoko euskararen kale-erabilera (AEKE) negatiboan estatistikoki esanguratsuenak diren hirigintza aldagaiak:


1. Etxebizitza nagusien proportzioa (AI)
2. Osasun ekipamenduen gertutasuna (AEBEA)

Ikus daitekeenez, auzoaren izaeran (AI) dagoen etxebizitza nagusien proportzioak du korrelaziorik indartsuena auzoko euskararen kale-erabilera negatiboarekin. Ondoren, auzoan eguneroko bizitza egiteko aukeran txertatzen den osasun ekipamenduen gertutasunak adierazten du hurrengo korrelaziorik indartsuena.

Esandakoak badu zerikusirik azken 10 urteetako bilakaerarekin: euskararen kale-erabilerearen bilakaera kontuan hartzen bada, ez dago negatiboki estatistikoki esanguratsua den hirigintza ezaugarririk, baina bai positiborik. Honakoak dira: autobus geltokien estaldura, bidegorrien estaldura, kiroldegien estalduraren erakargarritasuna, eta haur jolasen eta eguneroko komertzioek osatzen duten bufferra (azken horrek bere baitan hartzen du haurrak jolasean dauden bitartean eguneroko erosketak egin ahal izatea, hau da, parkean dagoen haurra, beste norbaiten zaintzapean utzi eta bost minutuz erosketa hori egitea bermatzen duen azalera). Aipaturiko lehena eta hirugarrena (autobus geltokien estaldura eta kiroldegien estalduraren erakargarritasuna) egungo datuetan mantentzen direla ikusten da; bidegorriak eta haur jolasek eta eguneroko komertzioek osatzen duten bufferra dira konparaketa horretan berriak. Azken bi horiek, nahiz eta berriak izan, bidegorriak auzotik pasatzeko aukeran (APA) eta bufferra haurrak tarteko direnean agertzen dira, eta, beraz, nolabaiteko harremana erakusten dute egungo datuetan antzemandako korrelazioekin.

Behean txertatutako grafikoan islatzen dira bilakaeran esanguratsuak izan diren hirigintza ezaugarriak. Dena dela, honakoa azpimarratu beharra dago, datuak hobeto interpretatzera bidera: identifikatutako korrelazioek ez dute erakusten hirigintza ezaugarri horiek gehiago dauden orain duela 10 urte baino eta, beraz, ezin daiteke ziurtatu korrelazio indartsu horren arrazoia hori den ala ezaugarri berberetan orain euskara gehiago entzuten den.

37. *Grafikoa: AEKE bilakaera (10 urte) eta aldagai sozio-urbanistikoaren arteko korrelazioen top 15 grafikoa*



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak egina.

4.2.2 Zein hirigintza ezaugarri daude kale-erabileraren eta hiztunen adin-taldearen arteko korrelazioetan?

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da euskararen erabileraren eragin handia duela hiztunen adinaren adinak. Horregatik, Euskal Herriko errealitate soziolinguistikoaren argazki xehea egiteko ezinbestekoa da hiztunen adina aztertzea. Beraz, kale-erabilerak hirigintzarekin duen korrelazioa aztertu aurretik Kale-neurketak azken hamarkadatan utzitako ondorioak azalduko dira, eta horretarako nagusiki hiztunen adinari erreparatuko zaio. Hain zuzen, Soziolinguistika Klusterrak 2021ean egindako Hizkuntzen Erabileraren Kale-neurketaren harira zera zioen emaitzen txosten teknikoan:

Duela hogeita hamar urte, gazteek zerabilten euskara gutxien kalean; gaur egun, ordea, adinekoek. Belaunaldi gazteetan euskaldunen proportzioak gora egin du, eta adinekoetan, aldiz, behera. Izan ere, 1989an adinekoen taldea osatzen zutenak desagertu ahala –euskaldunak zirenak proportzio esanguratsuan–, adinekoen multzora igaro dira orduan helduen multzo erdaldunagoa –guztietan erdaldunena– osatzen zutenak. Gainera, azken lau hamarkadatan, euskararen transmisioa asko zabaldu da. Besteak beste, eskolaren bidez euskaldundu dira milaka ume eta gazte.

Biztanleen adin-piramideari erreparatu, gizartea zahartuz doan honetan, euskararen erabilera “gaztetu” egin dela esan daiteke. Euskarak adin-piramidea iraultzea lortu du: haurrak eta gazteak dira euskara gehien darabiltenak, eta helduak eta adinekoak gutxien. Hurrenkera hori aldatu izana lorpen sozial handia da. Izan ere, munduko eta Europako hizkuntza gutxitu gehienetan galera-prozesuaren hurrenkera mantentzen da, batez ere erabileran: adinekoek erabiltzen dute gehien eta gazteenek gutxien. Hori dela-eta, kualitatiboki, biziberritzerako egoerarik mesedegarrienean aurkitzen da euskara belaunaldien arabera.

Hurrengo urteetako bilakaerari begiratzean, garrantzitsua da haur eta gazteen joerei erreparatzea, nahiz eta biztanleria piramidean pisua txikia duten, eta beraz, baita erabilera-datu orokorrean ere. Kontuan hartu behar da eskolak euskaldundutako hiztun horien profil linguistikoa desberdina dela garai batean euskaldunen artean ohikoena zen profiletik. Gaur egun, euskaraz hitz egiteko gai diren gazte eta haur gehienek gaztelania edo frantsesa dute lehen hizkuntza, eta hizkuntza horietan mintzatzeko erraztasun handiagoa dute.

Era berean, azpimarragarria da euskararen kale-erabilera baxuagoa dela gazteen artean haurren artean baino. Hain zuzen, gazteen mundua ez dago euskarari haurrena bezain lotua. Esaterako, haurrei zuzendutako eskaintzan presentzia handia du euskarak (kultur eskaintza, aisialdi antolatua, udalekuak...); gazteenean, ordea, eskaintza hori helduei eta adinekoei zuzentzen zaienera hurbiltzen da, euskarazko aukerak murriztagoak dira, alegia (sare sozialak, musika, kirola...).

(Altuna Zumeta eta Iñarra Arregi, 2022)

Argazki orokor hori xeheago aztertuta badira ezberdintasunak euskalduntasun handiko eta urriko udalerririk alderatuta. Egokia da ideia hori hona ekartzea eskuartearen dugun ikerlanak, batetik, euskalduntasuna nolabait aztergai duelako (GET indizea), eta bestetik, errealtate soziolinguistiko ezberdinak dituzten auzoak direlako ikerketaren oinarria.

Hori horrela, bereizgarri nagusietako bat da helduen eta adinekoen artean zenbatekoa den euskararen presentzia. Udalerririk (edo auzo izan daiteke) euskaldunagotan helduek eta adinekoek presentzago dute euskara, eta, aldiz, erdaldunagotan arrotzago zaie. Alde hori ez da hainbeste nabarmentzen haurren eta gazteen artean, gutxi edo gehiago, ezagutza mailan bada ere, euskara eskolatik, bederen, jaso dutelako udalerririk ia guztietan. Udalerririk euskaldunak adinez nagusi direnen euskalduntasunarekin lotzea ahultasun sintomatzat har daiteke. Baina, bestalde, euskaltasun urriko udalerrietan, euskara gertuen dutenak gazteak izatea bada, nolabait, biziberritze prozesuaren ondorioz eratorritakoa, eta hori aurrera begirako aukeratzat hartu behar da.

Udalerrri mailako kale-erabilera datuei erreparatzen badiegu badira errepikatzen diren hainbat patro; hain zuzen, aztergai ditugun bost udalerrietan neurri handi batean ere topa daitezkeenak. Hona hemen zeintzuk diren:

- Haurren erabilera batez besteko orokorretik gora kokatzen da ia udalerrri guztietan, hau da, haurrek proportzioan gainontzeko biztanleek baino gehiago darabilte euskara.
- Euskararen eta gaztelaniaren erabilera antzekoa den udalerrietan aldentzen da gehien haurren erabilera batez bestekotik.
- Aitzitik, gazteei dagokienez, banaketa ez da hain homogenea eta dispersioa handiagoa da. Oro har, udalerrri euskaldunetan gazteen erabilera batez bestekotik gora dago, eta, alderantziz, udalerrri erdaldunagotan, ohikoagoa da gazteen erabilera batez bestekotik behera egotea.
- Helduen kasuan, ia beti marraz azpiko aldetik kokatzen da helduen erabilera, nahiz eta ez den asko aldentzen batez bestekotik (helduen elkarrizketek, ugariak izanda, pisu handia baitute).
- Antzera samar gertatzen da adinekoekin, baina nabarmentzekoa da udalerrri euskaldunetan adinekoen erabilera orokorraren gaintik dagoela.

Gainera, eta adin-taldeak nahastuz, haurren presentziak nabarmen eragiten du euskararen erabilera gora egitea, izan ere, haurrak elkarrizketetan presente daudeneko erabilera batez bestekoa baino altuagoa da udalerrri ia guztietan (baita aztergai ditugun Gernika-Lumon, Hernanin, Tolosan, Zarautzen eta Zornotzan ere). Esan behar da baita ere haurren faltan batez bestekoa baino baxuagoa dela erabilera (Altuna Zumeta, Iñarra Arregi, eta Basurto Arruti 2022).

Ikusi dugu euskararen kale-erabilera eta hiztunen adinaren artean badirela lotura esanguratsuak, jarraian lotura horren azterketari hirigintza ezaugarrien azterketa gehituko zaio. Hortaz, sarreran adierazi bezala, egungo datuak (auzoko euskararen kale-erabilera positibo eta negatiboan korrelazio estatistiko esanguratsuak adierazten dituzten hirigintza ezaugarri eta aldagaiak) adinka sailkatuko ditu atal honek, ondorengo taulan oinarrituz:

38. *Taula: AEKE punt adin-taldeka aldagai sozio-urbanistikoaren arteko korrelazio nagusien taula.*

	AEKE PUNT TOP 15	AEKE [0-14] Adin1 TOP15	AEKE [15- 24] Adin2 TOP15	AEKE [25- 44] Adin3 TOP15	AEKE [45- 64] Adin4 TOP15	AEKE [>65] Adin5 TOP15
APA_MUG_GEL_BUS BUS GELTOKIEN ESTALDURA	0,283	0,388				
APA_MUG_BID BIDEGORRI ESTALDURA				-0,290	-0,506	
APA_EK_ADIN ADINEKOENTZAKO ZENTROEN ESTALDURA ERAKARGARRITASUNA	0,293	0,295			0,426	
APA_EK_KIR KIROLDEGIEN ESTALDURA ERAKARGARRITASUNA	0,359	0,334				

Euskararen kale-erabilera adinaren arabera aztertuz gero, interesgarria da honakoari erreparatzea: batetik, auzoan egoteko aukerak du korrelazio positiborik indartsuena adin-talde gehien euskararen erabilerarekin. Bankuek ia adin-talde guztietan erakusten dute korrelazio hori, batez ere gazteengan. Salbuespena adinekoak dira [>65]. Espazio publikoak ere, era batean ala bestean, korrelazio positiboa du ia adin-talde guztiekin, adinekoen kasua salbuespen izanik beste behin. Gailendutako espazio publikoak, baina, ezberdinak dira adin-talde bakoitzean: haurren [0-14], gazteen [15-24] eta heldu nagusien [45-64] kasuan, espazio publikoaren azalera da eta, azken horien kasuan, komunitate espazioen estaldurak ere korrelazioa erakusten du; heldu gazteen kasuan [25-44], auzoko elkargune eta fluxuak eta herri mailako espazioen estaldurak du horien auzoko euskararen kale-erabilerarekin korrelaziorik indartsuena.

Bestalde, badaude bakarrik haurren kasuan estatistikoki garrantzitsuak izan diren hirigintza aldagaiak, hala nola, autobus geltokien estaldura, hezkuntza zentroen estaldura erakargarritasuna, hezkuntza ekipamenduen gertutasuna, haur jolasen eta eguneroko komertzioen bufferra, kiroldegien estaldura erakargarritasuna eta osasun zentroen estaldura erakargarritasuna. Laburbilduz, ikus daiteke auzotik pasatzeko aukera (APA), auzoan eguneroko bizitza egiteko aukera (AEBEA) eta pertsonekin auzoan topatzeko aukera (PATA) direla hirigintza ezaugarri horiek barne hartzen dituzten hirigintza aldagaiak eta, beraz, adin-talde honetako korrelazioak direla orokorrean geratzen denarekin antzekotasun handiena duten datuak (eta, horrez gain, osasun zentroen estaldura erakargarritasunak eta haur jolasen eta eguneroko komertzioen bufferrak haurren kasuan bakarrik erakusten dutela korrelazio esanguratsua).

Gainera, badaude korrelazio esanguratsua beste adin-talde batzuekin bakarrik erakusten duten hirigintza ezaugarriak ere. Heldu nagusien kasuan, adinekoentzako ekipamenduen gertutasunak eta biztanleria ez-aktiboak dute eragina; adinekoen kasuan, lehen hezkuntza ekipamenduen gertutasunak, emakumeen proportzioak eta denden zerbitzuen indizeak daukate.

Eragin positiboa duten hirigintza aldagaiekin bukatuz, esan beharra dago adinekoentzako zentroen estalduraren erakargarritasunak haurren eta heldu nagusien kasuekin erakusten duela korrelazio esanguratsua.

Eragin negatibora joz orain, azpimarragarria da horiek gutxiago direla eta ez dela estatistikoki esanguratsua den korrelaziorik ikusi adin-talde guztietan. Esaterako, bidegorrien estaldurak heldu gazte eta nagusiekin du korrelazioa, eta etxebizitza nagusien proportzioak heldu nagusiekin eta adinekoekin. Bukatzeko, administrazio zentroen estalduraren erakargarritasunak heldu gazteekin du korrelazioa.


4.2.3 Zein hirigintza ezaugarri daude euskalduntasun altueneko auzoetan? Eta baxuenetakoetan?

Azpiatal honek auzoko euskararen kale-erabilera (AEKE), euskalduntasun-indizea (GET: Gaitasuna – etxeko erabilera – transmisioa), eta hirigintza ezaugarriak jartzen ditu harremanetan. Aurrez aipatu da kale-erabilera eta GETen arteko aldeak ematen digula herri-dinamiken (funtzionamenduaren) berri, oinarrian honakoa ulertzen baita: bien arteko alde handia ematen

denean beste auzoetako biztanleak izan daitezke auzo horietako hiztunak eta, ondorioz, auzora joateko erakarmenean hirigintza parametroek eragin dezakete.

Hasierako grafikoak, 4.3.1 azpiatalean egin bezala, galdera horri erantzuteko, lehenik eta behin 15 korrelazio indartsuenei begiratuko zaie hurrengo taularen bitartez. Berdez ageri diren datuak euskararen erabilerarekiko positiboak dira; gorritz daudenak berriz, negatiboak. Bestalde, hirigintza ezaugarrien kodigoen ondoan izartxoak daramaten datuak dira soilik estatistikoki esanguratsuak.

39. *Grafikoa: AEKE-GET2 eta aldagai sozio-urbanistikoen arteko korrelazioen top15 grafikoa*



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak egina.

Beste behin, goian erantsitako grafikoa hobeto ulertze bidera, ondorengo taulak hiru zehaztasun gehiago ematen ditu. Alde batetik, estatistikoki esanguratsuak diren datuen zenbakiak erakusten ditu, eta, bestetik, datu horren parte diren hirigintza ezaugarriak zein hirigintza aldagairen barruan dauden ere begiratzen du. Azkenik, eta korrelazio indartsuetan dagoenez analisi honen fokua, korrelazio horiek zenbakitu egin dira ondorengo taulan, korrelazio indartsuenei leko balioa dute (estatistikoki esanguratsuak diren datuen barnean, betiere).

40. Taula: GET2 eta aldagai sozio-urbanistikoaren arteko korrelazio nagusien taula.

			GET2 vs Hirigintza aldagaiak TOP 15	
APA	APA_MUG_GEL_BUS	BUS GELTOKIEN ESTALDURA		
	APA_MUG_BID	BIDEGORRI ESTALDURA		
	APA_EK_ADIN	ADINEKOENTZAKO ZENTROEN ESTALDURA ERAKARGARRITASUNA		
	APA_EK_KIR	KIROLDEGIEN ESTALDURA ERAKARGARRITASUNA		
	APA_EK_ADMIN	ADMINISTRAZIO ZENTROEN ESTALDURA ERAKARGARRITASUNA	-0,333	3
	APA_EK_OSA	OSASUN ZENTROEN ESTALDURA ERAKARGARRITASUNA		
AI	AI_BIZ_EMAK	EMAKUME PROPORZIOA		
	AI_ETXE_NAG	ETXEBIZITZA NAGUSIETAN PROPORZIOA		
	AI_ETXEB_DENTS	ETXEBIZITZA DENTSITATEA (kop/az)	-0,314	4
	AI_DENTS		-0,28	
	AI_GIZ-EZAK	EZ AKTIBOAK PROPORZIOA		
AEBEA	AEBEA_EK_OSA	OSASUN EKIPAMENDUEN GERTUTASUNA	-0,367	2
	AEBEA_EK_1HEZK	1.HEZKUNTZA EKIPAMENDUEN GERTUTASUNA		
	AEBEA_EK_ADMIN	ADMINISTRAZIO EKIPAMENDUEN GERTUTASUNA	-0,385	1
	AEBEA_EK_ADIN	ADINEKOENTZAKO EKIPAMENDUEN GERTUTASUNA		
	AEBEA_EP_HERRI	HERRI MAILAKO ESPAZIOEN ESTALDURA		
	AEBEA_EP_KOM	KOMUNITATE MAILAKO ESPAZIOEN ESTALDURA		
	AEBEA_ZERKOK_1DEND	1.MAILAKO DENDEN ESTALDURA		
AEA	AEA_EPKAN_EPAZ	ESPAZIO PUBLIKO AZALERA 100 BIZTANLEKIKO	0,361	1
	AEA_EPKAN_BANAZ	BANKU KOPURUA AUZO AZALERARKIKO		
	AEA_APKAL_BAN100	BANKU KOPURUA 100 BIZTANLEKO	0,28	
	AEA _EPKAL_ELKARFLUX	AUZOKO ELKARGUNE ETA FLUXUEN KALITATEA		
PATA	PATA_EP_HAURDEN	HAUR JOLASAK-EGUNEROKO KOMERTZIOEN BUFERRA		

Iturria: EHUKO BOTOI ikerketa-taldeak egina.

Datuek erakusten dute GET2 positiboan estatistikoki esanguratsuenak diren hirigintza aldagaiak honakoak direla:

1. Espazio publikoaren azalera 100 biztanleretik (AEA)
2. Banku kopurua 100 biztanleretik (AEA)¹⁹

Auzoan egoteko aukera (AEA) baldintzatzen duten hirigintza ezaugarriek, espazio publiko kantitateak eta kalitateak zehazki, dute korrelazio positiborik indartsuena GET2 indizearekin (1, 2).

Era berean, honakoak dira GET2 negatiboan estatistikoki esanguratsuenak diren hirigintza aldagaiak:

1. Administrazio ekipamenduen gertutasuna (AEBEA)
2. Osasun ekipamenduen gertutasuna (AEBEA)
3. Administrazio zentroyen estaldura erakargarritasuna (APA)
4. Etxebizitza dentsitatea (AI)
5. Dentsitatea (AI)²⁰

Beraz, auzoan eguneroko bizitza egiteko aukera (AEBEA) baldintzatzen duten hirigintza aldagaiak, (administrazio eta osasun ekipamenduen gertutasunak, zehazki) dute GET2rekin korrelazio negatiborik indartsuena (1, 2). Horren ostean, auzotik pasatzeko aukerak (APA) eta, zehazki, administrazio zentroyen estaldura erakargarritasunak du ondorengo korrelazio negatibo indartsuena GET2rekin. Azkenik, auzoaren izaera (AI) baldintzatzen duten eta dentsitatearekin lotuta dauden hirigintza ezaugarriek ere baldintzatzen dute GET2 negatiboa (4, 5).

4.2.4 Aldagai adierazgarrienen zeharkako irakurketa

Azken azpiatal honek aurrez esandakoa osotasunean aztertuko du:

41. Taula: AEKE punt, bilakaera, GET2 eta aldagai sozio-urbanistikoen arteko korrelazio nagusien taula.

¹⁹ Datu hau ez da estatistikoki esanguratsua izateko mailara iristen, baina oso gertu dago eta, beraz, azterketa honetarako kontuan hartu da.

²⁰ Datu hau ez da estatistikoki esanguratsua izateko mailara iristen, baina oso gertu dago eta, beraz, azterketa honetarako kontuan hartu da.

		HIRIGINTZA ALDAGAIEKIKO KORRELAZIOA		
		AEKE PUNT TOP 15	GET2 vs Hirigintza aldagaiak TOP 15	AEKE PUNT ALD [10 urte] TOP 15
APA	APA_MUG_GEL_BUS BUS GELTOKIEN ESTALDURA	0,283		0,529
	APA_MUG_BID BIDEGORRI ESTALDURA			0,425
	APA_EK_ADIN ADINEKOENTZAKO ZENTROEN ESTALDURA ERAKARGARRITASUNA	0,293		
	APA_EK_KIR KIROLDEGIEN ESTALDURA ERAKARGARRITASUNA	0,359		0,341
	APA_EK_ADMIN ADMINISTRAZIO ZENTROEN ESTALDURA ERAKARGARRITASUNA		-0,333	
	APA_EK_OSA OSASUN ZENTROEN ESTALDURA ERAKARGARRITASUNA			
AI	AI_BIZ_EMAK EMAKUME PROPORZIOA	0,285		
	AI_ETXE_NAG ETXEBIZITZA NAGUSIETAN PROPORZIOA	-0,311		
	AI_ETXEB_DENTS ETXEBIZITZA DENSITATEA (kop/az)		-0,314	
	AI_DENTS		-0,28	
	AI_GIZ-EZAK EZ AKTIBOAK PROPORZIOA		0,301	
AEBEA	AEBEA_EK_OSA OSASUN EKIPAMENDUEN GERTUTASUNA 1. m= Osasun zentroak eta Anbulatorioak	-0,291	-0,367	
	AEBEA_EK_1HEZK 1.HEZKUNTZA EKIPAMENDUEN GERTUTASUNA	0,359		
	AEBEA_EK_ADMIN ADMINISTRAZIO EKIPAMENDUEN GERTUTASUNA		-0,385	
	AEBEA_EK_ADIN ADINEKOENTZAKO EKIPAMENDUEN GERTUTASUNA			
	AEBEA_EP_HERRI HERRI MAILAKO ESPAZIOEN ESTALDURA			
	AEBEA_EP_KOM KOMUNITATE MAILAKO ESPAZIOEN ESTALDURA			
	AEBEA_ZERKOK_1DEND 1.MAILAKO DENDEN ESTALDURA			
AEA	AEA_EPKAN_EPAZ ESPAZIO PUBLIKO AZALERA 100 BIZTANLEKIKO	0,360	0,361	
	AEA_EPKAN_BANAZ BANKU KOPURUA AUZO AZALERARKIKO			
	AEA_APKAL_BAN100 BANKU KOPURUA 100 BIZTANLEKO	0,406	0,28	
	AEA_EPKAL_ELKARFLUX AUZOKO ELKARGUNE ETA FLUXUEN KALITATEA			
PATA	PATA_EP_HAURDEN HAUR JOLASAK-EGUNEROKO KOMERTZIOEN BUFERRA			0,378

Iturria: EHUKO BOTOI ikerketa-taldeak egina.

Euskararen kale-erabilerarekin positiboki korrelazio indartsua duten hirigintza aldagaiak hirigintza zaintzailearen barruan txertatu daitezkeela esan daiteke. Hasteko, hirian ibiltzeak independentzia eskatzen duen heinean (Hernández-García, 1997/1998), inguruko beharrik handiena duten adin-taldeek behar dituzten espazioak ere zaintzearen garrantzia kontuan izan duen hirigintzatik uler daitezke. Bestalde, baina interdependentziaren egokitasuna atzean utzi gabe, garraio publikoak gutxiago kutsatzen du eta adin-taldeetan, klase sozialetan, generoetan eta aniztasun funtzionalean oinarrituta gizarte-taldeak bereizteko mugak lausotzeko aukera ematen du (Valdivia, 2021). Beste era batera esanda, autobusez jende gehiago ibil daiteke kotxez baino. Gainera, esan bezala, kalearen erabilera produktibaterara lotzen du hirigintza hegemonikoak eta, beraz, kalearen erabilera ez-produktiboa egiteko aukerak ere pertsonak eta beraien arteko harremanak garatzeko eta, beste behin, zaintzeko bidea zabaltzen du. Ezin daiteke aipatu gabe utzi aurreko bi puntuetan erdigunean egon dela publikotasunaren ideia (espazioari eta zerbitzuei lotuta). Aldiz, jabetza pribatuaren ideiarekin lotzen den hirigintza aldagaiaren eraginak euskararen erabilera negatiboa dakarrela ikusi da.

Kiroldegiak ere azpimarragarriak dira ikerketa honetan. Osasunarekin lotzen diren zerbitzuak dira, nahiz eta osasun kontzeptua aldatze-bidean dagoen. Kirola egitea norberaren zaintza garatzea da, baina geroz eta lotuago dago irudi estetikoari eta indibidualtasunari. Beraz, datuak datu estatistikoak direnez, ezin dezakegu ondorio garbirik atera norabide batean ala bestean.

Gainera, emakume kopurua ere azpimarragarria da. Jakina denez, hirigintza oso lotuta dago genero rolean eta genero rolen eta sexu biologikoen artean harreman hegemonikoak ezartzen dira egunerokotasunean. Emakumeen eta hizkuntza gutxituen artean bi joera nagusi identifikatu izan ohi dituzte ikerketek: alde batetik, kasu batzuetan gehiago erabiltzen dute hizkuntza gutxituaren zaintza historikoki horiena izan baita, era horretan, esleitutako genero rolaekin betez (Altuna, 2023; Heller eta McElhinny, 2017), eta bestetik, hizkuntza hegemonikora ere jo izan dute beren estatusa hobetze bidera (Altuna, 2023). Beraz, ezin dezakegu esan ea joera horietakoren batean txertatzen den gure datua, datu estatistikoa delako. Aldi berean, goiko taulan txertatzen den datua auzoan bizi direnen emakumeena da, eta puntu honetara iritsita emakumeen euskararen kale-erabilerari ere erreparatu beharko litzaioke. Oro har, beti horrela ez bada ere, azken neurketetan euskarak presentzia handiagoa erakutsi du emakumeen artean, gizonen artean baino. Aldearen norabidea bat dator ohiko joerarekin, bi taldeen artean aldea izatea ohiko joera bilakatu baita azken urteotan Euskal Herriko kaleetan (Altuna Ramírez eta Hernández García, 2018). Egile horiek aipatzen dutenez, “datu horien interpretaziorako azalpen serio eta borobil bat ematea zaila izan arren”, iradoki daiteke “euskara gizarteak inposatzen dituen generoen arteko tentsioaren erdigunean agertzen dela”, eta “genero sistemak garai eta gune zehatz batzuetan euskara eta emakumeen arteko lotura ezarri du[ela]”. Hala, ondorioztatu daiteke “modu sinbolikoan zein praktikoan euskararen *feminizazioa* gertatu d[ela], nahiz eta kontrakoa ere gertatu daitekeen” (Altuna Ramírez eta Hernández García, 2018, 139. orr). Euskararen erabilerak genero-rolean duen harremana euskal soziolinguistikan gehiago sakondu beharreko gaia da.

Adinari erreparatuz, honakoa ondorioztatu daiteke: eragin positiboa duten aldagai gehienak haurren kasuan dira estatistikoki esanguratsuak. Hori bat dator euskararen kale-erabilera


handiena egiten duen adin-taldearen datuekin, hau da, haurrak dira euskaraz gehien aritzen direnak. Datu hori hizkuntza-ideologiek indartzen eta erreproduzitzen dute: hizkuntza gutxitu asko, tartean euskara, haurrak sozializatzeko erabiltzen dira, baina behin horiek nagusitzean eta hiritar produktibo eta funtzional bihurtu behar direnean, hizkuntza hegemonikoranzko muda gertatzen da, gizartearen aurrean beste era batean agertzeko. Gainera, haurrek, gorago esan bezala, zaindu beharreko adin-taldea osatzen dute eta hori bat dator zaintzara bideratutako hirigintza ezaugarriak horien hizkuntza-erabilera gehien baldintzatzen dutenak izatearekin. Laburbilduz, zaintzara bideratutako hirigintza aldagaiek dute euskararen erabilera positiboan eraginik handiena aztergai izan ditugun herrietan, eta hori, batez ere, haurrak tartean daudenean gertatzen da.

Bestalde, GET2ri erreparatzen bazaio eta hori orain arteko datuekin alderatzen bada, antzekotasunak ikusten dira: adibidez, auzoan egoteko aukerak korrelazio indartsu positiboak ditu, hau da, kalearen edota espazioaren erabilera ez-produktiboak euskararen erabilera handitzearekin du korrelazioa aztertutako herrietan.

Harrigarriagoa edota ezberdintasun handiena adierazten duena zera da: osasun ekipamenduen gertutasunarekin batera, administrazioaren erakargarritasunak eta gertutasunak GET2rekin korrelazio negatiboa erakutsi duela. Datu hori honakoak azaldu dezake: herritar guztiek egin behar dute zerbitzu horien erabilera (administrazioaren kasuan, batez ere adinez nagusikoek), eta erdi-mailako herrietan, herritar guztiek espazio berberetara jo behar dute horretarako, ekintzak burutzeko beraien hizkuntza-gaitasunak eta -ohiturak baliatuz. Hori lehenago esandako ideia batekin lotzen da: hizkuntzen kale-erabilerak ez du bakarrik esaten zein hizkuntza hitz egiten duten hiztunek; zein hiztun mota non egon daitekeen ere erakusten du. Beste modu batera esanda, kiroldegietan egon *daitezkeenak* eta administrazioa edota osasun zentroetara jo *behar* dutenak ez dira talde guztiz berdinak. Horrek zera adierazi dezake: derrigorrezko eta aukerako espazioetan hizkuntzaren kale-erabilera ezberdinak entzuten badira, baliteke hirigintza zaintzaileko elementuak (aukerakoak izan ohi direnak) biztanleriaren zati bati bakarrik begira egotea (prezioak, ordutegiak eta ohiturak direla-eta), eta beraz guztiz zaintzaileak ez izatea.

Amaitzeko, ondorengo taulek atal honetan aipatutako hirigintza ezaugarri batzuen kokapena erakusten dute:

42. irudia: Aldagai sozio-urbanistikoek herrien irudiak.



Iturria: EHuko BOTOI ikerketa-taldeak egina.

4.3 AUZOEN ETA HERRIEN ARTEKO DINAMIKA SOZIOLINGUISTIKOAK

Metodologiaren atalean azaldu bezala, dinamika soziolinguistikoak ezagutzeko auzoetako eta udalerrietako bi datu kuantitatibo aztertu dira: batetik (eta nagusiki), euskararen kale-erabilera, eta bestetik, Gaitasuna-Erabilera-Transmisioa (GET) indizea. Atal honetan, bi datuen analisisan oinarrituta hiru azpiatal landuko dira: batetik, 4.3.1 atalean kale-erabilera eta GET indize orokorrak aurkeztuko dira auzoz-auzo eta irakurketak egingo dira auzo-tipologia soziolinguistikoei erreferentzia eginez; bestetik, 4.3.2 atalean auzo-tipologia soziolinguistikoak aurkeztuko dira; eta azkenik, 4.3.3 atalean, 7 auzo aukeratu dira euskararen egoera eta hirigintza ezaugarrien arteko harremana xeheago aztertzeko.

4.3.1 Dinamika orokorrak: auzoetako kale-erabilera eta GET indizea²¹

Metodologia atalean azaldu bezala, GET indizeak nolabait kale-erabilera baldintzatzen du; horregatik, euskararen erabilera GET indizea baino altuagoa duten herriei (edo auzoei) *baldintzaz gaindikoak* deitu zaie, eta erabilera baxuagoa dutenei *baldintzaz azpikoak*. Beheko taulan jaso da herri bakoitzaren egoera zein den. Ezaugarri hau kontuan hartuta egituratu dira hurrengo azpiataletako irakurketak.

43. Taula: Baldintzaz gaindiko eta baldintzaz azpiko izaera: Gernika-Lumo, Hernani, Tolosa, Zarautz eta Zornotza.

Herria	Euskararen kaleko erabilera – GET indizea	AUZOAK: Euskararen erabilera GET indizearekiko
TOLOSA	7,5	BALDINTZAZ GAINDIKOA
ZARAUTZ	4,5	
ZORNOTZA	-14,5	BALDINTZAZ AZPIKOA
HERNANI	-9,7	
GERNIKA-LUMO	-6,6	

Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

²¹ Gogoratu behar da atal honetan akats-tarte handia duten auzoak (alegia, 3.multzokoak) kanpo utzi direla. Hortaz, guztira 35 auzo aztertu dira, eta kanpo utzi dira honako hauek: Hernanin Florida-Etxeberria, Elizatxo-Portu, Santa Barbara eta Zikuñaga; Tolosan Amarotz, Iurramendi, Izaskun eta Larramendi; Zarautzen Zelaieta; eta Zornotzan Andradi, Arraibiondo, Enrike Renteria, Jauregizahar, Ogenbarrena. Auzo horien datuak analisi estatistiko orokorrerako besterik ez dira erabili.

4.3.1.1 Auzo gainerabiltzaileen eta azpierzabiltzaileen analisisa

Lehenik eta behin, auzoko euskaren kale-erabilera alderatu dugu bakoitzaren udalerriko erabilera orokorrarekin; analisi hori oinarri hartuta, metodologia atalean azaldu bezala, auzoko erabilera herrikoaren gaineratik duten auzoei *gainerabiltzaile* deitu diegu, eta azpitik dutenei *azpierzabiltzaile*. Hala, nabarmendu behar da ezberdintasun handia dagoela herriko erabilera orokorra gairatzen duten auzoen kopurua eta gairatzen ez dutenen artean. Dena dela, **auzo gehienak azpierzabiltzaileak dira**. Hala, 35 auzotatik 12 auzo besterik ez dira *gainerabiltzaileak*: Gernika-Lumon eta Zornotzan auzo banatan (Gernika-Lumon Renteria Lorategieta eta Zornotzan Larrea); Tolosan bitan (Iurre eta San Esteban); eta, Zarautzen eta Hernanin launa auzotan (Zarautzen Aritzabalde, Azken Portu, San Pelaio eta Zelaiondo; eta, Hernanin Ereñozu, Karobieta-Aristazabal, Kaxkoa eta Marieluts-Latsunbe). Beheko taulan ikus daitezke herrietako eta auzoetako euskararen kale-erabileraren ehunekoak.


44. Taula: Euskararen KALE-ERABILERA auzoen arabera. Gernika-Lumo, Hernani, Tolosa, Zarautz eta Zornotza. 2021 (%)


GERNIKA-LUMO							
Guztira 44,8	Santa Ana	Erdigunea	Kalzada-San Kristobal	Lurgorri	Renteria-Lorategieta	Txorraburu-San Juan	Zearreta-Mestika
	43,2	41,4	40,7	42,4	45,9	36,5	33,6
HERNANI							
Guztira 33,3	Antziola	Erdigunea	Ereñozu	Florida-Erdigunea	Florida-Sagastialde	Karabel	Karobieta-Aristizabal
	30,5	32,6	79,8	31,8	23,3	16,4	41,6
	Kaxkoa	Lizeaga	Marieluts-Latsunbe				
38,0	31,4	35,0					
TOLOSA							
Guztira 52,3	Alde Zaharra	Alliri-Araba	Berazubi	Erdigunea	Iurre	San Esteban	
	51,4	41,2	46,8	52,3	64,1	69,0	
ZARAUTZ							
Guztira 50,7	Alde Zaharra	Aritzabalde	Azken Portu	Itsasmendi	Mendilaueta	San Pelaio	Zelaiondo
	45,6	74,9	67,4	49,2	36,2	65,0	63,1
ZORNOTZA							
Guztira 23,4	Erdigunea	Ixer-San Pedro	Larrea	Nafarroa	Zubikurtze-Zubizabala		
	20,6	21,4	36,4	20,3	21,4		

Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

Orokorrean, esan dezakegu, herri guztiak aintzat hartuta, Erdigune Funtzionaleko auzo gehienak (12 auzotatik 9 auzo) eta auzo zahar gehienak (5 auzotatik 4 auzo) *azpierabiltzaileak* direla.

45. Taula: *Gain- eta azpi-erabiltzaileko auzoak eta hirigintza klusterrak*





Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoak

Oharra: datuek sendotasunik ez badute (3.multz), koloreztatu gabe daude.

4.3.1.2 Auzo euskaldunagoen eta auzo erdaldunagoen analisisa

Auzoetako biztanleen egoera soziolinguistikoa deskribatzen duen GET indizeari erreparatu badiogu eta bakoitzaren udalerriko GET indize orokorrarekin konparatu badugu, **auzo gehienak erdaldunagoak dira** (udalerriko GET indizea baino baxuagoa dute). Izan ere, auzo *euskaldunagoak* dira aztertu diren 35 auzotatik 10 auzo: Zornotzan bi (Erdigunea eta larrea); Hernanin hiru (Ereñozu, Karobieta-Aristizabal eta Kaxkoan); Gernika-Lumon bi (Erdigunea eta Txorraburu-San Juan); Tolosan beste bi (Alliri-Araba eta lurre); eta Zarautzen bakarra (San Pelaio). Ikus beheko taula:



46. Taula: GET indizea auzoen arabera. Gernika-Lumo, Hernani, Tolosa, Zarautz eta Zornotza. 2021 (%).

GERNIKA-LUMO							
Guztira 50,2	Santa Ana	Erdigunea	Kalzada-San Kristobal	Lurgorri	Renteria-Lorategieta	Txorraburu-San Juan	Zearreta-Mestika
	48,5	51,9	49,8	47,8	42,2	55,7	47,8
HERNANI							
Guztira 42,0	Antziola	Erdigunea	Ereñozu	Florida-Erdigunea	Florida-Sagastialde	Karabel	Karobieta-Aristizabal
	35,8	38,1	65,1	40,1	34,3	37,0	47,9
	Kaxkoa	Lizeaga	Marieluts-Latsunbe				
45,5	36,1	38,4					
TOLOSA							
Guztira 52,3	Alde Zaharra	Alliri-Araba	Berazubi	Erdigunea	lurre	San Esteban	
	42,7	57,4	46,8	53,0	61,9	42,4	
ZARAUTZ							
Guztira 54,7	Alde Zaharra	Aritzatalde	Azken Portu	Itsasmendi	Mendilaueta	San Pelaio	Zelaiondo
	52,6	51,3	53,9	45,6	53,4	58,7	54,1
ZORNOTZA							
Guztira 35,9	Erdigunea	Ixer-San Pedro	Larrea	Nafarroa	Zubikurtze-Zubizabala		
	39,4	29,6	39,0	36,1	29		

Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

Aurreko bi atalen emaitzak alderatuta ikusi dugu auzo *azpierabiltzailea* eta *erdaldunagoa*, edota *gainerabiltzailea euskaldunagoa* korrelazioa ez dela agerikoa, ez baita beti gertatzen. Hurrengo atalean sakonduko dugu ondorio horretan.

47. Taula: Euskaldunago eta erdaldunagoko auzoak eta hirigintza klusterrak



GETa vs GETH
 Euskaldunago
 Erdaldunago

Hirigintza klusterrak:
 Erdigune funtzionala
 Bestak

Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldek sortutako planoak


Oharra: datuek sendotasunik ez badute (3.multz)0, koloreztatu gabe daude.

4.3.1.3 Baldintzaz gaindiko eta baldintzaz azpiko auzoen analisia


Herri bakoitzeko auzoak baldintzaz gaindiko edo azpiko diren aztertu da atal honetan. Tolosa eta Zarautz dira *baldintzaz gaindiko* herriak. Bi herrietan banaketa orekatua dago *baldintzaz gaindiko* eta *azpiko* auzoen artean, eta Erdigune Funtzionaleko auzoetan zein besteetan oreka hau mantentzen da (bi herrietan auzo zaharrena *azpierabiltzailea* da). Aldiz, *baldintzaz azpiko* herriak aztertuta, Gernika-Lumo eta Zornotzan, Erdigune Funtzionaleko²² auzo guztiak *azpierabiltzaileak* dira; Hernanin, berriz, auzo zaharrena (Kaxkoa) *gainerabiltzailea* da eta beste bi auzoak *azpierabiltzaileak* dira. Erdigune funtzionalaz aparteko beste auzoetan, egoera pluralagoa da eta ez dago batzuen eta besteen kokapenarekiko patroir argirik.

Auzoei erreparatuta, ia guztiak *baldintzaz azpikoak* dira, eta *baldintzaz gaindikoak* diren gehienak oso periferikoak dira —adibidez, Ereñozu Hernanin— edo 1. hezkuntza edo/eta kirol-instalazioen presentziak eragiten duten auzoak dira —Gernika-Lumon, Zearreta-Mestika eta Renteria-Lorategieta-. Beraz, herri dinamikien ezaugarria da Erdigune Funtzionaletako auzo guztiak *baldintzaz azpikoak* direla.

48. Taula: Baldintza-gaindiko edo – azpiko auzoak eta hirigintza klusterrak



²² 4.1.3 atalean aurkeztu eta deskribatu dira 2 hirigintza klusterrak: “Erdigune Funtzionalak” eta “Beste Auzoak”.



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoak

Oharra: datuek sendotasunik ez badute (3.multz) koloreztatu gabe daude.

Baldintza azpiko herrietako auzoak aztertuta, Gernika-Lumo eta Zornotzaren kasuan, Erdigune Funtzionaleko auzo guztiak *euskaldunagoak* dira herria baino eta Hernanin, aldiz, auzo zaharrena (Kaxkoa) herria baino *euskaldunagoa* bada ere, Erdigune Funtzionala osatzen duten beste bi auzoak —Erdigunea eta Lizeaga— *erdaldunagoak* dira. Beraz, kasu guztietan betetzen den araua honakoa da: herriko auzo zaharrena herria baino *euskaldunagoa* da. Erdigune funtzionalaz besteko auzoak aztertzen badira, orokorrean, herria baino *erdaldunagoak* diren auzo gehiago dago *euskaldunagoekin* alderatuta: Gernika-Lumon guztiak *erdaldunagoak* edo parekoak dira; eta Zornotza eta Hernanin aipatutako banaketa orokorra mantentzen da eta, ez dago batzuen eta besteen kokapenarekiko patroir argirik.


Aldiz, *Baldintza gaindiko* herrietan [Tolosa eta Zarautz], Erdigune Funtzionaleko auzoetan errealitatea askotarikoa da baina bi herrietako alde zaharrak herria baino *erdaldunagoak* dira. Gainerako auzoei erreparatuz gero, banaketa nahiko orekatua da herria baino *erdaldunago* eta *euskaldunago* diren auzoen artean baina, Zarautzen nolabaiteko zonifikazioa gertatzen bada ere

— ipar (kosta, malekoi...) eta hego mugetako auzoak *erdaldunago* eta besteak *euskaldunago*—, ez dago batzuen eta besteen kokapenarekiko irakurketa argirik.

Halaber, nabarmentzekoa da *baldintzaz azpiko* herrietan auzo zaharrena euskaldunagoa dela beti, eta *baldintzaz gaindiko*a herrietan auzo zaharrena erdaldunagoa dela.

Amaitzeko, aurretik aipatu dugu auzo *azpierabiltzailea* eta *erdaldunagoa*, edota *gainerabiltzailea euskaldunagoa* korrelazioa ez dela agerikoa. Izan ere, *baldintzaz azpiko* herrietako auzoei erreparatuta, korrelazioan ez dago pauta garbirik; aldiz, *baldintzaz gaindiko* herrietan, Erdigune Funtzionaleko auzoetan orokorrean korrelazio hau bete egiten da (6 auzotatik 5etan gertatzen da. Salbuespena da Tolosako Alliri -Araba). Beste auzoetan korrelazioa ez da hain orokorra: Zarautzen auzo batean ez da betetzen (bi auzotan baloreak parean daude) eta Tolosan sei auzotatik hirutan betetzen da.

49. Taula: Gain- eta azpi-erabiltzaileko, euskaldun eta erdaldunagoko auzoak eta hirigintza klusterrak




AEKEa vs AEKEh
 Gain-erabiltzailea
 Azpi-erabiltzailea

GETa vs GETh
 Euskaldunago
 Erdaldunago

Hirigintza klusterrak:
 Erdigune funtzionala
 Besteak

Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoak

50. Taula: Gain- eta azpi-erabiltzaileko, euskaldun eta erdaldunagoko auzoak eta hirigintza klusterrak



Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoak

oharra:

datuek sendotasunik ez badute (3.multz), koloreztatu gabe daude.

4.3.2 Auzo-tipologia soziolinguistikoak

Esan bezala, auzoetako errealitate soziolinguistikoa ezagutzeko **auzo-tipologiak** sortu dira. Horretarako bi irizpide baliatu dira: batetik, kale-erabileraren eta GET indizearen azterketa; eta bestetik, auzoen eta udalerrien errealitate soziolinguistikoen alderaketa. Irizpide horien konbinazioak eginez ondorengo hiru auzo-tipologia sortu dira. Segidan, auzo guztien datuak aurkeztu (ikus segidako taula) eta irakurtzen dira.

51. Taula: Auzo-tipologia linguistikoen ezaugarriak.

AUZOA	Hirigintza klusterra	Baldintza azpiko / gaineko [GET2]	Euskaldun / erdaldun GET [auzoa vs herria]	Gain- / azpi-erabiltzaile AEKE [auzoa vs herria]	AEKE ald.	Auzo tipol.
ZARAUTZ		% 4,5	% 54	% 58,5		
Alde Zaharra	Erdig. fun.	-7,0	53	45,6	-6,4	6
Mendilaueta	Besteak	-17,2	53	36,2	-3,2	15
Zelaieta	Besteak	9,5	57	66,7	11,4	8
San Pelaio	Besteak	6,3	59	65,0	1,1	8
Vista Alegre_Salbide	Besteak		54			
Azken Portu_Salberdin	Erdig. fun.	13,5	54	67,4	15,6	1
Zelaiondo	Besteak	9,0	54	63,1	12,0	
Aritzatalde	Besteak	23,6	51	74,9	23,4	9
Itsasmendi	Besteak	3,6	46	49,2	1,7	10
Talaimendi	Besteak		58			
ZORNOTZA		% -14,5	% 35	% 23,40		
Larrea	Besteak	-2,6	39	36,4		11
Ixer_San Pedro	Besteak	-8,2	30	21,4	-2,0	14
Erdigunea	Erdig. fun.	-18,8	39	20,6	-2,3	5
Arraibiondo	Besteak	-22,6	40	17,5	-5,1	12
Ogenbarrena	Besteak	-12,4	21	8,7	-14,7	15
Zubipunte	Besteak		31			
Zubikurtze_Zubizabala	Besteak	-7,9	29	21,4	-2,0	14
Nafarroa	Besteak	-15,8	36	20,3	-3,1	13
Andradi	Besteak	-10,7	30	19,1	-3,5	15
Enrike Renteria	Besteak	-16,7	36	19,6	-3,8	12
Jauregizahar	Besteak	-8,6	29	20,0		15
HERNANI		%-9,7	% 42	% 33,3		
Marieluts_Latsunbe	Besteak	-3,4	38	35,0	-6,7	14
Antziola	Besteak	-5,3	36	30,5	-8,2	15
Florida_Sagastialde	Besteak	-11,0	34	23,3	-10,7	15

Florida_Etxeberri	Besteak	-1,7	33	31,5	0,1	15
Karobieta_Aristizabal	Besteak	-6,3	48	41,6	-1,0	11
Erdigunea	Erdig. fun.	-5,5	38	32,6	-8,5	7
Florida_Erdigunea	Besteak	-8,3	40	31,8	-4,0	15
Kaxkoa	Erdig. fun.	-7,5	46	38,0	-2,5	3
Karabel	Besteak	-20,6	37	16,4	-26,0	15
Santa Barbara	Besteak	-16,5	55	38,1	18,5	11
Lizeaga	Erdig. fun.	-4,7	36	31,4	8,1	6
Elizatzxo_Portu	Besteak	-4,6	40	35,9	-4,8	14
Zikuñaga	Besteak		28		-42,4	
Ereñozu	Besteak	14,7	65	79,8	-14,3	8
GERNIKA-LUMO		% -6,6	% 50	% 43,4		
Santa Ana	Besteak	-5,3	48	43,2	-8,4	16
Txorraburu_San Juan	Erdig. fun.	-19,2	56	36,5	-13,2	4
Renteria_Lorategieta	Besteak	3,7	42	45,9	8,5	9
Zearreta_Mestika	Besteak	5,8	48	53,6	-11,5	9
Erdigunea	Erdig. fun.	-10,5	52	41,4	-7,9	4
Kalzada_San Kristobal	Besteak	-9,1	50	40,7	-18,7	15
Lurgorri	Besteak	-5,4	48	42,4	-16,0	16
TOLOSA			% 51	% 58,5		
Larramendi	Besteak	-21,9	55	33,0		12
Alde Zaharra_Belate	Erdig. fun.	8,7	43	51,4		2
Erdigunea	Erdig. fun.	-0,7	53	52,3		4
Alliri_Araba	Erdig. fun.	-16,2	57	41,2		4
San Esteban_Ttorre	Besteak	26,6	42	69,0		9
Kondeko Aldapa_Izaskun	Besteak	-27,5	52	24,1		12
Berazubi	Besteak		47	46,8		10
Iurre	Besteak	2,2	62	64,1		8
Iurramendi	Besteak	22,6	58	81,0		8
Amarotz	Besteak	-13,6	46	32,7		15

Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldea sortutako planoak

Datu soziolinguistikoei erreparatu, GET2 adierazlean ageri den joerak erakusten du auzo gehienek balio negatiboa dutela; alegia, oro har, baldintzaz azpiko egoeran daudela. Joera hori bereziki nabarmena da Zornotzan, non ia bloke osoak "azpiko" kolore-kodea hartzen duen. Tolosan, aldiz, oreka handiagoa ikusten da: baldintzaz azpikoak eta gainekoak antzeko proportzioan ageri dira. Azkenik, Zarautz da joera orokor horretatik aldentzen den salbuespena.

Ondoren, GET indizera pasatuta, taulak berriz ere gehiengo baten norabidea erakusten du: auzo askotan GET negatiboa da, eta, beraz, auzo horiek profil erdaldunago batera lerratzen dira. Hemen, ordea, salbuespena Tolosa da: bertan, balioek bestelako joera hartzen dute eta auzoen osaera ez da hain “negatiboki” pilatzen. Zornotzan, berriz, auzoen arteko banaketa parekatuagoa ageri da.

Hirugarren multzoa, AEKE adierazlea, pixka bat bestelakoa da: hemen ez da hain erraza alde bakarreko pilaketa bat ikustea. Oro har, gainerabiltzaileen eta azpierzabiltzaileen kopuruak nahiko parekatuta daude, nahiz eta joera pixka bat azpi-erabiltzaileen alde makurtzen den. Herri bakoitzari begiratuta ere, gehienetan azpi-erabiltzaileak nagusitzen dira. Hala ere, Zarautz berriro ageri da salbuespen moduan; eta Hernanin, bi kategoriak ia orekan daude.

Hiru ardatz edota tipologia horiek —*klusterra*, *GET2* eta *GET* (eta horien gainean *AEKE*)— elkarrekin gurutzatzen direnean, auzo-tipologia ezberdinak sortzen dira. Azken zutabeak hori jasotzen du: auzo bakoitza zein familiatakoa den, zenbakiz kodetuta. Eta bertan agertzen da taulako emaitzik esanguratsuenak: familia guztiak ez dira berdin hedatzen. Aitzitik, batzuk oso sarri ageri dira eta beste batzuk ia salbuespen hutsak dira. Zehazki, auzo gehienak —10 auzo— 15. familian kokatzen dira: baldintzaz azpikoak, erdaldunak eta azpierzabiltzaileak dira. Irudi hori bat dator hizkuntza gutxituen egoerari buruzko azalpenarekin: hizkuntza “txiki” bihurtzen da, orain neurri batean eta gutxitasunera eramaten duten baldintza sozio-politikoak erreparatu gabe, erabilera sozial mugatua duelako eta gaitasun zein transmisio-baldintzak ez dituelako bermatuta.

lido berean, eta tartean dauden auzoetan arreta jarritz, 4 auzo-tipologia (linguistikoki) daude bakoitza 4 auzorekin. Horiek 4, 9, 12 eta 14 familiak dira. 16 auzo horietako 8 bai Erdigune Funtzionaletan bai hortik kanpo dauden baldintzaz azpiko auzo euskaldun azpierzabiltzaileak dira (4 eta 12 familietakoak) eta, beraz, joera soziolinguistikoki osatzen duten auzoen kopurua ere deigarria da (kuantitatiboki). Datu hori bat dator Euskal Herriko egoera soziolinguistikokoarekin: gero eta pertsona gehiago dago euskaraz dakiena (batez ere EAEn, hezkuntza modeloak direla eta), baina, esan bezala, horrek ez du erabilera bermatzen. Gainera, ohikoa izan ohi da familiaren baitan hizkuntza gutxitua mantentzea baina kalean hizkuntza hegemonikora jotzea, hizkuntzaren erabilera eremu publiko eta pribatuekin hertsiki lotuta egon izan baita historikoki.

Oro har, auzo gehienak baldintzaz azpikoak direla erakusten du taulak, eta bai auzoen euskalduntasunak bai erdalduntasunak eraman dezakeela auzo horren tipologia azpierzabiltasunera.

Salbuespenak diren auzoak ere badaude, hala nola, 1, 2, 3, 5, 7 eta 13 auzo-tipologiak, bakoitza auzo bakar batek ordezkaturak. Auzo horiek ez dira homogeenak; aitzitik, “salbuespenen” eremuan kokatzen dira, eta horregatik dira bereziki interesgarriak: zutabeetan zehar euskararekiko datu positiboak eta negatiboak konbinaturak ageri dira eta, zenbait kasutan, gainera, estatistikoki esanguratsuak ez diren balioak ere azaltzen dira (taulan zuri gisa ageri direnak).

Horrenbestez, taulak ez du soilik auzo bakoitzaren eta auzoen arteko egoera erakusten; eredu nagusi bat eta haren inguruan pilatzen diren tarteko kopuruak eta salbuespen adierazgarriak ere erakusten ditu, ondorengo interpretazio soziolinguistikorako abiapuntu sendoa eskainiz. Beste

era batera esanda, ondorio horrek motibatu du ondoren datorren azterketa: proiektu honen ikerketa-galderara itzuliz eta taularen interpretazioak deigarri bihurtu dituen kasuistikak erreparatuz, estatistikoki eta soziolinguistikoki esanguratsuak diren auzo batzuen aukeraketa egin da, auzo horietan zein hirigintza ezaugarri eta aldagai dauden ikusteko.

4.3.3 Aukeratutako auzoak

Aurreko azpiatalean ikasitakoa jarraituz, honakoak dira hemen aztertuko diren auzoak:

- Karabel (Hernani)
- Larrea (Zornotza)
- Aritzatalde (Zarautz)
- Txorraburu (Gernika-Lumo)
- Alde zaharrak (Hernani, Tolosa eta Zarautz)

Erdigune funtzionalei erreparatuz, alde zaharrek arreata deitzen dute, erdigune funtzionaletako beste auzoekin alderatuz ezberdintasun nabariak erakusten baitituzte. Beste era batera esanda, ezaugarri urbanistiko oso antzekoak dituzten arren, joera linguistiko ezberdinak erakutsi dituzte. Horrexegatik izango dira Hernaniko, Tolosako eta Zarauzko Alde Zaharrak aztergai hemen. Zein hirigintza aldagai daude auzo horietan?

Erdigune funtzionaletik kanpo daudenei erreparatuz, Karabel *baldintzaz azpikoa*, *erdalduna* eta *azpi-erabiltzailea* da. Esan bezala, hori da auzo-tipologiarik ugariena eta hizkuntza gutxitu baten egoera soziolinguistikoan kezka piztu dezakeena. Kezka horrek bihurtzen du azpiatal honetako aztergai. Ildo berean, Larrea ere *baldintzaz azpikoa* da, baina *euskalduna* eta *gain-erabiltzailea* ere bada, beraz, nola pasatzen da, hirigintzaren ikuspuntutik, auzo bat *euskalduna* eta *gain-erabiltzailea* izatetik *baldintzaz azpikoa* izatera, eta alderantziz? Gainera, Zarauzko, Hernaniko eta Tolosako Alde Zaharrek ezaugarri urbanistiko oso antzekoak dituzten arren, joera linguistiko ezberdinak erakutsi dituzte. Bereziki interesgarria bihurtzen du Larrea herriko *gain-erabiltzaile* bakarra izateak. Horrez gain, aipatutako bi auzoak (Karabel eta Larrea), auzo guztietatik berrienak dira eta biek herriko joerarekiko oso portaera linguistiko ezberdina erakusten dute.

Bestalde, familia soziolinguistikoan azterketak Txorrabururekiko interesa ere pizten du: zergatik izan dezake, hirigintzaren ikuspuntutik, auzo batek GET indize *euskalduna* baina kaleko erabilerarekiko *azpi-erabiltzailea* eta, orokorrean, *baldintzaz azpikoa* izan?

Eta, azkenik, interesa pizten duten erlazio horiei erreparatzen jarraituz, Aritzatalden jarriko da fokua: zein hirigintza aldagai daude *baldintzaz gaineke* eta *gain-erabiltzailea* dena, baina GET indizea *erdalduna* den auzo batean? Han aipatutako bi auzoetan, gainera, bereziki handia da Euskararen kale-erabileraren eta biztanleen euskalduntasun indizearen arteko aldea, oso negatiboa eta oso positiboa baitira, hurrenez hurren.

4.3.3.1 Zarauzko, Tolosako eta Hernaniko alde zaharrak

Auzo zehatzen azterketa hasteko, lehenik eta behin Zarauzko, Hernaniko eta Tolosako Alde Zaharrei erreparatu zaie.

Familia: joera soziolinguistikoa

Esan bezala, auzo horien aukeraketa soziolinguistikoki dinamika ezberdinak erakutsi dituztelako egin da. Hiru auzoak herrien erdigune funtzionalen parte izanik, eta nahiz eta hirigintza aldetik ezaugarri amankomunak izan, portaera ezberdina erakutsi dute euskarekiko. Alde batetik, Zarauzko Alde Zaharrean GET indizea herrikoaren antzekoa da, baina batz bestekoaren azpitik dago. Gainera, auzo horretan gutxiago entzuten da euskara datu hori herriarekin konparatzen bada eta, orokorrean, erabilera horrek behera egin du azken 10 urteetan. Bestalde, Hernaniko Kaxkoko biztanleen GET indizea altuagoa da herriarekiko konparaketan, baita erabilpena ere. Azken 10 urtetako joera beheranzkoa bada ere, ez da aldaketa nabarmenik gertatu. Azkenik, Tolosako Alde Zaharreko biztanleak erdaldunagoak dira herriko biztanleekin alderatuta, eta erabilera ere baxuagoa da; aldiz, erabilera hori handiagoa da biztanleekiko euskalduntasun mailarekin alderatzen bada.

Ditugun datuetan oinarrituz, Alde Zaharretan euskararen kaleko erabilerak beheranzko joera izan duela baieztatu daiteke.

52. Taula: Auzo-tipologia linguistikoen ezaugarriak (Zarauzko, Hernaniko eta Tolosako alde zaharretan).

AUZOA	Hirigintza Klusterra 1: erdigune funtzionala 2: besteak, periferia	GET 2 (AEKE-GET)	GET auzoa GET herria	AEKE auzo AEKE herri	AEKE Aldaketa (10 urtetan)	AUKERAKETA IRIZPIDEA
		BALDINTZA AZPIKOA BALDINTZA GAINEKOA	ERDILDUN EUSKILDUN	AZPI ERABILTZAILEA GAIN ERABILTZAILEA		
ZARAUZ			54%	58,50%		
ZA_Alde Zaharra	1:Erdigune funtz.	-7	53	45,6	-6,4	1
HERNANI			42%	33,30%		
HE_Kaxkoa	1:Erdigune funtz.	-7,5	46	38	-2,5	1
TOLOSA			51%	58,50%		
TO_Alde Zaharra_Belate	1:Erdigune funtz.	8,7	43	51,4		1

Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoak

Auzoen bilakaeraren deskribapena

Hirigintzaren ikuspuntutik, antzekotasun handia dute Zarauzko, Tolosako eta Hernaniko Alde Zaharrek: XIII. mendeko hiribilduek aldaketak jasan badituzte ere, gaur egun garaiko morfologia mantendu dute. XX. mendearen hasieran beheko solairuetan lantegi zirenak komertzio bezala ezartzen hasi zirenetik, herrien zentroak erakargarri bilakatu ziren, eta herriko jendeaz gain, inguruko herrietako jendea ere erakartzeko joera dute geroztik. Beraz, auzo dentsoak dira, biztanle asko dituzte, eta espazio publiko eskasa dute. Hiru auzoak kokatzen dira Erdigune Funtzionalen barruan.

Gaur egun, eraikin asko zaharkituta daude eta irisgarritasun arazoak dituzte. Bestalde, auto pribatuen sarrera mugatua izaten da eta horrek oinezko mugikortasuna zabalitzeaz gain, komertzio eta ostalaritzaren kontzentrazioa ere ekarri du. Hiru auzoetan administrazioen ekipamenduen erakargarritasuna handia da.

53. *Irudia: Auzoen bilakaera irudiak (Zarauzko, Hernaniko eta Tolosako alde zaharretan).*

ZARAUZKO ALDE ZAHARRA




HERNANIKO ALDE ZAHARRA




TOLOSAKO ALDE ZAHARRA




Ortoargazkia. 1945-1946 urtea. Iturria: Geoeuskadi




Ortoargazkia. 2024. urtea. Iturria: Geoeuskadi



ZARAUTZ



HERNANI



TOLOSA

Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoak

Euskararen kale-erabilerarekin korrelazio handiena duten aldagai sozio-urbanistikoak azterketa, adina eta sexua

54. Taula: Euskararen kale-erabilerarekin korrelazio handia duten aldagai sozio-urbanistikoak (Zarauzko, Hernaniko eta Tolosako alde zaharretan).

		ZA_Alde Zaharra	HE_Kaxkoa	TO_Alde Zaharra-Belate	Bataz bestekoa
APA	APA_MUG_GEL_BUS	916,4	604,5	387,7	423,97
	APA_MUG_BID	1058	838,7	418	641,06
	APA_EK_ADIN	100	100	97,9	57,9
	APA_EK_KIR	324,2	200	125,8	164
	APA_EK_ADMIN	353,1	400	461	235
AI	AI_BIZ_EMAK	52	51,9	52,1	51,1
	AI_ETXE_NAG	-	2,31	2,19	1,97
	AI_ETXEB_DENTS	-	175,7	225,7	62,7
	AI_GIZ-EZAK	51,4	50,4	50,4	51,6
AEBEA	AEBEA_EK_OSA	87,6	100	92,7	52,9
	AEBEA_EK_1HEZK	100	100	100	91
	AEBEA_EK_ADMIN	100	100	100	66,6
AEA	AEA_EPKAN_EPAZ	3,3	4,5	3,5	6,71
	AEA_APKAL_BAN100	2,9	3,9	1,2	4,25
PATA	PATA_EP_HAURDEN	70,7	46,6	70,8	37,5

Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoak

55. taula: Kale neurketetan topatu diren pertsonen adina eta sexua ehunekotan (Zarauzko, Hernaniko eta Tolosako alde zaharretan).

		ZA_Alde Zaharra	HE_Kaxkoa	TO_Alde Zaharra-Belate	Batezbestekoa
ADINA	ADIN 1 (0-14)	35,95	19,01	16,74	25,21
	ADIN 2 (15-25)	12,34	14,06	6,58	11,53
	ADIN 3 (26-45)	8,48	19,27	23,36	19,86
	ADIN 4 (46-64)	19,22	26,56	30,95	25,93
	ADIN 5 (>65)	24,01	21,09	22,38	17,48

		ZA_Alde Zaharra	HE_Kaxkoa	TO_Alde Zaharra-Belate	Batezbestekoa
SEXUA	EMAKUMEA	76,88	59,38	59,50	60,29
	GIZON	23,12	40,63	40,50	39,71

Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoak

Atal honetan aztergai ditugun hiru auzoetako datu soziolinguistikoak hirigintzako aldagaiekin alderatuta ondokoa ondorioztatzen da:

- Auzotik pasatzeko aukerak oso altuak dira, eta hori ezaugarri (aldagai) guztiek azpimarratzen dute: mugikortasunari dagokionez, estatistikoki esanguratsuak dira garraio publikoarekiko dituzten loturak (hau da, autobus geltoki kopuruak), ekipamenduen erakargarritasunak, eta ostalaritza eta denden eskaintzak.
- Espazio publikoaren kantitatea oso baxua da guztietan, hala nola, espazio berdearena. Hernaniko Alde Zaharrak hiruekiko balore altuenak erakutsi arren, batz bestekoarekiko oso baxuak dira.
- Ekipamenduen gertutasuna (AEBEA) handia da guztietan (hezkuntza eta administrazio ekipamenduenatik bat baina baita osasun ekipamenduenatik ere); baita ekipamenduen estaldura eta erakargarritasuna ere (APA) (betez ere administrazio eta adinekoentzako zentroen erakargarritasuna eta Tolosan izan ezin beste herrietan kirol ekipamenduenatik ere).
- Alde Zaharretan kalean dabilen jendearen adin-taldeko ehunekorik altuena laugarrena (46-64 urte) izan arren, bostgarren adin-taldekoa (>65 urte) nagusiki auzo horietan aurkitzen da.
- Alde Zaharretako biztanleen emakumeen ehunekoa oso altua da, baita kalean dabilen pertsonen emakumeen ehunekoa ere (esaterako, Zarauzkoan hirukoiztu egiten du gizonezkoen kopurua)

Laburbilduz, Alde Zaharrak auzo dentsuak dira, espazio publiko gutxi dituzte baina zerbitzu eta ekipamendu eskaintza ona dute eta, beraz, inguruko jendea erakartzen dute. Gainera, kalean emakume gehien eta 65 urtetik gorako pertsona gehien auzo horietan egoten dira.

4.3.3.2 Gernika-Lumoko Txorraburu eta Zarauzko Aritzatalde auzoak

Analisiarekin jarraitzeko, goian aipatutako Gernika-Lumoko Txorrabururik eta Zarauzko Aritzatalde auzoetan jarriko da arreta.

Familia: joera soziolinguistikoa

Esan bezala, auzo horien aukeraketa duten euskalduntasun maila (GET indizea) eta kalean egiten den erabileraren (AEKE) arteko alde handiena izateagatik egin da, baita erabilitako euskararen inguruko adierazleen datuen sendotasunagatik ere. Alde batetik, Zarauzko Aritzatalde auzoan biztanleen euskalduntasun mailarekiko **Euskararen kale-erabilera oso altua neurtu da (23,6)**, eta joera 10 urtetan goranzkoa izan da. Bestetik, Gernika-Lumoko Txorraburu auzoaren kasuan

kontrakoa gertatzen da, biztanleen euskalduntasun mailarekin alderatuta, **kale-erabilera oso baxua da (-19,2)**, eta joera beheranzkoa izan da.

56. Taula: Auzo-tipologia linguistikoen ezaugarriak (Zarauzko eta Gernika-Lumoko auzoetan).

AUZOA	Hirigintza Klusterra 1: erdigune funtzionala 2: besteak, periferia	GET 2 (AEKE-GET)	GET auzoa GET herria	AEKE auzo AEKE herri	AEKE Aldaketa (10 urtetan)	AUKERAKETA IRIZPIDEA
		BALDINTZA AZPIKOA	ERDILDUN	AZPI ERABILTZAILEA		
		BALDINTZA GAINEKOA	EUSKALDUN	GAIN ERABILTZAILEA		
ZARAUTZ			54%	58,50%		
ZA_Aritzatalde	Besteak	23,6	51	74,9	23,4	2
GERNIKA-LUMO			50%	43,40%		
GE_Txorraburu	Erdigune funtz.	-19,2	56	36,5	-13,2	2

Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoak

Auzoen bilakaeraren deskribapena

Gernika-Lumoko Alde Zaharraren sorrera XIV. mendean koka dezakegu, baina 1937ko bonbardaketak eragindako suntsipena dela eta, gaur egungo Alde Zaharrak ez ditu garaiko ezaugarri asko mantentzen. Dena den, dentsitate handiko auzoa da eta administrazio ekipamenduak jasotzen ditu bertan, Erdigune Funtzional bat baita.

Zarauzko Arizbatalde auzoa 1996. urtean inauguratu zen eta Zarauzko hazkunderik handienaren erakusle da. Aurretik zegoen hiria A8 autopistaraino zabaldu zuten eraikin blokez, espazio publikoz (auzo- eta batez ere komunitate- espazio kantitate eta kalitate altua du) eta ekipamenduz hornituz (kirol eta hezkuntza ekipamenduak). Auzoak komertzio gune bat ere badu, bigarren mailako komertzio polo izaera hartzen duena. Ondo komunikatua dago oinez, garraio publikoaren bidez, eta baita, auto pribatuen bitartez ere. Auzo hau Beste Auzoen barnean sartzen da.

57. *Irudia: Auzoen bilakaera irudiak (Zarauzko eta Gernika-Lumoko auzoetan).*

ZARAUZKO ARITZBATALDE AUZOA




GERNIKA-LUMOKO TXORRABURU AUZOA




Ortoargazkia. 1945-1946 urtea. Iturria: Geoeuskadi




Ortoargazkia. 1995. urtea. Iturria: Geoeuskadi



Ortoargazkia. 2024. urtea. Iturria: Geoeuskadi



ZARAUZ



GERNIKA-LUMO

Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldea sortutako planoak

Euskararen kale-erabilerarekin korrelazio handiena duten aldagai sozio-urbanistikoak azterketa, adina eta sexua

58. Taula: Euskararen kale-erabilerarekin korrelazio handia duten aldagai sozio-urbanistikoak (Zarauzko eta Gernika-Lumoko auzoetan).

		ZA_ARITZBATALDE	GE_TXORRABURU	Bataz bestekoa
APA	APA_MUG_GEL_BUS	697,8	552,6	423,97
	APA_MUG_BID	927	100	641,06
	APA_EK_ADIN	0	101,3	57,9
	APA_EK_KIR	172,1	181,5	164
	APA_EK_ADMIN	213,7	430,4	235
AI	AI_BIZ_EMAK	50	52,6	51,1
	AI_ETXE_NAG	-	2,35	1,97
	AI_ETXEB_DENTS	-	104,3	62,7
	AI_GIZ-EZAK	49,2	56,1	51,6
AEBEA	AEBEA_EK_OSA	20,6	100	52,9
	AEBEA_EK_1HEZK	100	100	91
	AEBEA_EK_ADMIN	21	100	66,6
AEA	AEA_EPKAN_EPAZ	9,3	4,8	6,71
	AEA_APKAL_BAN100	5,6	2,5	4,25
PATA	PATA_EP_HAURDEN	65	45,3	37,5

Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoak

59. Taula: Kale neurketetan topatu diren pertsonen adina eta sexua ehunekotan (Zarauzko eta Gernika-Lumoko auzoetan).

		ZA_Aritzatalde	GE_Txorraburu	Batezbestekoa
ADINA	ADIN 1 (0-14)	53,32	19,91	25,21
	ADIN 2 (15-25)	22,20	14,38	11,53
	ADIN 3 (26-45)	6,96	22,75	19,86
	ADIN 4 (46-64)	9,79	30,02	25,93
	ADIN 5 (>65)	7,73	12,95	17,48

		ZA_Aritzatalde	GE_Txorraburu	Batezbestekoa
SEXUA	EMAKUMEA	79,65	54,82	60,29
	GIZON	20,35	45,18	39,71

Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak sortutako planoak

Bi auzoak oso ezaugarri urbanistiko ezberdinak erakusten dituzte, kluster ezberdinekoak baitira: bata, Gernika-Lumokoa, Erdigune Funtzionala da eta, bestea, Zarauzkoa, Beste Auzo bat da. Era berean, auzo horietako joera soziolinguistikoa ere kontrakoa da. Zarauzko Aritzbatalden euskara gehiago entzuten da kalean bertako biztanleek dakitena baino; Gernika-Lumokoa, aldiz, dakitena baino gutxiago entzuten da.

Bi auzoetako datu soziolinguistikoak hirigintzako aldagaiekin alderatuta ondokoa ondorioztatzen da:

- Gernika-Lumoko Txorraburu auzoan Alde Zaharren joera antzekoak aurki ditzakegu: biztanleen eta kalean dauden emakumeen ehunekoa altua da, ekipamenduak gertu daude, eta espazio publiko kantitatea baxua da. Adinari dagokionez, hirugarren eta laugarren adin-taldeetako (25-64) jendea topa daiteke gehienbat.
- Zarauzko Aritzbatalde auzoan, kalean dauden bai emakumeen bai lehen adin-taldekoen ehunekoa oso altuak dira. Administrazio ekipamenduak urruti daude, (Kultura eta osasuna ere) hezkuntzakoak eta kiroltakoak izan ezik. Autobus geltoki asko dago, eta espazio publiko kantitatea altua da. Aipagarria komunitate eta auzo espazio ugari dituela.
- Bi auzoetan haur jokoak eta denden hartu emana batez bestekoaz gaindikoa da, nabarmen altuagoa Aritzbatalden.

Laburbilduz, Euskararen kale-erabilera apalagoa era honetara interpreta daitezke: Gernika-Lumoko Txorraburu auzoan, duen pasatzeko aukera altuarengatik, auzokoa ez den pertsona asko erakartzen ditu, bereziki hirugarren eta laugarren (25-64) adin-taldekoak. Herriko joera periferiako auzoetan erabilera mantentzea da; aldiz, erdiguneetan jaitsiera nabariagoa izan da azken 10 urtetan.

Aritzbataldeko auzoan, aldiz, joera kontrakoa da honako arrazoi hauengatik: auzoaren izaera, espazio publiko kantitate handia da, gainera, hezkuntza eta kirol ekipamenduen gertutasuna du, haur kopuru altua, eta baita emakumeena ere. Zarautz herriko euskalduntasuna eta euskararen kale-erabilera altuak dira: joera orokorrak auzoetan antzematen denarekin erlazioa izan dezake.

4.3.3.3 Hernaniko Karabel eta Zornotzako Larrea auzoak

Azkenik, azpiatal honek Hernaniko Karabel eta Zornotzako Larrea auzoetan jarriko du fokua.

Familia: joera soziolinguistikoa

Esan bezala, auzo horietatik guztietatik berrienak dira eta herriko joerarekiko oso datu linguistiko ezberdinak erakusten dituzte. Hernaniko Karabel auzoko euskararekiko ezaugarriak negatiboak dira adierazle guztietan: herriarekiko euskalduntasun maila baxuagoa da, herriarekiko euskararen kaleko erabilpena baxuagoa da, eta auzoko biztanleen euskalduntasun mailarekiko kale erabilpena ere oso baxua da (-20,6). Gainera, azken 10 urtetan euskararen kale-erabilera nabarmenki jaitsi da. Zornotzako Larrea auzoan, aldiz, deigarriena da herriarekiko euskalduntasun maila altuagoa duela, eta kale-erabilera ere altuagoa dela herriarekiko. Zornotzako herrian auzo honetan soilik ikusi da horrelako kasuistika.

60. Taula: Auzo-tipologia linguistikoen ezaugarriak (Hernaniko eta Zornotzako auzoetan).

AUZOA	Hirigintza Klusterra 1: erdigune funtzionala 2: besteak, periferia	GET 2 (AEKE-GET)	GET auzoa GET herria	AEKE auzo AEKE herri	AEKE Aldaketa (10 urtetan)	AUKERAKETA IRIZPIDEA
		BALDINTZA AZPIKOA	ERDILDUN	AZPI ERABILTZAILA		
		BALDINTZA GAINEKOA	EUSKALDUN	GAIN ERABILTZAILA		
HERNANI			42%	33,30%		
HE_Karabel	Besteak	-20,6	37	16,4	-26	3
ZORNOTZA			35%	23,40%		
ZO_Larrea	Besteak	-2,6	39	36,4		3

Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldea sortutakoa

Auzoen bilakaeraren deskribapena

Aukeratutako aztertutako auzo guztietatik eraldaketa urbanistiko berrienak jasan dituzten auzoak Hernaniko Karabel eta Zornotzako Larrea dira hurrenez hurren; eta, beraz, beste testuinguru batean sortu ziren eta, ezaugarri morfologiko ezberdinak dituzte. Orokorrean, dentsitate gutxiagoko eremuak dira, espazio publiko gehiago dituzte, ekipamendu puntualak dituzte bertan, baina oinarrizko zerbitzuak eta ekipamenduak jasotzeko mugitu behar dira²³. Oinezkoen fluxua bermatua badute ere, zenbaitetan auto pribatuaren erabilera ematen dela ulertzen da. Mugikortasun azpiegitura orokorrekin banatzen dituzte eta, beraz, isla izaera dute.

Hernaniko Karabel auzoa, 1981ean Karabelgo zubia eraiki zenetik sortutakoa da, industria gune berria eta herria lotzeko eraiki zena. Industria guneek populazio hazkundearekin lotura zuzena du, eta garai hartan sortu ziren Hernaniko auzo gehienak; Karabel ere horren adibide da. Auzoa herritik nahiko bananduta dago fisikoki, baina ez gertutasunari dagokionez: zubiaz gain, trenbideak ere mugatzen du, eta Kaxkoarekin konparatuz, desnibel handia dago, ibaitik gertu kokatua dagoelako. Gainera, ez du zerbitzu askorik eskaintzen.

Zornotzako Larrea auzoa guztietatik berriena da, XXI. mendearen hasierakoa. Herritik oso bananduta dago, autopistak herritik bereizten duelako. Eraikinek espazio publiko handiak dituzte inguruan eta dentsitate baxuko eremu handia da. Bertan aurkitzen dira kirol gune eta hezkuntza zentro garrantzitsuak. Bere kokapenarengatik eta eskaintzen dituen zerbitzu kopuru baxuaren

²³ Karabelgo kasuan naiz eta zerbitzu eta ekipamenduan estaldura eta gertutasun datuak onak izan geografikoki duten saltoak distantzia hau urrundu egiten dela ulertzen da, egin den neurketa oinplanuan egin bai da eta ebaketa ez da kontuan hartu.

ondorioz (ostalaritza eta dendarik ia ez dago), auto pribatuaren erabilera handia dela ulertzen da, eta horrek beste inguruko herriekiko harremana indar dezake.

61. irudia: Auzoen bilakaera irudiak (Hernaniko eta Zornotzako auzoetan).

HERNANIKO KARABEL AUZOA




ZORNOTZAKO LARREA AUZOA



Ortoargazkia. 1945-1946 urtea. Iturria: Geoeuskadi




Ortoargazkia. 1983. urtea. Iturria: Geoeuskadi




Ortoargazkia. 2004. urtea. Iturria: Geoeuskadi



Ortoargazkia. 2024. urtea. Iturria: Geoeuskadi



HERNANI



GERNIKA-LUMO

Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak sortutakoa

Euskararen kale-erabilerarekin korrelazio handiena duten aldagai sozio-urbanistikoen azterketa, adina eta sexua

62. taula: Euskararen kale-erabilerarekin korrelazio handia duten aldagai sozio-urbanistikoak (Hernaniko eta Zornotzako auzoetan).

		HE_Karabel	ZO_Larrea	Bataz bestekoa
APA	APA_MUG_GEL_BUS	331,2	18,7	423,97
	APA_MUG_BID	789,9	271	641,06
	APA_EK_ADIN	89,5	43,9	57,9
	APA_EK_KIR	200	126,1	164
	APA_EK_ADMIN	371,7	52,5	235
AI	AI_BIZ_EMAK	51	51,1	51,1
	AI_ETXE_NAG	2,46	3,12	1,97
	AI_ETXEB_DENTS	123,5	9,6	62,7
	AI_GIZ-EZAK	51,9	48,3	51,6
AEBEA	AEBEA_EK_OSA	96,6	0	52,9
	AEBEA_EK_1HEZK	100	100	91
	AEBEA_EK_ADMIN	100	29,3	66,6
AEA	AEA_EPKAN_EPAZ	2,7	10,4	6,71
	AEA_APKAL_BAN100	3,3	2,3	4,25
PATA	PATA_EP_HAUDEN	23,1	0	37,5

Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak sortutakoa

63. taula: Kale neurketetan topatu diren pertsonen adina eta sexua ehunekotan (Hernaniko eta Zornotzako auzoetan).

		HE_Karabel	ZO_Larrea	Batezbestekoa
ADINA	ADIN 1 (0-14)	38,81	30,44	25,21
	ADIN 2 (15-25)	16,42	12,12	11,53
	ADIN 3 (26-45)	17,91	23,29	19,86
	ADIN 4 (46-64)	17,41	30,04	25,93
	ADIN 5 (>65)	9,45	4,12	17,48

		HE_Karabel	ZO_Larrea	Batezbestekoa
SEXUA	EMAKUMEA	35,32	46,64	60,29
	GIZON	64,32	53,36	39,71

Iturria: EHUko BOTOI ikerketa-taldeak sortutakoa

Esan bezala, bi auzo horiek aukeratutako guztietatik berrienak dira, eta biak daude erdigunetik banatuta azpiegitura handiak direla medio: Zornotzako Larrea A8 autopistak bereizten du; Hernaniko Karabel auzoak, bestalde, hiruki forma du, eta trenbide, errepide, ibai eta baratzez inguratuta egoteaz gain, desnibel handia du herriarekiko, nahiz eta distantzian gertu egon.

Bi auzoetako datu soziolinguistikoak hirigintzako aldagaiekin alderatuta ondokoa ondorioztatzen da:

- Auzo horietan biztanleen emakumeen ehunekorik baxuena topa daiteke; eta kalean dauden pertsonen artean gizonezkoen ehunekoa altuagoa da emakumeena baino.
- Oinarrizko zerbitzu eta ekipamenduetarainoko distantzia handia da, nahiz eta Karabeleko adierazleak kontrakoa esan (irisgarritasuna ona ez denez, urrun dagoela kontsideratu da). Larrearen kasuan hezkuntza- eta kirol- ekipamenduen gertutasuna eta estaldura altuak dira.
- Garraio publikoarekiko gertutasuna urria da, autobus geltoki gutxi daudelako.
- Espazio publikoaren kantitatea handia da Larrea auzoan; Karabelen, aldiz, eskasa da, ibilgailuentzat zuzendutako espazio asko baitago.
- Kalean gehien topa daitekeen adin-taldea haurrena da (0-14 urte) eta, jarraian, hirugarrena (26-45) eta laugarrena (46-65).

Laburbilduz, auzo berriak eta periferikoak, edo erdigunetik aldenduak daudenak, ez dute herrietako errealitate soziolinguistikoaren partekatzen, beste logika batzuei erantzuten diote. Herriko errealitate soziolinguistikoarekin dituzten ezberdintasunak herriekiko duten distantzia fisikoaren ondorioz eraginez gerta litezke. Gainera, deigarria da, beste auzoetan ez bezala, gizonezkoen presentzia altuagoa dela kalean. Era berean, eta adinari dagokionez, lehen adin-taldea da nagusi eta bosgarrena (65 urtetik gorakoena) da urriena.

5. ONDORIOAK: HIZKUNTZA GUTXITUA ETA HIRIGINTZA ZAINZAILA

Proiektu honen baitan garatutako ikerketa-metodoa bost udalerritan aplikatu eta da; atal honetan, inplementazio- eta garapen-prozesu horretatik eratorritako emaitzak eta ondorio nagusiak aurkezten dira. Emaitzek bost udalerrri horietako testuinguru espezifikoak islatzen dute; hala ere, jasotako ondorioak beste udalerrri batzuetara estropolagarriak izan daitezke, antzeko ezaugarri demografiko, soziokultural eta soziolinguistikoak dituzten kasuetan bereziki.

Azpimarratzekoa da ikerketa-lerro berri honetan egindako datu-bilketa ez dela aurreikusi bezain sendoa izan²⁴; ondorioz, hainbat muga tekniko agerian geratu dira eta horiek zuzenean baldintzatu dute azterketaren irismena. Hala eta guztiz ere, eskuratutako informazioak interes eta erabilgarritasun nabarmena du espazio publikoaren ezaugarrien eta euskararen kale-erabileraren arteko lotura hobeto ulertzeko eta interpretatzeko.

Ondorioen atal honetan, lehenik eta behin, oinarri soziolinguistikoak aurkeztuko dira (5.1); ondoren, hirigintza azterketatik ateratako auzo moten ezaugarriak kontatuko dira (5.2); eta jarraian, *Eragin Linguistikoaren Ebaluazioan*²⁵ lagungarri izateko asmoz, hirigintza ezaugarrien eta euskararen kale-erabileraren arteko harremana gaika aurkeztuko da (5.3); horren ostean, erabili den metodoaren eta hipotesiaren irakurketetatik eratorritako hausnarketak aurkeztuko dira; eta azkenik, etorkizunerako dauden bide eta aukerak azalduko dira (5.4).

Euskararen lurraldea ez da homogeneoa: baldintza geografikoak, politikoak eta ekonomikoak askotarikoak dira, eta tokian tokiko berezitasunak nabarmenak dira. Egungo hirien errealitate espaziala eta soziolinguistikoa ulertzeko ezinbestekoa da bakoitzak izan duen bilakaera kontuan hartzea. Udalerrri bakoitzaren ezaugarri fisikoez gain, gertakizun politiko eta ekonomiko ezberdinek herrien bilakaera oso era ezberdina izatea ekarri du eta, horregatik, orokortasunak ez du balio herri ezberdinen sorrera eta jatorria aztertzeke, ez eta bertatik gaurdaino izandako eraldaketak ulertzeko.

Hala ere, gure herrietan antzekotasunak topa daitezke faktore urbanistikoak identifikatzeko garaian eta faktore horiek, auzoz auzo konfigurazio espezifikoak sortuz, izaera eta nortasun bereizgarriak eratzen dituzte. Auzo bakoitzean, kalearen erabileraren eragileak eta dinamikak (nor aritzen den eta zein modutan) zehaztasunez ulertzeko, beharrezkoa izan da udalerrri bakoitzaren bilakaera historiko-urbanistikoa aztertzea eta, aldi berean, lurralde mailan udalerrrien arteko harreman-sareek eragindako mugikortasun- eta interakzio-fluxuei erreparatzea.

²⁴ Interesgarriak liratekeen datu zehatz batzuk ez daude eskuragarri edo bilketa-moduak mugak eragiten ditu; dauden datu batzuen prozesamendurako balia bideak falta izan dira; udalerrri guztietan datu guztiak ez dira eskuragarri egon. Interesatzen zaizkigun datuek, zaintza gaiekin zerikusia dute, horiek toki askotan ez dira jasotzen. Hau da, aparkaleku kopuruaren inguruan datu asko dago eta plan ugari, aldiz, eserleku kopurua eta kokapena herri askotan ez da jasotzen.

²⁵ <https://www.uema.eus/eu-ES/zer-egiten-dugu/udalerrri-euskaldunen-zaintza-garapena/Orriak/eragin-linguistikoaren-ebaluazioa.aspx>

5.1 Oinarri soziolinguistikoak

Ondorioen lehenengo atal honetan ikerlanaren alderdi soziolinguistikoari erreparatuko zaio, eta nabarmenduko da hizkuntza gutxituetan aritzeak zer-nolako egiturazko baldintzak dituen, hirigintzaren eragina aztertzean kontuan har daitezkeen²⁶.

Egindako azterketak erakutsi du gaitasuna, belaunaldien arteko transmisioa eta etxeko-erabilera (hau da, GET indizea osatzen duten aldagaiak) faktore erabakigarriak direla hizkuntzaren kaleko erabileran. Faktore horiek herrien eta auzoen markora eramanez gero, badugu oinarri egoki bat hirigintza eta soziolinguistika uztartzen dituen azterketarako.

GET indizeak, kuantifikagarria denez, eskalatzeko eta konparatzeko aukera ere ematen du. Hortaz, bidea eman digu herrien egoera orokorra indize bakar batean adierazteko, bai eta auzoen eta herrien arteko eraketak egiteko ere. Batetik, GET indizea eta kale-erabilera behatua (biak ehunekotan adierazten direnak) eta, bestetik, auzoen eta herrien errealitatea alderatu daitezke. Bi informazio mota horiek eskura izateak aukera eman digu zenbait kontzeptu sortzeko eta, kontzeptu horien arabera, konbinazioak egin eta errealitate soziolinguistikoa deskribatzeko modu berritzailean. Horrela sortu ditugu auzo- eta herri-tipologia: “auzo azpierzabiltzailea”, “auzo gainerabiltzailea”, “auzo euskaldunagoa”, “auzo erdaldunagoa”, “baldintzaz gaindiko auzoa (eta herria)” eta “baldintzaz azpiko auzoa (eta herria)”. Tipologia horiek xehe deskribatuta daude txosten honen 3.4.3.3 atalean. Errealitate soziolinguistikoa deskribatzeko baliabide horiek badute beste ezaugarri interesgarri bat: oso marko egokia dira hirigintzaren gorabeherak aztertzeko, eta alderantziz.

Hala, hasteko, auzoen eta beren herrien alderaketa eginda, esan dezakegu auzo azpierzabiltzaile gehiago ikusi ditugula gainerabiltzaileak baino, eta auzo erdaldunagoak maizago agertu zaizkigula euskaldunagoak baino.

Horrez gain, ikusi dugu auzo gehienak baldintzaz azpikoak direla (GET2 indizea), hau da, kale-erabileraren ehunekoa GET indizearen azpitik dagoela. Azpimarratu beharrekoa da gurea bezalako gizarte batean biztanleriaren zati esanguratsu batek hizkuntza gutxitua erabiltzeko gaitasunik ez badu eta, aldi berean, hizkuntza gutxituaren hiztun ia guztiek hizkuntza hegemonikoa ere ondo menderatzen badute, ohikoa dela euskaldunen ehunekoa euskararen kale-erabileraren gainetik agertzea.

Aztertu diren herri guztietako 50 auzoetatik (denetan ez da datu sendotasun nahikorik izan tipoetan sartzeko) 15 dira azpierzabiltzaile-erdaldunago-baldintzaz azpiko familiakoak. Hori da auzo-tipo ugariena. Baina badira ezaugarri horien balio euskaldunagoak eta erdaldunagoak nahastuta biltzen dituzten tipoak ere. 20 auzotan ikusi dugu uztarketa hori modu batera edo bestera. Eta badira, urriago bada ere, baldintzaz gaineko auzo nabarmen euskaldunak ere. Horrelako auzo euskaldunagoak herritik aldentuta egon ohi dira sarri, eta irla tankerako itxura

²⁶ Hirigintza-aldagaien eta euskararen kale-erabilerako datuen artean loturarik badagoen antzematen saiatu gara ikerketa honetan. Lotura izateak esan nahi du badagoela nolabaiteko zerikusia erabilerako datuen eta hirigintza-aldagaien artean, nahiz eta, agian, ez izan kausa-efektu korrelazio garbia.

sinbolikoa hartzen dute —adibidez, Ereñozu Hernanin —, edo, bestela, auzo horietan euskaldunak erakartzen dituen ekipamendu esanguratsuren bat egon ohi da. Aurrerago sakonduko da hirigintza-ezaugarri horietan.

Galdera da zertan datzan auzo-tipoen arteko alde hori. Zein faktorek eragiten dute auzo bat tipo batekoa edo bestekoa izan dadin?

Ikusi dugunez, auzo gainerabiltzaileetan eta baldintzaz gainekoetan auzo-izaera indartsua antzematen da, euskaldunen kopurua handia da eta hirigintza aldagai erakargarriak daude.

Euskara ondo errotuta dagoen auzoetan errazagoa da giro euskalduna sortzea eremu informalean ere. Aldiz, euskara bigarren hizkuntza dutenen kopurua handia den auzoetan, gaztelaniaren presentzia nabarmenagoa da kalean. Gaitasun erlatiboaren faktorea oso garrantzitsua da, eta ez da harrizkeoa erro euskaldunak dituzten auzoek eta auzo eratu berriek portaera desberdina izatea.

Hizkuntzaren prestigioa ere pisu handiko faktorea da kaleko erabileran. Prestigioa ez da erraz kuantifikatzen, eta hainbat prozesu ekonomiko, politiko, sozial eta historikoren ondorioa da (hau da, euskara hizkuntza gutxitu bihurtu duten prozesuak askotarikoak dira), eta hiztunek hori oso ondo barneratu dute. Ondorioz, horren arabera hizkuntza-praktikak eta identitateak garatu ohi dituzte. Prestigioa, baina, ez da toki guztietan berdin azaltzen: esaterako, euskaraz aritzeak gaztelaniaz aritzeak baino prestigio handiagoa izan dezake Tolosako auzo batzuetan, baina hori ez da berdin gertatuko hiri handietan edota euskararen erabilera oro har murriztagoa den lekuetan. Beste era batera esanda, teoria soziolinguistikoek adierazten dute pertsonek beren identitatea garatzen dutela egiten duten gauza bakoitzean, eta hizkuntza horren erdigunean dagoela (beste hainbat elementurekin batera, adibidez, arroparekin, etxearekin edota lanpostuarekin). Hori horrela, hiztunek barneratuta dute zein diren beren lurraldeetako, herrietako, auzoetako eta taldeetako prestigiodun hizkuntzak eta hizkuntza-aldaerak, eta nola har dezaketean parte komunitate horietan. Euskarak, hizkuntza gutxitua izaki, prestigio gutxiak izateko arrisku handia dauka, eta horrek, besterik ezean, ez dio mesederik egiten kalean erabilia izateko.

5.2 Bi auzo mota: Erdigune Funtzionalak eta Beste Auzoak

Aztertutako udalerrien tokikotasunetik harago, ikerketa-esparrua osatu duten auzoetan bi kluster bereizi dira, aldagai sozio-urbanistikoaren arabera: **Erdigune Funtzionalak** eta **Beste Auzoak**. Egindako analisiak bi multzoen arteko desberdintasunak identifikatzeko aukera eman du eta, horrenbestez, herri-dinamiken interpretazio artikulatuagoa egitea ahalbidetu du. Prozedura horren bidez, klusterren balidazioa gauzatu da, talde bakoitzari esleitutako auzoek hirigintza-ikuspegitik koherentzia dutela egiaztatuta, eta hiri-garapenaren benetako eredu eta dinamikak islatzen dituztela baieztatuta.

Hala ere, azterketak erakutsi du **Erdigune Funtzionalen** artean, oro har, dinamika nahiko homogeneoak agertzen diren bitartean, **Beste Auzoak** kategorian barne-aniztasun handiagoa

dagoela. Dena den, gaur egun eskuragarri dauden datuen mugen ondorioz, ez da bideragarria izan bereizketa honetan sakontzea.

Azkenik, bi klusterretako auzoek dituzte *hiri zaintzaile* baten ikuspegitik egokitzat jo daitezkeen ezaugarriak; dena den, ez multzo batek ez besteak ez dituzte erabat betetzen parametro edo irizpide horiek.

Erdigune Funtzionalak

Erdigune Funtzionalak historikoki herrietako alde zaharrenak dira, eta biztanlez eta etxebizitzari dagokionez inguru dentsoenak izan ohi dira. Aktibitate komertzialak eta oinarrizko ekipamendu zerbitzuek, publiko zein pribatuek, hartzen dute toki nabarmena bertan eta herriguneetako lanpostu²⁷ gehienak ere bertan kokatzen dira. Aldeko dute oinezkoentzat azpiegitura egokiagoa beste auzoetan baino. Baina espazio publiko eta berdegune gutxiago dituzte eta bertan egoteko (egonean egon eta besteekin lasai hitz egiteko, adibidez) aukera murriztagoa da, nahiz eta hemen topatu diren herri mailako espazio²⁸ esanguratsu gehien. Auzo horiek erakargarritasun funtzional handia dute, bai udalerrri bereko gainerako auzoetako biztanleentzat, bai inguruko herrietatik bertaraten diren pertsonentzat. Egoera horrek mugikortasun- eta joan-etorri-fluxu handiak eragiten ditu, eta fluxu horiek, maiz, euskararen kale-erabileran beheranzko joerarekin lotzen dira. Halaber, izaera komertzial nabarmena duten espazioak dira, eta zenbait kasutan kontsumoaren eta merkantilizazioaren inguruko dinamikak bereziki ikusgarri bihurtzen dira. Ezaugarri horiek tokikotasunaren eta nortasun komunitarioaren eraikuntzarekin tentsioan jar daitezke, zenbaitetan ikuspegia dinamika globalizatuetera lerratzea eraginez eta, ondorioz, hizkuntza gutxituaren presentzia publikoa apaltzea sustatuz.

Aztertu diren herrietan zaintzaren ikuspuntutik, egunerokotasuneko zerbitzuen eta oinarrizko ekipamenduen gertutasuna bermatuta badago ere, azken urteetan zerbitzuen zentralizazio handiegia gertatu da. Horrela, herri mailan, Erdigune Funtzionalen eta gainerako auzoen arteko desoreka hautematen da. Aktibitate zentralizazio horrek auzo batetik besterako joan-etorriak eta fluxuak areagotzen ditu eta, ondorioz, **Erdigune Funtzionalak** aldakortasun soziolinguistikoko handiagoa erakusten dute, bertakoak ez diren biztanleak hartzen dituztelako. Egoera horri, espazio publiko eskasaren pribatizazio dinamikak erantsita, auzo horietan egunerokotasunean egoteko aukerak eta auzotarren arteko bizitza intimorako bideak zailtzea ekar dezaketela ondorioztatu da.

Etxebizitzaren jabetzarekiko eta izaerarekiko dinamika esanguratsuak ikusi dira: alokairua gailentzen den auzoetan lehen etxebizitza gutxiago dago, inguru horiek dentsoagoak dira, espazio publiko gutxi dituzte, eta etxebizitzaren kalitatea ere apalagoa izan daiteke. Testuinguru horietan, ikerketa soziologiko sakonagoen beharra aintzat hartuta, iradoki daiteke egoera administratibo

²⁷ Herriguneko lanpostuez hari gara, etxebizitza erabilerako lurzorukoak. Hemen ez dira industrialdeetako edo parke teknologikoetako lanpostuak kontuan hartzen.

²⁸ Lan honetan herri mailako elkargune gisa ulertzen dira herri osoko biztanleak elkartzen diren gunek; auzo mailakoak lirateke auzo bakoitzeko 2. mailako bilguneak eta 3. mailan leudeke komunitate mailakoak, hau da, etxe-atarietatik gertu dauden txoko edo elkargune txikiak.

edo sozioekonomiko prekarioagoetan dauden pertsonen presentzia handiagoa izan daitekeela, eta aniztasun linguistikoa ere handiagoa izan daitekeela. Bestetik, auzo horietan gizarte-egitura zahartuagoa eta emakumeen proportzio erlatiboki handiagoa ere identifikatu dira.

Beste Auzoak

Orokorrean, **Beste Auzoetan** aldagai sozio-urbanistikoek antzekotasunak erakutsi dituzte: gizarte-egituran haurren ehuneko handiagoa identifikatu da; biztanleria-dentsitatea baxuagoa da, baita etxebizitza-dentsitatea ere (auzoaren azalerarekiko etxebizitza kopurua); eta espazio publikoaren kantitatea zein kalitatea handiagoak dira. Azken ezaugarri horrek bertan egoteko aukera handitzen du.

Hala ere, *zaintzaren* ikuspegitik eguneroko bizitza bermatzeko eskatzen diren zenbait zerbitzu eta oinarrizko ekipamenduren gertutasuna ez da, oro har, modu sistematiko eta argian betetzen; aldiz, espazio publiko gehiago eta berdegune gehiago dago. Honek, eguneroko “kale-zaintza” eta norberaren zaintza erraztu lezake, baina zerbitzuen zentralizazioak biztanleria osoarentzat mugikortasun behartua ere eragiten du. Horrela, zalantzarria izan daiteke erdiguneaz kanpoko zenbait auzoetako biztanleek egunerokotasunean funtzionatzeko erdiguneekiko duten dependentsia aintzat hartuta, euren auzoetako espazio publiko hori bizi eta gozatzeko nahikoa aukera ba ote duten. Aipagarria da horrelako auzoetan kirol eta lehen hezkuntzako zentroen presentzia ohikoa dela eta, ondorioz, beste auzoetako biztanle fluxuak jasotzen dituztela. Halako egoeretan, euskararen kale-erabilerari buruzko adierazleek emaitza onak erakutsi dituzte, bai une jakin bateko mailari dagokionez, bai bilakaera-denborei dagokienez.

Mugikortasunaren ikuspuntutik, oinezkoek presentzia gutxiago dute eta espazio gehiago hartzen du kotxeak. Horrela, pentsa daiteke auzotarren egunerokotasunean autoaren erabilerak indar handia izango duela eta, beste auzoetatik doazen artean ere eredu hori nagusituko dela kasu askotan.

Etxebizitzaren arloan, auzo horietan jabetza-maila handiagoa identifikatu da, baita lehen mailako etxebizitzarena ere. Datu horiek bertako biztanleen haur portzentaje altuagoarekin elkartzuz, gizarte gazteago baten aurrean gaudela pentsa daiteke. Gaztetasun horrek, haurren presentzia handiagoarekin lotuta, alde batetik euskararen erabileran datu hobek azaltzeko hipotesia indartu dezake; baina, bestetik, bereziki auzo berrietan, kanpoko udalerrri edo hiri handiagoetatik joandako biztanleen ekarpenak hizkuntza-dinamika heterogeneoagoak sortzeko potentziala ere baduela adierazten du.

Auzoen arteko dinamika soziolinguistikoak

Aztertu diren auzoetako dinamika soziolinguistikoak (auzo-tipologiak) eta hirigintza ezaugarriak gurutzatzean (hirigintza klusterrak), zenbait ezaugarri nabarmentzen dira. Esaterako, aztertu diren Erdigune Funtzional guztiak azpierzaitzaileak dira; aztertu diren auzo guztietatik gainerabiltzaileak diren guztiak Beste Auzoetan aurkitu dira. Dena den, agerian geratu da, Auzo Funtzionaletan ez bezala, auzo berri horietan ezaugarri urbanistiko oso ezberdinak topatu direla, eta euskararekiko portaerak ere aldakortasun nabarmena duela.

Erdigune Funtzionalez kanpoko Beste Auzoak garai historiko ezberdinetan sortutako auzoak dira eta forma eta izaera oso ezberdinak dituzte beraien artean. Talde horretako auzoen artean ageri dira euskararen kale-dinamika muturrekoenak: euskararen kale-erabileraren datu positiboak eta negatiboak bertan topatu dira. Beste Auzo gehienak Erdiguneen inguruan nahiz periferian kokatzen dira eta, oro har, herriko dinamika soziolinguistikoekin lerratzen dira. Badira azpiegitura-linealek edo malda-etenek²⁹ eraginda isolamendu morfologikoa eta kokapen periferikoa duten Beste Auzo batzuk ere; azken horiek, udalerriko joeretatik neurri batean deslotuta, dinamika soziolinguistiko propioak erakusten dituzte. Antzeko patroia antzematen da auzo berriagoetan ere.

Euskararen kale-erabileraren bilakaerari erreparatuta, goranzko joera erakutsi duten auzo bakarrak Beste Auzoen klusterrean topatu dira. Emaidza hori, auzo horietako espazio publikoaren kantitateari eta kalitateari lotuta egon daiteke, auzo horietan komunitate espazio gehiago eta kalitate handiagokoak baitaude³⁰. Emaidza onenak erakutsi dituzten auzo hauetako kasurik esanguratsuenan (Zarauzko Aritzbatalden) kirol- eta hezkuntza-ekipamenduez gain, gutxieneko komertzio-multzo bat ere agertzen da, bigarren mailako polo funtzional baten gisa interpreta daitekeena.

5.3 Hirigintza ezaugarrien eta euskararen kale-erabileraren arteko harremana, gaika

Haurrak

Ikerketaren emaitzen arabera, euskararen erabileran lotura positiboa duten hirigintza-aldagai gehienak haurren taldean agertzen dira modu estatistikoki esanguratsuan. Horrek bat egiten du adin-taldeen arteko kale-erabileraren joerarekin: euskararen presentziarik handiena haurren artean antzematen da, haurrak direlako euskaraz gehien aritzen direnak. Joera hori, gainera, hizkuntza-ideologiek elikatu eta erreproduzitu egiten dute: biziberritze prozesuan aurrera egiten ari diren hizkuntza gutxituek —euskara tartean— haurrak sozializatzeko tresna gisa erabiltzen dira, baina gaztetatik heldutasunerako jauzia egitean, eta gizarteak produktibo eta funtzional izatea eskatzen duenean, maiz hizkuntza hegemonikoaren aldeko muda gertatzen da, gizartearen aurrean prestigiodun irudi edo posizio sozial bat erakusteko.

Bestetik, haurrek zaintzaren erdigunean kokatzen den adin-taldea osatzen dute; horregatik, batetik, hizkuntza-erabilera gehien baldintzatzen dutenen artean daude eta, bestetik, zaintzari

²⁹ Azpiegitura-lineal gisa ulertzen dira errepide zein trenbideak, adibidez; bestalde, malda-etena esaten zaio orografian bat-bateko altitude aldaketa ematen denean (labar batean adibidez). Bi kasuetan, bi guneren arteko jarraitutasunean etena gertatzen da.

³⁰ Hirigintza zaintzaileak kalitateko espazio publikoa izan dadin aintzat hartzen ditu, besteak beste, adin ezberdinekoen beharretara egokitzen diren jolasak, iturri, komun publiko, elementu natural, itzal, aterpe, banku eta mahaiekin atondutakoak. Lan honetan, eskuragarri izan diren datuak aintzat hartuz, banku kantitateari erreparatu zaio kalitatea neurtzeko. Gainera, euskararen kale-erabilerarekin lotura nabaria agertu du datu honek.

lotutako hirigintza-ezaugarriekin lotura estua dute: aztertu ditugun herrietan euskararen erabilerarekin korrelazio indartsuena duten hirigintza aldagaiak zaintzara orientatutakoak dira, eta korrelazio hori bereziki indartzen da haurrak tartean daudenean. Esanguratsua da, haurren presentziaz ari garenean, euren zaintzaileen behar eta ohiturei erreparatzea. Ikuspuntu horretatik ulertzen da ikerketa honetan ateratako ondorioetako bat: haur-jolasak eta egunerokotasunean behar diren dendak eta/edo tabernetako terrazak batera (edo gertu) agertu diren guneean euskararen kale-erabilera datuak nabarmenki positiboak dira. Azken horiek beren baitan hartzen dute haurrak jolasean dauden bitartean eguneroko erosketak egin ahal izatea, hau da, parkean dagoen haurra, beste norbaiten zaintzapean utzi eta bost minutuz erosketa hori egitea bermatzen duen egoera izatea edo, haurrak jolasean dauden bitartean, zaintzailea beste pertsona batzuekin sozializatuz taberna bateko terrazan egon ahal izatea. Haurren zaintza lanetan dabilzan pertsonen egunerokotasuna errazten eta hobetzen duten egoerak dira biak ala biak.

Zerbitzuak eta ekipamenduak

Ikerketa honetan ikusi da osasun eta administrazio ekipamenduen presentziak inguruko euskararen kale-erabileran lotura negatiboa izan dezakeela (auzokideek, berez duten euskalduntasunetik gehien urrutiratzen da kale-erabilera datua; GET2). Bestalde, esanguratsua da, oinarritzko ekipamendu horietako batzuk, lehen hezkuntzako zentroek (haurren presentzia medio) eta kirol azpiegiturek (denek edo lehen mailakoek) lotura positiboa erakutsi dutela euskararen kale-erabileran.

Hori honela uler daiteke: zerbitzu horiek erabiltzea ia herritar guztiei dagokie (administrazioaren kasuan, bereziki, helduei), eta erdi-mailako herrietan, gainera, jendeak toki berberetara jo behar izaten du tramiteak egiteko. Horrelakoetan, norberak bere hizkuntza-gaitasuna eta eguneroko hizkuntza-ohiturak eramaten ditu espazio komun horietan.

Idea hori lehen aipatutako beste batekin lotzen da: kale-erabilerak ez du bakarrik erakusten jendeak zein hizkuntza erabiltzen duen. Horrez gain, iradokitzen du nolako hiztunak ibiltzen diren leku bakoitzean, eta zein espaziotan biltzen den jende mota jakin bat. Adibidez, kiroldegira joaten diren pertsonak eta administrazioa edo osasun-zentrora joan behar dutenak ez dira zertan talde bera izango. Horregatik, pentsa daiteke derrigorrez joan beharreko lekuetan eta aukerazko lekuetan hizkuntza-erabilera ezberdina entzuten bada, baliteke zaintzari lotutako hirigintzako elementu batzuk —askotan aukerazkoak direnak— herritarren zati bati bakarrik egokitzea, prezioagatik, ordutegiagatik edo gizarte-ohiturengatik. Hori dela eta, espazio horiek “zaintzaileak” direla esan arren, agian ez dira guztiz inklusiboak.

Bestalde, aztertutako herrietako ekipamenduen eta zerbitzu guneen (non ostalaritza establezimendu eta dendak dauden) kokapenarekiko ohiko pauta batzuk ikusi dira ikerketa honetan [ikus beheko irudia]:

- Administrazio, kultur eta osasun ekipamenduak elkarren inguruan kokatu ohi dira, zerbitzu-gune nagusietan, Erdigune Funtzionaletan.
- Kirol ekipamenduak azaltzen dira alduenduenak eta modu isolatuagoan, harremana soilik hezkuntza zentroekin dutelarik.

baliabide, zerbitzu edo espazio batzuetatik kanpo geratzeko arrisku handiagoa duten berberak izaten dira.

Ikerketa honetan ikusi denez, oinezkoen fluxu nagusiak bat datoz aurrez aipatutako denda eta ostalaritza establezimenduen saturazio gehieneko guneekin. Lan honetan oinarrituta ezin da zuzenean esan oinezkotasunaren eta euskararen kale-erabileraren artean lotura positiboa dagoenik; hala ere, Erdigune Funtzionaletatik kanpoko auzoetako datuak gertutik aztertuta, ikusi da kotxeen mugikortasuna nagusi den lekuetan ere —espazio publiko handiagoa eta hobeagoa dagoenean— pertsonen arteko elkarrizketak gehiago gertatzen direla ibilgailu pribaturik ez dagoen espazioetan, hau da, oinezkoentzako guneeetan.

Elkarguneak

Espazio publikoen kalitateak eta kantitateak euskararen kale-erabilerarekin lotura estatistiko zuzena dutela ikusi da. Gure inguruko espazio publikoak herri-, auzo- eta komunitate-mailan aztertu dira, eta bakoitzak euskararen dinamiketan eragin desberdinak dituela agerian geratu da. Kalitatezko espazio publikoek, elkarguneek alegia, elkarrekin egoteko aukera ematen dute, eta funtsezkoak dira besteekin elkartu eta solasaldiak izateko.

Zerbitzu eta jarduera gehien biltzen diren eremuetan —*Erdigune Funtzionaletan*— euskararen kale-erabilerak ez ditu herriaren batz bestearik emaitza hobeagoak erakutsi. Gainera, auzo horietan espazio publiko gutxiago dago, eta daudenak kalitate eskasagoak izaten dira, Beste Auzoekin alderatuta. Hala ere, paradoxikoki, erdigune horietan kokatzen dira herri mailako espazio publiko erreferentzialak, eta baita komertzio eta ostalaritza gehiena ere. Festak, feriak eta ekitaldi nagusiak egiteko erabiltzen diren elkarguneak direnez, errazagoa da bertan kanpoko jendearekin (auzo edo herriz kanpokoekin) topo egitea.

Aldiz, Beste Auzoetan herri mailako elkarguneak urriagoak dira, eta dauden plaza eta espazio publiko txikiek erabilera auzotarragoa edo komunitate mailakoa dute. Tokiko izaera eta gertuko arteko erabilera duten espazio hauek *gureak* sentitzen ditugu, eta errazago gertatzen dira bertan harreman intimoagoak. Aztertutako auzoetan datu onenak dituztenek, oro har, komunitate espazio ugari dituzte, eta gainera kalitatezkoak dira (adibidez, banku kopuruari begiratuta behintzat).

Ikerketak erakutsi du herri mailako elkarguneek alde batetik, eta auzo- eta komunitate-mailako espazioek bestetik, lotura dutela euskararen erabilerarekin. Dirudienez, dinamikak herri bakoitzeko euskara gaitasunaren eta erabileraren arabera alda daitezke. Baldintzaz gaindiko auzoetan, komunitate espazioek euskaraz aritzeko aukera errazten dute, eta herri mailako elkarguneetan erabilera hori lausotu egiten da. Alderantzizko joeraren zantzuak ere badaude: baldintzaz azpiko herrietan, komunitate espazioetan zailagoa da euskara topatzea, baina herri mailako elkarguneetan errazagoa.

5.4 Metodoaren eta hipotesiaren irakurketak

Ikerketa honetarako garatutako metodologia, oro har, egokitzen da. Sortutako adierazle sozio-urbanistikoekin eginiko klusterizazioak garai historiko eta hirigintza aldagai tradizionalen baitako klusterrak azaldu ditu. Horretaz gain, adierazle eta aldagaiek hirigintza zaintzailearen ezaugarriak islatzen dituztela ikusi da. Gainera, aurrez egindako azterketa soziolinguistiko ezberdinetatik ateratako ikaskizun ugari ikerketa honetan auzoen arteko azterketa estatistikotik ondorioztatuko emaitzekin lerratu dira.

Lan honen hasierako hipotesia honakoa zen: zaintzak erdigunean jartzen ez dituen hirigintza-ereduak eragin mugatzailea du hizkuntza gutxituen kale-erabileran. Kalearen eraldaketan gaurdaino hartu diren erabakiek erdigunean ekonomiaren beharrak izan dituzte eta, ondorioz, pertsonen elkar-zaintzarako beharrak bigarren mailan utzi dira. Honek euskararen kale-erabilerari nola eragin dion ikusi nahi izan da eta, atal honetan aurkeztu diren ikaskizunak aintzat hartuta, hipotesia baieztatu daitekeela ondorioztatzen da: euskararen kale-erabileran eragin positiboa duten aldagai sozio-urbanistikoak, oro har, hirigintza zaintzailearen testuinguruan txertatu daitezkeela esan daiteke. Beste era batera esanda, hirigintza zaintzailearen ikuspuntua abiapuntutzat hartuta sortu diren adierazle eta aldagaiek lotura esanguratsuak azaldu dituzte euskararen kale-erabilerarekin. Beraz, ikerketa honek erakutsi du zaintzak erdigunean jartzen dituen hirigintza-ereduak hizkuntza gutxituen kale-erabilera ere zain dezakeela.

Ikerketa prozesuan, hainbat zalantza argitu dira eta, aldi berean, kezka berriak sortu. Bidean hainbat aldagai eta irakurketa arbuatu diren moduan, beste lan esparru berrien beharra antzeman da (turismoa, etxebizitza, gai sozioekonomikoa...). Era berean, erabili diren datu estatistiko eta numerikoen artean gabeziak sumatu dira arlo askotan, batzuk ez direlako existitzen eta beste batzuk hasieratik ez direlako kontsideratu, baina ikerketan aurrera joan ahala bere intzidentziaren garrantzia nabarmena izan da³¹. Honek nahi baino sakontasun eta sendotasun gutxiagoko ondorioak azaleratu ditu eta horrela ulertu behar dira hemen aurkeztu diren ondorioak: *espazioa eta hizkuntza* ikerketa-lerroan hastapeneko gaiak plazaratzeko balioa duen ikerketa bezala, tokian tokiko ezaugarriei guttiz lotutakoa.

³¹ Aurrez aipatu bezala, auzoen klusterizazio zehatzago bat egiteko, lagin gehiago beharko lirateke, hau da, herri gehiago aztertu, auzo gehiagotako datuak lortzeko. Bestalde, datu soziolinguistiko zehatzagoak behar dira, eta egungo herrien auzoen banaketa aintzat hartuta neurtuak eta geolokalizatuak. Gainera, datu sozioekonomikoen azterketa sakonagoaren beharra antzeman da, biztanleriaren ezaugarrietan sakondu eta turismoaren intzidentzia erakuts dezaketena gehituz. Horrez gain, datu geografikoetan mugak topatu dira baliabide publikoetan; batetik, metodo honetako galdera zehatzei erantzun ezinagatik (oineko ibilbideen definizioa, adibidez) eta, bestetik, Autonomia Erkidegoko datuez haratago, Euskal Herriko eremu osoko datuak lortu behar izateagatik. Era berean, euskararen kale-erabileraren bilakaera sakonki aztertzeke iraganeko datuen falta nabaritu da, bai soziolinguistikoetan, baita sozio-urbanistikoetan ere. Bestalde, lurralde mailako irakurketa sakonago batek hainbat herriren arteko migrazio fluxuak ulertzen lagunduko luke eta, biztanle berri horien GET indizea aztertuta, kale erabileraren bilakaeran emaitzak ere hobeto ulertuko lirateke. Azkenik, emaitzak baieztatzeke garaian, prozesua hasi baino lehen parte hartu zuten herritarrekin bildu eta ondorioaren partekatzerik ez da egon; horrek, sendotasuna emango lieke emaitzei.

Aurrera begira, ildo berean sakontzeko beharra agerikoa da, bereziki klusterizazioak identifikatutako bigarren auzo-multzoan ('Beste Auzoak') lagina handituz: helburua litzateke bertan antzemandako heterogeneitate maila altua azpimultzotan egituratu eta barne-dinamikak zehaztasun handiagoz interpretatzea. Izan ere, Erdigune Funtzionaletatik kanpoko auzo hauek dibertsitate urbanistiko eta soziolinguistiko handiena erakusten dute eta bertan erregistratzen dira euskararen kale-erabileraren balio eta bilakaera positiboenak zein negatiboenak. Auzo horien artean xehetasun gehiago izateko eta multzokatze berriak egiteko lagin gehiago beharko litzateke. Hortaz gain, denboran aurrera eginez berriro datu metodoa aplikatuz informazio oso interesgarria lortuko litzateke, hau da, orain egin den hirigintza egoeraren argazkia berriro eginez eta hori datu soziolinguistiko geolokalizatu berriein alderatuz.

Bide osagarriak ere azaldu dira ikerketa prozesu honetan; helburua hirigintzak euskararen kale-erabilerarekin duen eragina aztertzea bazen ere, prozesuan beste ikasgai asko lortu dira, beste helburu edo galdera batzuei erantzun ahal dietenak. Honela, espazio publikoaren erabileran nor dabilen eta nola dabilen ikusteko bide berriak zabaldu dira eta erabilera hauek pertsonen ezaugarrien arabera interpretatzeko aukera dago. Horrez gain, Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa osatu eta fintzen jarraitzeko lan-lerroak ere agerian geratu dira. Beste alde batetik, hirigintzarekin espezifikagoak diren irakurketak egiteko bideak ere ikusten dira, zerbitzu eta ekipamendu publiko eta pribatuen arteko harremanak eta patroiak antzemateko aukerak baitaude.

6. AZKEN LERROBUAK

Azken atal honek itxiera emango dio txostenari, metodologiaren, analisiaren eta ondorioen inguruko gogoetari azken hitzak jarritz. Horretarako, kalearen edota espazio publikoaren azken 30 urteetako eraldaketak erreparatuko dira, metodologiarako sortu diren auzo-multzo eta analisi aldagaiak azpimarratuko dira, kale-erabileran eragiten duten faktoreei erreparatuko zaie eta hori hipotesiaren baieztapenarekin lotuko da. Azkenik, ikerketaren ondorioetatik ateratako etorkizunerako proposamenak egingo dira.


6.1 Kalearen erabilera aniztasunetik zonifikaziora igaro da

Asko aldatu da gure hirien eta herrien izaera XX. mendearen azken laurdenean euskararen kale-erabileraren neurketak hasi zirenetik gaur egunera. Garai horretan eguneroko jarduna nagusiki gertuko espazioaren erabileraren baitan gertatzen zen, kalera irekitzen baitziren behe solairuetako lantegiak, tailerrak, komertzioak (tokiko denda txikiak), biltegiak, tabernak eta atariak. Jarduera aniztasuna nabarmenagoa zen herrietako erdiguneetan, baina hortik kanpo kokatutako auzoetan ere ohikoa zen oinarrizko elikagaien salmentarako dendak (okindegia, harategia, arrandegia...) izatea, baita auzoko ileapaindegia ere. Fabrika asko ere herrien erdiguneetatik gertu zeuden eta lanerako joan etorriak eskoletakoekin batera eta oinez egitea ohikoa zen. Laburbilduz, herri barneetan zegoen lan produktiboak kalea "erabiltzeko" modua askotarikoa izatea eragiten zuen.

Egunerokotasunean kotxez egindako joan-etorri kopurua oraingoa baino askoz txikiagoa bazen ere, gure kale eta plaza askok aparkaleku izaera zuten herri barneetan eta oraindik errepide nazionalak herrigunetik igarotzen ziren. Autoek, beraz, erdiguneak hartuta zituzten eta herriak eskaintzen zituen zerbitzu publiko kopurua (kiroldegia, eskola, osasun zentroa, kulturarako establezimenduak etab.) egun ditugunak baina azkoz eskasagoak ziren. Horrela, kaleak zaratatsuagoak, zikinagoak, landaredia urrikoak eta oinezkoentzako espaloi estuagokoak ziren, orohar.

Hirigintza legediaren garapenak zonifikazioan du oinarria. Zonifikazioa da esku-hartze publikoko teknikak biltzen dituen multzoa, zeinen bidez eremu bateko lurzorua azpierenmutan banatu eta azpierenmu bakoitzari erabilera/eginkizunari, ezaugarri fisikoei eta dentsitate/eraikigarritasunari lotutako parametroak esleitzen zaizkion (Gimeno Fernández, 2025). Kalearen erabilera *konpartimentuetan* banatu da eta, beraz, hirietako lan produktibo asko —tailer txiki zein industria handiak— herriguneeetatik kanpo kokatzen dira gaur egun. Industriaguneak sortu dira lehenik eta parke teknologikoak ondoren. Hori garraio publikoa eta oinezkoen bide egokiak kontuan izan gabe egin da eta, ondorioz, auto pribatuaren erabilera sustatu da. Modu horretan, kaleetako bizitasun maila asko murriztu du eta, gainera, industria handiek utzitako orubeak etxebizitza-auzo berriz bete dira. Hedapen eta eraldaketa horrek beharrezko azpiegitura publikoak eraikitzea ere ahalbideratu du, kasu gehienetan erdiguneeetatik kanpo, kiroldegi eta eskolen kasuan batez ere. Egunerokotasuneko mugikortasuna, beraz, konplexuagoa da orain; eguneroko erosketetarako dendak eta oinarrizko zenbait ekipamendu etxetik oinez joateko moduan izanda ere, beste zerbitzu batzuk (eskolak, adibidez) zein lantokia herri kanpoaldean edo herritik kanpo izateak herritarren joan-etorri behartuak areagotu eta zaildu ditu.

Gainera, mende aldaketan etxebizitza produkzioaren logikak gailentzen hasi ziren eta, ondorioz, hirigintza planeamendu berrietan neurrigabeko hiritartzea gertatu da; gure herriek landa lurretara egin duten hedapena higiezinaren edo etxebizitzaren burbuilaren leherketaren ondorioa izan da. Aldi berean, auzo berri horiek espazio publiko egokiagoak eta azpiegitura publiko berriak kokatzeko aukerak eskaini dituzte. Lehen herri guztian zehar jolasten zuten haurrek orain auzo berrietako jolas-parke zehatzak —horretarako sortuak— dituzte, hau da, eskala txikiko zonifikazioa ere jazo da. Espazio publikoan autoak sortutako arazoei erantzun nahian, bidegorri sare egokiak (segregatuak) kokatu dira. Prozesu horiek erdiguneen oinezkoentzarekin batera egin dira eta, aldi berean, murrizten joan dira inguruko auzoetako behe solairuetako aktibitateak. Oinezkoentzako inguruetan pilatu dira komertzio eta ostalaritza guneak, bai eta gure udal eta administrazio zerbitzuak ere. Zerbitzu kontzentrazio horrekin batera, espazio publikoaren merkantilizazio eta globalizazio zantzuak agertu dira kasu batzuetan eta turistifikazio prozesuak ere iritsi dira herri batzuetara. Baina egoera are konplexuagoa da oraindik, oinezkoentzako erdigune komertzial horiek lehiari dihardutelako kotxean oinarritutako mugikortasun eredia indartzen duten hirietatik urruti kokatutako merkatalguneekin. Funtzio bakarreko *gune espezializatuak* sortu ditugu eta gure kaleen erabilera aniztasuna galdu da, erdiguneaz kanpoko auzoetan, bereziki; eguneroko bizitzan egin beharrekoak bata bestearengandik alderatu ditugu eta lotura mugikortasun pribatuaren bidez egiteko logika ezarri da. Horrela, espazio publikoaren eskakizun nagusia mugikortasuna bermatzea izan da, egonean egoteko eta besteekin topatzeko txokoak sortzea bigarren mailan utziz.



Irudia. Erabilera aniztasunetik zonifikaziora: lehen (nahasketa) vs gaur egun (banaketa).

Edonola ere, 30 urteotan gure herrietako kaleetan gertatu diren aldaketak hirigintza-araudiak finkatutakotik eratorri dira, besteak beste. Hau da, lurralde antolamendu zein hirigintza-plangintzen oinarria zonifikazioa da; beraz, espazioei erabilera ezberdina ematen zaie.

Aldaketa horiek, gainera, eragina izan du pertsonen arteko harremanetan. 2021ko kale-neurketaren txosten teknikoan adierazi legez,

Espazio publikoaren pribatizazioa izan da globalizazioak ekarri dituen aldaketa horien ondorio argienetako bat hirietako eta herrietako kaleetan, eta tabernetako terrazak dira horren erakusgarri argiena. Kalean esertzeko ordaindu beharra dago, eta horrek zenbait kaleetan egoteko eta harremanak garatzeko aukera gizartearen zati bati bakarrik eskaintzea dakar. Komertzio txikiaren desagertzearekin, kaleen behe solairuak hustu dira; ondorioz, herri txikienetan zerbitzu galera handia eta kale-bizitzaren murrizketa nabaria gertatu dira. Hiri handienetan, aldiz, nazioarteko izaera duten azalera handiko komertzioak etorri dira. Horiek horrela, kale horietako bizimodua erabat aldatu da; profil ekonomiko eta adin zehatz bateko jende normatiboari zuzentzen baitzaizkio kontsumo gune horiek. Esanguratsua da, kasu batzuetan, lokal huts horiek gazteen bilgune bihurtu direla eta, ondorioz, gazteriaren kaleko egonaldiak murriztu egin direla. Gazte askok beren aisialdia eremu pribatuan igarotzea (Hernández García, 2010)³² eragin du horrek guztiak.

Aipatutako aldaketa horiek guztiek espazio publikoa erabiltzeko aukeren murrizketa eragin dute, eta, era berean, gune ezberdinen arteko desorekak ekarri dituzte. Gainera, aurrez aipatu den bezala, gizartea geroz eta zaharragoa da eta kulturalki anitzagoa. Konplexutasun horri erantzuteko mugak nabariak dira, eta segregazio espazialaren eraginez, desorekak areagotzeaz gain, ez daude giza harreman aberatsak sustatuko dituzten erabiltzaile anitzeko espazioak.

(Altuna Zumeta, Iñarra Arregi eta Basurto Arruti, 2021, 11. orr)

6.2 Zentro bakarreko hirigintza ereduak euskararen erabileran eragiten du

Hirigintza zaintzailean oinarritutako ikerketa honek, zaintza ikuspuntua aztertu du Euskal Herriko bost herri ertainetan. Herriaren errealtatea ezagutzeko, hirigintza zaintzaileak auzoa definitzen du gune adierazgarri gisa, non eguneroko bizitzarako zerbitzuak, ekipamenduak eta komertzio txikiak modu ekitatiboan banaturik egotea aldarrikatzen duen. **Auzoak**, beraz, eguneroko bizitzaren garapenerako **unitate gisa aurkezten dira**. Bide horretan, ikerketan, auzotarren ikuspuntuak eta pertzepzioak ezinbestekotzat hartu dira auzoen definizioetarako.

Aztertutako herri ertainen auzoen portaera hobeto ulertze aldera, hirigintza aldagaiak kontuan harturik, bi auzo mota bereizi dira: Erdigune Funtzionalak eta Beste Auzoak. Auzo egituraketa hori herritarren hizkuntza-praktikan edo interakzioetan zeresana izan dezakeelako aztertu da, eta hori izan da metodologiaren oinarri esanguratsuenetako bat. Erdigune Funtzionalak historikoki herrietako alde zaharrenak dira, eta biztanlez eta etxebizitzari dagokionez inguru dentsuoenak izan ohi dira. Beste Auzoak, aldiz, garai historiko ezberdinetan sortutako auzoak dira eta forma eta izaera oso ezberdinak dituzte beraien artean.

Oro har, ikusi da aztertutako herriak zentro bakarretarako joera erakusten dutela eta hori ez datorrela bat hirigintza zaintzailearen ereduarekin. Dena dela, monozentrismoa eta polizentrismoa ez dira guztiz bereizi daitezkeen bi kategoria, baizik eta continuum bat osatzen dute. Hau da, zenbait herritan zentroa garbi identifikatzen bada ere, auzoan bertan egon daiteke beste zentro bat, besteak beste, auzoaren izaera propioa indartzen duena. Gainera, ikerketak erakutsi digu, auzoaren izaerak eta bertako herritarren profilak elkarreraginez antolatu direla azpiegiturak eta ekipamenduak; ondorioz, arrazoizkoa da pentsatzea irismen- eta irisgarritasun-neurriak ere elementu horien arabera zehaztu direla.

Zentro bakarreko hirigintza ereduak ere badu zerikusia herritarren arteko topaketak areagotzearekin, herritar guztiek establezimendu berberetara jo behar baitute eguneroko praktikak garatzera. Toki berean jende kantitate altuagoa egoteak eta, horrek berariazko duenez, toki berean ezezagun kopuru altuagoa jazotzeak eragina du hizkuntza praktikan. Lehenengo ideiarekin lotuta (jende kantitate altuagoaren ideiarekin lotuta) eta gorago aipatu bezala, euskal hiztunak gaztelera hiztunak ere badira, baina hori ez da kontrako noranzkoan gertatzen eta, ondorioz, akomodazio linguistikoak hizkuntza hegemonikorantz jotzen du. Bigarren ideari erreparatuz (ezezagun kopuruaren ideari erreparatuz), herrian topatutako ezezagunekin ere hizkuntza hegemonikora jotzeko aukera egon ohi da, euskal hiztunek ezin baitute aintzat jo ezezagun horrek hizkuntza gutxituan komunikatzeko gaitasunik, ohiturarik edota nahirik izango ote duen. Gainera, hizkuntzaren erabileraren negoziazio interpersoneko praktika edota egoera markatua izan ohi da eta hiztun askok hori saihestera jo dezakete. Paragrafo honetan aipatutakoaren baitan irakurri daiteke ikerlan honek erakutsitako datu zehatz bat: herrietako elkarguneek, zenbat eta txikiagoak eta gertukoagoak izan, gero eta modu estatistikoki nabariagoan erreproduzitu dute auzoko egoera soziolinguistikoa. Aldi berean, herrietako Erdigune Funtzionaletatik urrunen edota irisgaitzen dauden auzoek erakutsi dituzte muturrekoenak diren egoerak, bai gaztelaniarekiko joeran bai euskararekiko joeran.

Herritar guztiak establezimendu berberak erabili behar izatea ez da neutroa, ondorioak baititu herritarren egunerokotasuneko bizitzan eta hizkuntza hautuan. Hori horrela izanda, zentro bakarrerako joera duen hirigintza ereduak herritar batzuen bizimodua erraztu eta beste batzuen zaildu dezake irisgarritasunaren ikuspuntutik.

6.3 Osasun eta administrazio guneek euskararen erabilera apal dezakete eta hezkuntza eta kirol guneek areagotu

Goian aipatutako norbanako faktore horiek auzoan duten pisua garrantzitsua da kalean euskara gehiago edo gutxiago entzuteko. Horrez gain, beste hainbat faktorek ere eragiten dute. Ildo horretan, garrantzitsua da auzoko egoera soziolinguistikoa ezaugarritzen duten biztanleen eta kalean dabiltzan hiztunen arteko bereizketari erreparatzea. Zentzu horretan, hirigintza erabakiek auzoen arteko joan-etorriak eragin ditzakete eta, ondorioz, auzo bateko kale-erabilera datuak aldendu egin daitezke berezko datu soziolinguistikoetatik. Eguneroko bizitza aurrera eramateko zerbitzuen eta ekipamenduen kokapenek (heziketa-, osasun- administrazio-zentroak eta kultura edo kirol instalazioek, adibidez) pertsonen fluxu nabariak eragiten dituzte eta horrek auzoetako euskararen kale-erabileran eragin zuzena du. Hori horrela, garrantzitsua da auzo bakoitzeko kaleetan nor dabilen erreparatzea.

Esate baterako, hiztunen adina edota haurrek elkarrizketetan duten parte-hartzea erabakigarria da. Izan ere, datuek erakusten dute haurren presentziak euskararen erabilera igotzen duela eta, beraz, haurren kaleko presentziari bideratutako hirigintza erabakiek (hala nola, lehen mailako hezkuntza zentroak eta lehen mailako dendetatik gertu dauden jolaslekuak) euskararen erabilera areagotzea dakartela ikusi da. Aldi berean, ekipamendu eta hirigintza erabaki horiek bat datoz hirigintza zainzailearen ikuspuntuarekin eta, beraz, korrelazio altua ikusi da, haurren bitartez, hirigintza zainzailearen eta euskararen erabileraren artean.

Hiztunen profilarren gaian gehiago sakontzeko, ekipamendu motaren arabera irakurketa zehatzagoak egitea komeni da. Ikerketa honetan ikusi da osasun eta administrazio ekipamenduen presentziak inguruko euskararen kale-erabileran inpaktu negatiboa izan dezakeela, hau da, auzokideen euskalduntasun indizetik gehiago urrutiratzen dela inguru horietako kale-erabilera datua. Fenomeno horren oinarritzko arrazoia honako hau izan daiteke: herritar guztiak daude behartuta zerbitzu horiek erabiltzera (administrazioaren kasuan, bereziki, helduak) eta udalerrri ez oso handietan zerbitzu horiek toki bakarrean izaten dira askotan. Derrigortasun horrek eragin lezake erdaldunen presentzia handiagoa izatea espazio horietan kaleko gainontzekoetan baino, eta horrek erdararen erabilera areagotzea espazio hauen inguruan. Bestalde, hezkuntza zentroek mesede egiten diote euskararen erabilerari, hauetan haurren eta gaztetxoaren presentzia handiagoa izaten da eta. Kirol ekipamenduen inguruan ere euskararen erabilerak gora egiteko joera du. Horren zergatia gehiago aztertu beharko litzateke, baina agian ekipamendu horien erabiltzaileen ahalmen ekonomikoak zerikusia izan dezake.

6.4 Hirigintza zaintzaileak eragin positiboa du nagusi den ordena soziolinguistikoan

Ikerketa honetan ikusi da hirigintza zaintzaileak³³ eragin positiboa duela gailentzen den ordena edota egoera sozialaren (hegemonikoaren) barruan. Ondorioz, udalerraren izaeran euskarak balio sinboliko eta identitario esanguratsua duen neurrian, hirigintza-eredu zaintzaileak euskararen erabilera sustatzeko joera izango du. Batez ere, herri “izaera” duten elkargunetan eta plazetan, baina baita elkargune erdaldunagoetan gertatzen diren harreman intimoagoan edota gertukoagoan ere.

Herri izaera sendotu eta nolabait “zaintzen” duten establezimenduetan —askotan hurbileko izaera eta tamaina txikiagoa izaten dutenetan— euskara maizago entzuten da. Aldiz, produktibitatea eta salmenta “globalak” lehenesten dituzten establezimenduetan, erdarek presentzia handiagoa izaten dute. Ildo horretan, aztergai ditugun udalerrri ertainetan, halakorik bada, produktibitatea helburu duten denda-kateak erdigunean kokatu ohi dira, eta horrek erdigunean erdararen presentzia areagotzea ekar lezake. Besteak beste, denda-kateek jendea erakartzen baitute, eta ikusi dugu jendearen joan-etorriak (fluxuak) gazteleraren erabilera areagotzen duela kasu gehienetan. Dena den, gerta liteke fluxuaren jatorrian dagoen egoera soziolinguistikoa euskaldunagoa izatea; horrek, jakina, gazteleraren presentzia murriztuko du.

Ikerketak, gainera, erakutsi du badirela joera propioa duten ekipamenduak. Esate baterako, osasun-zentroetan, oro har, gazteleraren erabilerak gora egiten duela ikusi da. Zentro horiek dinamika propioa dute. Esan beharra dago adineko gehiago behatu direla osasun zentroen inguruan eta horrek eginga izan duela gazteleraren presentzia areagotzean; izan ere, adinekoen artean gaztelaniaren erabilera handiagoa da. Horren harira, *zein hizkuntza entzuten den non* (adibidez, kiroldegien inguruetan eta oinezkoen fluxu handiagoa dagoen tokietan euskara gehiago entzuten da) ez da bakarrik hizkuntzaren erabileraren erakuslea, *nor egon daiteke non?* galderari ere erantzuten baitio. Joera zehatz batzuk identifikatu izanak bide ematen du ondorengo azterketa sakonago batean hiztun profilen eta, esate baterako, ekipamenduen erabiltzaileen maila sozioekonomikoaren edota ohitura kulturalen arteko harremanei buruzko analisia egiteko.

6.5 Zer egin dezakegu?

6.5.1 Hiri zaintzailea sustatu

Zentro bakarreko hirigintza-ereduek hiri zaintzailearen ikuspuntutik desorekak eragin dituzte Erdigune Funtzional eta Beste Auzoen artean. Hala, hizkuntza-praktikei erreparatuta, pentsa

³³ Komenigarria da gogoratzea zeri deitu zaion hirigintza zaintzailea: “hirigintza zaintzaile batek zaintza-lanen beharrak erdigunean ipintzen ditu, eta horretarako beharrezkoak diren zerbitzu eta ekipamenduak oinezkoa eta gertukoa den zerbitzu sare publiko batean eskaintzen ditu”.

daiteke auzoek autonomia eta barne-funtzionamendu handiagoa izango balute —hau da, auzo bakoitzak bere eguneroko beharrak bertan asetzeko aukera— GET indizearen eta kaleen erabileraren arteko aldea ez litzatekeela ohikoa baino handiagoa.

Beste era batean esanda: erdigune anitzeko hiri-antolaketak esan nahi du hiria zentro bakar baten inguruan antolatu beharrea, hainbat erdigune izatea; eta erdigune horiek orekatuta egotea, hau da, eguneroko bizitzarako eta zaintzarako behar diren baliabideak (espazio publiko egokiak, ekipamenduak eta zerbitzuak, mugikortasun erraza, etab.) hiri osoan zehar ondo banatuta egotea. Horrela, auzoak hartzen dira eguneroko bizitza eta zaintza antolatzeko unitate nagusitzat.

Horrela, autonomia handiagoa duten auzoek (eguneroko beharrak bertan ase ditzaketenek) tokiko hizkuntza-ohiturak indartu ditzakete. Gainera, elkargune diren plazak eta parkeak oso garrantzitsuak dira, testuinguru informalean hizkuntza erabiltzeko aukera erreal eta erosoak ematen dituztelako. Aztertutako herrietan, hau funtsezkoa da hizkuntza biziberritzeko: normalizazioa ez baita lortzen eremu formalean bakarrik (eskolan eta administrazioan), baizik eta eguneroko harremanetan ere. Azkenik, eremu informalek hizkuntza-praktikari izaera ludikoa ematen diote, eta hori indar handiko faktorea da euskararen erabilera sustatzeko.

6.5.2 Auzoen arteko sare orekatua eraiki

Hirigintza zaintzailearen helburua ez da herriko auzo bakoitza guztiz beregaina izatea, baizik eta zerbitzuak eta egonean egoteko espazio publikoak horietan zehar banatuta egotea, guztiak Erdigune Funtzional bakarra osatu beharrea. Noski, auzoen arteko interdependentzia horrek auzoen arteko sarearen beharra dakar. Ildo horretan, garrantzitsua da espazio publikoen sare horretan hierarkia logikak ondo barneratzea eta, herri-mailako elkargune nagusiez gain, auzo- eta komunitate-mailako espazio publiko egokiak bermatzea auzo guztietan: ezinbestekoa da auzo guztietan kalitatezko espazio publikoak izatea, pertsonekin topatzeko aukera eskaintzea eta egoteko gune egokiak izatea: fresko eta itzaltsuak udan eta epel eta eguzkitsuak neguan, eserleku, mahai, iturri, jolasleku eta abarrez atonduak.

6.5.3 Oinezkoen ibilbide eta zentro berriak sortu, azpiegitura eta zerbitzu publikoak lotuz

Espazio publikoa sare orokor baten barnean kokatuta antolatzeak sarearen nolakotasunaren inguruko puntualizazio bat eskatzen du. Sare hori oinezkoentzako egokia izan eta, gainera, ibilgailu publiko funtzionalen bitartez josi beharko litzateke, auto pribatuaren erabilera jaitsiz. Hiri polizentrikoa sustatu behar da, beraz, eta zentro horien arteko oinezko lotura egokiak izatea oso garrantzitsua da.

Argi dago elkarguneetatik kanpo herritarren arteko topaketak gerta daitezen oinezkotasun mailak eragin handia izango duela eta, zentzu horretan, ikerketa honetan ikusi da oinezkoen fluxu handiagoa dagoen tokietan euskara gehiago entzuten dela. Horregatik, garrantzia hartzen du

oinezkoen fluxuak gune nagusietatik haratago sustatzeak. Era berean, egungo erdigune funtzionaletan ditugun zerbitzuek eragindako joan-etorriak (behartuak kasu askotan; administrazio zerbitzuetara, osasun etxeetara...) gertatzen diren kaleen kalitatea bermatzeaz gain, ibilbideen arteko lotura berriak sustatzea interesgarria litzateke.

6.5.4 Haur-jolas eremuak oinarrizko komertzio txikiari lotuta eraiki

Bestalde, eguneroko bizitzan agertzen zaizkigun oinarrizko zaintza-beharrak errazteko, funtzio anitzeko kale biziak behar dira; hau da, zerbitzuak, topaguneak eta eguneroko jarduerak elkarren osagarri izango dituzten espazio publikoak. Ildo horretatik, haurren presentziak euskararen erabileran duen eragin positiboa kontuan hartuta, lan honetan argi ikusi da eguneroko erosketetarako dendetatik gertu kokatutako haurren jolas-eremuetan euskararen kale-erabileraren indizeak oro har positiboagoak direla. Ondorioz, tokiko merkataritza txikia espazio publikoaren sare plural baten baitan sustatzeak, zaintza-lanetan ari diren pertsonen eguneroko jarduna errazteaz gain, euskararen kale-erabilera indartzen ere lagun dezake.

6.5.5 Hirigintza erabakietan disziplinarreko ikuspegia txertatu

Gaur egun kale eta plazetan ikus ditzakegun eraldaketak, oro har, hirigintza-legediaren baitan gauzatu dira. Legeria hori, denborarekin, gai eta eskakizun berrietara egokitzen joan da: ingurumen-inpaktua ebaluatzeko txostenak hedatzearekin batera, gaur egun irisgarritasun unibertsala bermatzeko helburuz espazio publikoa kuantifikatzen duten arauak ere bete behar dira. Ildo berean, azken urteotan beharrezkotzat jo da hirigintza-proposamenek genero-berdintasunean duten eragina neurtzea, eta zaintza-lanekin lotura zuzena du dimentsioa horrek. Horri gehitu behar zaio, gainera, hirigintza-planek izan dezaketen eragin linguistikoari erreparatzeko premia. Bestetik, gero eta ozenago azpimarratzen da hirigintzaren eta osasunaren arteko lotura; hala ere, dimentsio horrek ez du oraindik leku zehatz eta egonkorrik legedian.

Testuinguru horretan, gure herrietako espazio publikoan gertatzen dena begirada anitzetatik aztertze joera indartu da, maila teorikoan ikasitakoa praktikara eramateko ahaleginean. Hala ere, ikuspegi horiek maiz modu isolatuan eraikitzen dira (diziplinaz diziplina eta txostenez txosten), eta horrek erraz sor ditzake kontraesanak espazio publikoaren sare bakar horren ezaugarriak finkatzeko orduan.

Ikerketa honek erakutsi du, besteak beste, ikuspegi soziolinguistikotik ere funtsezkoa dela genero-berdintasunaren erdigunean kokatzen den zaintzen ikuspegia. Horrenbestez, gure ustez, hirigintza egiteko moduak eguneratze sakonagoa eskatzen du, eta eguneratze hori ikuspegien arteko elkarreraginetatik abiatuta egin beharko litzateke. Adibidez, euskara eta genero gaiak elkarrekin eta prozesuaren hasieratik lantzea beharrezkoa litzateke, hiri-plangintzarako oinarri sendo eta koherenteak bermatzeko.

Beste era batera esanda, gaur egun sarri banaka garatzen diren ebaluazioak (generoa, hizkuntza, ingurugiroa eta—etorkizunean txertatuko balitz—osasuna), bakoitza bere aldetik egin beharrean, bateratuta egin beharko lirateke; eta, gainera, gaur egun nagusi duten berrikuspen eta zuzenketa

izaera gaituz, plangintza-prozesuen lehen urrats gisa kokatu, ondoren hartuko diren erabakien oinarri izan daitezten.

Laburbilduz, hirigintza zaintzaileak herritarrak jarri behar ditu erdigunean, eta ez herriari “zentro” bakar eta finko bat esleitzeko logikan oinarritu.

7. BIBLIOGRAFIA

- Altuna Ramírez, Jaime eta Hernández García, Jone Miren. (2018). %2,7a Euskara, generoaz mintzo?. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 106, 115–44. <https://bat.soziolinguistika.eus/produktua/bat-106-2018-1-27a-euskara-generoaz-mintzo/> -tik lortua.
- Altuna Ramírez, Jaime. (2023). *Hizkuntzaren funanbulistak: Hizkuntza-sozialazioa kirol eremuan adin eta generoan ardaztuta*. [Dokorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. Artxibo Digitala Ikerketa Irakaskuntza. <http://hdl.handle.net/10810/62640> -tik lortua
- Altuna Zumeta, Olatz eta Iñarra Arregi, Maialen. (2022). *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2021. Txosten teknikoa*. Soziolinguistika Klusterra.
- Altuna Zumeta, Olatz; Iñarra Arregi, Maialen eta Basurto Arruti, Asier. (2021). *Hizkuntzen erabileraren kale neurketa*. Soziolinguistika Klusterra. https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2022/05/HEKN2021_Txosten-teknikoa_20220525.pdf -tik lortua.
- Amorrortu, Estibaliz; Otxotorena Aranguren, Miren eta Zas, Luz. (2025). Spaces of conscientization as a bridge between inequality and contestation. *International Journal of the Sociology of Language*, 291, 53-80. De Gruyter Mouton.
- Asher, Francois. (2004). *Los Nuevos Principios del Urbanismo*. Alianza Editorial SA Madrid.
- Bourdieu, Pierre. (1989). Social Space and Symbolic Power. *Sociological Theory*, 7(1), 14-25. Wiley.
- Ciocoletto, Adriana. (2014). Espacios para la vida cotidiana: auditoría de calidad urbana con perspectiva de género. *PATRIMONIO: Economía Cultural y Educación para la Paz (MEC-EDUPAZ)*, 18(2). <http://dx.doi.org/10.22201/fpsi.20074778e.2020.2.18.76959>
- De La Calle Vaquero, Manuel. (2019). *Turistificación de centros urbanos: clarificando el debate*. Boletín De La Asociación De Geógrafos Españoles, 83. <https://doi.org/10.21138/bage.2829>
- Foucault, Michel. (1986). Of Other Spaces (J. Miskowiec, Ed. & Itzul). *Diacritics*, 16(1), 22-27. Baltimore: The Johns Hopkins University Press. (Jatorrizko lanaren data 1984). <https://doi.org/10.2307/464648>
- Gimeno Fernández, Clàudia. (2025). *Crítica y alternativas al modelo español de zonificación urbanística*. INAP: estudios y comentarios. <https://laadministracionaldia.inap.es/noticia.asp?id=1516750>
- Gómez-Varo, Irene; Delclos-Alio, Xavier eta Miralles-Guasch, Carme. (2022). Jane Jacobs reloaded: A contemporary operationalization of urban vitality in a district in Barcelona. *Cities*, 123. <https://doi.org/10.1016/j.cities.2022.103565>

- Jacobs, Jane. (2020). *Muerte y vida de las grandes ciudades*. Capitán Swing Libros (Jatorrizko lanaren data 2020).
- Haraway, Dona. (1995). *Conocimientos situados: La cuestión científica en el feminismo y el privilegio de la perspectiva parcial*. En D. Haraway (Ed.), *Ciencia, cyborgs y mujeres. La reinención de la naturaleza* (pp. 313-345). Madrid, España: Cátedra
- Harvey, David. (2005). *The Sociological and Geographical Imaginations*. *International Journal of Politics, Culture, and Society*, 18, 211–255. Berlin: Springer.
<https://doi.org/10.1007/s10767-006-9009-6>
- Heller, Monica eta McElhinny, Bonnie. (2017). *Language, Capitalism, Colonialism*. Toronto: University of Toronto Press.
- Hernández García, Jone Miren. (1997/1998). *Naciones, Nacionalismos y Ciudadanas, ¿de dónde?* KOBIE Serie Antropología Cultural, 8, 19-25. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia - Diputación Foral de Bizkaia. <https://ekoizpen-zientifikoa.ehu.es/documentos/60cd61b163d7a5247e8d51a1>
- Hernández García, Jone Miren. (2010). Baina gu ere gazteak izan ginen! Gazte euskalduna izatearen esanahia atzo eta gaur. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak = Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca = Travaux et actes de l'Academie de la Langue basque*, 55(2), 579–607.
- Herrerias Moratinos, Beatriz. (1993). *Las casas baratas en Gipuzkoa: Cuadernos de Sección*. Historia-Geografía 21. (1993) p. 263-274/ ISBN: 84-87471-49-8/ Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Hiria Kolektiboa. (2010). *Hiri analisirako manuala: Generoa eta eguneroko bizitza*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Lefebvre, Henri. (2020). *El derecho a la ciudad*. Capitán Swing Libros.
- Lefebvre, Henri. (1968). *Le droit à la ville*. Paris: Anthropos.
- Lefebvre, Henri. (1991). *The production of space*. Oxford eta Cambridge: Blackwell. (Jatorrizko lanaren data 1974).
- Levinson, Stephen Curtis. (1996). Language and Space. *Annual Review of Anthropology*, 25, 353-382 San Mateo: Annual Reviews. <https://doi.org/10.1146/annurev.anthro.25.1.353>
- Luxán Serrano, Marta; Legarreta Iza, Matxalen. (2019). Metodologías cuantitativas desde una perspectiva feminista: una aplicación a través de las Encuestas de Empleo del Tiempo. *Otras formas de (des) aprender: investigación feminista en tiempos de violencia, resistencias y decolonialidad* (93-110 orr.). Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Miralles Guasch, Carme; Delclòs Alió, Xavier. (2018). *Looking at Barcelona through Jane Jacobs's eyes: Mapping the basic conditions for urban vitality in a Mediterranean conurbation*. *Land Use Policy* 75 (2018): 505-517. <https://doi.org/10.1016/j.landusepol.2018.04.026>

- Moreno, Carlos; Allam, Z; aheer Chabaud, Didier; Gall, Catherine; Pratlong, Florent. (2021). *Introducing the “15-Minute City”*: Sustainability, resilience and place identity in future post-pandemic cities. *Smart cities* 4(1), 93-111.
<https://doi.org/10.3390/smartcities4010006>
- Muxí Martínez, Zaida; Casanovas, Roser; Ciocoletto, Adriana; Fonseca, Marta eta Gutiérrez Valdivia, Blanca. (2011). ¿Qué aporta la perspectiva de género al urbanismo? *La arquitectura y el urbanismo con perspectiva de género*, 17, 105-129.
<https://doi.org/10.14198/fem.2011.17.06>
- Ricart, Nuria; Remesar, Antoni. (2013). *Reflexiones sobre el espacio público*. On *The W@terfront*, 25, 5-35.
<https://revistes.ub.edu/index.php/waterfront/article/view/18792> -tik lortua.
- Sorolla Vidal, Natxo; Altuna Zumeta, Olatz; Larrea Mendizabal, Imanol. (2019). *Euskararen erabilerarekin* lotura duten faktoreak. *Soziolinguistika Klusterra*. <https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/euskararen-erabilerarekin-lotura-duten-faktoreak-udalerrri-mailako-analisisa/> -tik lortua.
- Telleria Andueza, Koldo. (2011ko azaroaren 9tik 11ra). *Eskala txikiko erabakiak, aldaketa handiak – Udalen egitekoa [Aurkezpena]*. *Hirigintza barneratzailea. Kaleek badute generoa*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
https://www.euskadi.eus/contenidos/evento/urbanismo_inclusivo/eu_urbincl/adjuntos/seminario_eu.pdf -tik lortua.
- Telleria Andueza, Koldo. (2024). *Elkarbizitzarako espazioak trantsizioan. Euskararen lurraldean parte-hartzea oinarri duten praktika kokatuetatik ekarpena* [Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. *Artxibo Digitala Ikerketa Irakaskuntza*.
<http://hdl.handle.net/10810/72092> -tik lortua.
- Telleria Andueza, Koldo; Otamendi Irizar, Irati. eta Santolaria Del Campo, Oihana. (2022). *Kaleen bilakaera eta euskararen erabilera. Zein da lotura?*. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 125, 53-71. Andoain (Gipuzkoa). <https://doi.org/10.55714/BAT-125.2>
- Tonucci, Fancesco. (2013). *La città dei bambini. Un modo nuovo di pensare la città*. Zeroseiup.
- Valdivia, Blanca. (2018). Del urbanismo androcéntrico a la ciudad cuidadora. *Hábitat Y Sociedad*, 11, 65-84. <https://doi.org/10.12795/HabitatySociedad.2018.i11.05>
- Valdivia, Blanca. (2021). *La ciudad cuidadora. Calidad de vida urbana desde una perspectiva feminista* [Doktorego Tesia, Universitat Politècnica de Catalunya]. *Tesis Doctorals en Xarxa*.
<http://hdl.handle.net/10803/671506>
- Valdivia, Blanca. (2021). La ciudad cuidadora que cuida del medio ambiente. *Crítica Urbana*, 17(4), 42-44. <https://criticaurbana.com/la-ciudad-cuidadora-que-cuida-el-medioambiente> -tik lortua.

8. ERANSKINA: GLOSARIOA

- ADIERAZLE SOZIO-URBANISTIKOAK

Ikerketarako hartu diren espazio sozio-geografikoetan, auzoetan, adierazle ezberdinak sortu dira. Adierazle hauek hiri zaintzaile baten ezaugarrien baitan sortu dira nagusiki. Honela, adierazle hauetako bakoitzak auzoak dituen ezaugarri zehatzak neurtzen ditu. Oinarrian, biztanleen arteko harreman eta elkarrizketak gerta daitezten hiri antolaketa eta diseinuak sor ditzakeen baldintzak eta eraginak begiratzea da helburua. Aldagai ezberdinak jasotzen dituzten sei adierazle osatu dira ikerketaren kokagune izan diren bost herrietako auzoen ezaugarriak kuantifikatzeko.

- ALDAGAI SOZIOLINGUISTIKOAK

Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eskaintzen dituen hiru datu soziolinguistiko aztertu dira: Euskara-gaitasuna (euskaldun kopurua); etxeko hizkuntza (etxean euskara erabiltzen dutenak); eta euskara transmisioa (lehen hizkuntza euskara dutenak).

- ALDAGAI SOZIO-URBANISTIKOAK

Aldagaiak neurtzeko mota ezberdineko datuak hartu dira kontuan. Batetik, datu estatistikoak eta, bestetik, datu espazialak. Azken horiek lortzeko udal informazioaz baliatu da, herrietan eginiko azterketa zehatzak eta behaketak ere funtsezkoak izan dira. Azpimarragarria da, auzoen egitura eta herritarren ohiturak zehazteko herriaren ezagutza eta eguneroko erabilera egiten duten herritarrekin lan saioak egiten direla. Honela datu kuantitatiboak, espazialak eta estatistikoak, parte-hartze bidez lortutako datu kualitatiboekin ere nahasten dira

- AUZO-TIPOLOGIA SOZIOLINGUISTIKOAK:

Auzoetako errealitate soziolinguistikoa ezagutzeko **auzo-tipologiak** sortu dira. Horretarako bi irizpide baliatu dira: batetik, kale-erabileraren eta GET indizearen azterketa; eta bestetik, auzoen eta udalerrien errealitate soziolinguistikoen alderaketa. Irizpide horien konbinazioak eginez ondorengo hiru auzo-tipologia sortu dira.

- AUZO GAINERABILTZAILEAK ETA AZPIERABILTZAILEAK

Tipologia honetan auzoko euskararen kale-erabilera (AEKE auzo) eta udalerrikoa (AEKE herri) alderatzen dira. Auzo *gainerabiltzaileak* dira auzoko erabilera herrikoaren gainetik dutenak; eta alderantziz, auzo *azpierabiltzaileak* auzoko erabilera herrikoaren azpitik dutenak.

- AUZO EUSKALDUNAGOAK ETA ERDALDUNAGOAK

Tipologia honetan, auzoko (GET auzo) eta udalerriko (GET herri) euskararen gaitasunaren erabileraren transmisioaren indizeak konparatzen dira. Auzo *euskaldunagoak* izango dira GET indizea udalerrikoa baino altuagoa dutenak, eta *erdaldunagoak* udalerrikoa baino baxuagoa dutenak.

- AUZOAN EGUNEROKO BIZITZA EGITEKO AUKERA (AEBEA)

Adierazle sozio-urbanistiko bat da: auzoak eguneroko bizitzarako beharrezkoak diren egitekoak errazten dituen azpiegituren eta zerbitzuen eskaintza neurtzen du. Oinarritzko ekipamenduen (osasun, lehen hezkuntza...) gertutasuna eta oinarritzko zerbitzuen

(komertzioa, ostalaritza...) dentsitatea, lanpostu kopurua eta espazio publikoen estaldura neurtuko dira.

- **AUZOTIK PASATZEKO AUKERA (APA)**

Adierazle sozio-urbanistiko bat da: auzotarrak ez diren beste herritar batzuk edo kanpoko pertsonak auzotatik pasatzea eragin dezaketen aldagaiak neurtzen dira. Honetarako, lehen mailako ekipamenduez gain, beste ekipamenduek izan dezaketen erakargarritasuna begiratu da. Era berean, mugikortasun fluxu eta zerbitzuak ere neurtu dira.

- **AUZOAN EGOTEKO AUKERA (AEA)**

Adierazle sozio-urbanistiko bat da: Kanean pertsonak topatzean elkarriketa ezinbesteko tresna izango dugu, baina elkarriketa hau luzatzeko eta hartuemanak sakontzeko, espazioak bertan egoteko nolako aukerak eskaintzen dituen erakusten du. Horretarako, auzo zaintzaile batean ezinbestekoa den espazio publikoaren kalitateari erreparatu zaio; espazio publiko kopuruarekiko banku kopurua bezalako aldagaiez osatu da adierazle hau. Era berean, auzoaren oinezkotasun maila ere neurtu da.

- **AUZOAREN IZAERA (AI)**

Adierazle sozio-urbanistiko bat da: biztanleria datu eta etxebizitza motekin erlazioa duten hainbat aldagai barneratzen ditu. Biztanleria kopurua aztertu da, eta emakume, haur eta ez-aktibo direnen proportzioak. Etxebizitzarekiko, profil sozioekonomikoetara hurbildu nahian, alokairua edo etxebizitza edukitze erregimena aztertu dira.

- **BALDINTZAZ GAINDIKO AUZOAK ETA BALDINTZAZ AZPIKOAK**

Aurreko atalean azaldu bezala, GET indizea kalkulatzeko auzoan (edo udalerrian) erroldatutako herritarrak hartzen dira aintzat. Aldiz, kale-erabilera kalkulatzeko, kanean dauden solaskideak behatzen dira, errolda-agiria nongoa duten kontuan hartu gabe (solaskideen artean izango dira auzotarrak ez direnak ere). Eta, jakina, auzo batzuetan bertan erroldatutakoen kaleko presentzia handiagoa da besteetan baino. Hori horrela izanda ere, ageriko da GET indizeak nabarmen baldintzatzen duela auzo (edo udalerriko) euskararen kale-erabilera.

- **BESTE AUZOAK (BA)**

Aldagai urbanistikoak oinarri hartuz egin den klusterizaioan bigarren klusterrari eman zaion izena da.

- **DENTSITATEA:**

Zenbait elementu dagoen biztanle kopuru batekiko edo neurri unitate batekiko begiratu da. Adibidez, lanpostu kopurua 100 biztanleko.

- **ELKAR ERAGIN EREMUAK:**

Eremu hauek bi "Buffer" edo estaldura azalera elkartzean sortzen den eremuak dira. Konbinaketa gune hauetatik zenbatekoa da auzo estaldura begiratu da. Hauek, batez ere PATA adierazlean erabili dira. Adibidez, haur jokoak eta terrazen estaldura konbinaketak ikusi dira.

- **ESTALDURA:**

Auzo batek elementu batekiko duen gertutasuna azaltzen du, adibidez, lehen mailako dendeakiko auzo batek duen gertutasuna. Lortzeko "Buffer" izeneko linea imajinariok sortu dira, elementu batetik distantzia batean dagoen azalera zirkularra jasotzen

duzenak. Puntu batetik 250 metroko hurbiltasunean dagoen azalerari, 250 metroko buffer bat egin dela esaten zaio. Bufferra egin ondoren auzo bakoitzeko azaleraren zati bat estaliko du eta auzoko azalera osoarekin erlazionatuz gero, auzo bateko estaldura maila lortzen da. Hau da, auzoko azalera osoarekiko, zenbatekoa da estaldura, estaldura hau %0tik 100 artekoa izan daiteke.

- **EUSKARAREN GAITASUNAREN ERABILERA TRANSMISIOA (GET indizea)**
Indizea udalerrri bakoitzeko euskararen egoera laburbiltzen duen **indize sintetikoa** da. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako estatistika ofizialetan udalerrri bakoitzari buruz eskuragarri dauden adierazle soziolinguistiko nagusien konbinaziotik sortzen da: euskara-gaitasuna (G), etxean erabiltzen den hizkuntza (E) eta lehen hizkuntza edo transmisioa (T).
- **EUSKARAREN KALE ERABILERA (AEKE)**
Adierazle honek kalean euskara zenbat erabiltzen den kuantifikatzen du. Datuak behaketaren bidez jasotzen dira, eta elkarriketen hizkuntzari nahiz solaskideen adinari eta sexuari buruzko informazioa ematen dute. Ikerketa honetan, datu geolokalizatuak erabiliz, auzoz auzoko adierazleak kalkulatu dira.
- **ERDIGUNE FUNTZIONALAK (EF)**
Aldagai urbanistikoak oinarri hartuz egin den klusterizazioan lehenengo klusterrari eman zaion izena da.
- **ERAKARGARRITASUNA:**
Estaldura gainjarrien bitartez auzo baten erakargarritasun maila lortzen da.
- **ESTALDURA GAINJARRIAK:**
Estaldura mota honek auzo baten **erakargarritasuna** adierazten du. Hau da, auzoko azalera osoarekiko, zenbatekoa da estaldura metatua edo pilatua, estaldura hau %0tik infinitura artekoa da. Hau, batez ere APA adierazlean erabili da. Adibidez, denden erakargarritasuna auzo bakoitzeko.
- **GET2 INDIZEA:** Euskararen kale-erabilera (AEKE) eta Euskararen gaitasunaren erabilera transmisioaren indizearen (GET) aldagaien arteko aldea [AEKE-GET]
- **KLUSTER SOZIO-URBANISTIKOAK**
Herri-mailako analisisian baliatutako aldagai sozio-urbanistikoaren arteko korrelazio estatistikoaren azterketaren ondorioz bi kluster lortu dira: Erdigune Funtzional eta Beste Auzoak.
- **PERTSONEKIN AUZOAN TOPATZEKO AUKERA (PATA)**
Adierazle sozio-urbanistiko bat da: auzoko kale eta erabilera publikoko beste kanpo-espazioetan bertakoak eta kanpokoak dabiltzanean topaketak emango dira eta topaketak emateko gaitasun hau neurtzen du. Hemen, haur jokoak jarri dira zentroan, zaintzaren zutoinetako bat delako. Zaintza lanak egitean beste zenbait gauza egiteko aukera ere izan daitekeen begiratu da, egite anitz horretan besteekin topatzeko aukera gehiago izan daitekeelakoan. Horretarako, espazio horiek eguneroko komertzioarekin eta tabernetako terrazekin duten gertutasuna begiratu da.